1887 garren urteraco egunaria.
Le Réveil Basque.

1887

Armanak uskara edo Ziberouko egunaria.
Eskualduna.

1893

Baserritarra.
La Baskonia.
Bizkaitarra.
California-ko Eskual Herria.

1888

Almanach berria.
Escualdun gazetaren almanaca.
Gure Izarra.

1894


El Thun-thun.

1889

Euskara.

1896

Euskalduna.



1897

Euskaltzale.

1899

El Correo Vasco.

1901

El Adelante.
Euzkadi.

1902

Ibaizabal.

1903

Gipuzkoako Nekazaritza.

1904

Bai jauna bai.
Baserritarra.
Egunaria edo almanaca.
Eskualdunentzat eskuarazko egunari edo almanaka berria.

1905

Eskualdun onaren almanaka.

1906

Aberri.
La Euskaria.

1907

Euzkotarra.
Gipuzkoarra.
JEL.
Revista Internacional de los Estudios Vascos.

1908

Aberrija.
Euskal Esnalea.

1909

Argitzalea.
Bizkaitarra.
Eskualdun almanaka.

1910

Eskualdunaren almanaka.
Euskal-Esnalearen esku-egundiya.
El Kantabriko.

1911

Azkatasuna.
Euskalzaleen-Biltzarra.
Napartarra.
San Frances Terziaren hilabetekaria.

1912

Arabarra.
Euskal Herria.
Jaungoiko-zale.
San Francesen Deia.

1913

Euzkadi.
Euzkotarra.
Irugarren'go Prantzisko'tarra.

1915

Euskel egutegi txikiya.

1918

Rentería.

1916

Aberri.
Euzko Deya.


1919

Bizkai-Aldundijaren Abeluin-Baso-Ingurtija.
Euskera.
Eusko Ikaskuntzaren Deia.
Eusko Langille.
Getxotarra.
Izarra Antzerki-Salla.
Junior.
Zeruko Argia.

1917

Irugarrengoen Irakaslea.
Jesus'en Biotzaren Deya.

ALDIZKARI ETA ALMANAKAK URTEKA
XX. mendea (1901 -1918)



1920

Gipuzkoarra.
¡¡Jaiki!!

1921

Anuario de Eusko-Folklore.
Aranzazu.
Argia.
Eleiz-Orria.
Gure Herria.
Kaiku.
¡Kendu!

1922

Aberri.
Argia'ren egutegia.
Euzkotarra.

1923

Aberri.

1924

Ecos de San Felicísimo.
Gure Herria. Almanaka edo urtekaria.
Gure Mixiolaria.

1925

Aberri.

1926

Zeruko orrichua.

1927

Gure mutillak.
Gymnasium.

1928

Txistu.
Txistulari.

1929

Euzkerea.
Nación Vasca.

1930

Bizkaitarra.
El Día.
Gazteen Laguna.
Kristau Ikasbidea.
Nacionalista.
Nekazaritza.
Oarso.

1931

Almanach du Courier.
Amayur.
Arrati'ko Deya.
Bertsolariya.
Euskaltzaleen-Deia.
Karmen'go Argia.

1932

Aberri Eguna.
Acción Vasca.
Antzerti.
Baskonia.
Bermeotarra.
Ekin.
Euzko.
¡Jagi-jagi!
Mendigoxale.

1933

Lan Deya.
Tierra Vasca.
Yakintza.
Wuhu'ko egutegiya.

1935


Igandeko Orria.
Poxpolin.

1934

Aintzina.
Cinco.
Elgar.
Euskaltzaindiaren laguntzalleak deia.
Gauden gu eskualdun.
Gizarte Ikas Batzak.

1936

Ereintza.
Euzkadiko Agintzaritzaren Egunerokoa.
Euzko-Deya.
Gudari.



1937

Eguna.
Erri.
Espetxean.
Gudari.

1939

Euzko-Enda.

Aurkibide geografikoa (argitaratze-hirien arabera)

EUSKAL HERRIA

ARABA

GASTEIZ

Arabarra (1912-1933)
Cinco (1934)
Gure Mixiolaria (1924-1936)
Gymnasium (1927-1932)

BIZKAIA

AREATZA - VILLARO

Arrati'ko Deya (1931)

BERMEO

Bermeotarra (1932)

BILBO

Aberri (1906-1908)
Aberri (1916-1922)
Aberri 81922)
Aberri (1923)
Aberri Eguna (1925-1928)
Aberrija (1908)
Azkatasuna (1911)
Baserritarra (1893-1897)
Bizkai-Aldundijaren Abeluin-Baso-Ingurtija (1919)
Bizkaitarra (1893-1895)
Bizkaitarra (1909-1913)
Bizkaitarra (1930-1936)
El Correo Vasco (1899)
Ecos de San Felicísimo (1924-1928)

Eguna (1937)
Egutegia eusquerascoa (1815)
Ereintza (1936-1937)
Erri (1937)
Espetxean (1937-1938)
Euskalduna (1896-1909)
Euskaltzaindiaren Laguntzalleak Deia (1934-1935)
Euskaltzale (1897-1899)
Euskal egutegi txikiya (1915)
Euskera (1919-1936)3
Eusko Langille (1919-1937)
Eusquerasco pronosticua (1859-1860)
Euzkadi (1901-1915)
Euzkadi (1913-1937)
Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa (1936-1937)
Euzkerea (1929-1936)
Euzko (1932-1934)
Euzko-Deya (1916-1923)
Gudari (1936-1937)
Gudari (1937)
Ibaizabal (1902-1903)
¡Jagi-jagi! (1932-1936)
JEL (1907-1908)
Jesus'en Biotzaren Deya (1917-1936)
Lan Deya (1933-1937)
Mendigoxale (1932-1934)
Tierra Vasca (1936-1937)
Txistulari (1928-1936)

GETXO

Getxotarra (1919)

SESTAO

Ecos de San Felicísimo (1929-1934)

ZORNOTZA


Ekin (1932-1936)
Ecos de San Felicísimo (1928-1929)
Ekin (1932-1936)
Eleiz-Orria (1921-?)
Gazteen Laguna (1930-1936)
Jaungoiko-Zale (1912-1932)
Karmen'go Argia (1931-1936)
¡Kendu! (1921-1922)

GIPUZKOA

ARANTZAZU
Arantzazu (1921-1936)

DONOSTIA

Acción Vasca (1932-1933)
Anuario de Eusko-Folklore (1921-1936)



Argia (1921-1936)
Argia'ren Egutegia (1922-1936)
Baserritarra (1904-1911)
El Correo del Norte (1834)
El Día (1930-1936)
El Eco de San Sebastián (1883-1889)
Euskal Erria (1880-1918)
Euskal Esnalea (1910-1931)
Euskaltzaleen-Deia (1931)
Euskera (1919-1936)
Eusko Ikaskuntzaren Deia (1919-1936)
Gipuzkoako Nekazaritza (1903-1907)
Gipuzkoarra (1907-1913)
Gipuzkoarra (1920-1936)
Gizarte Ikas Batzak (1934-1935)
Gure Mutillak (1927-1934)
Iganteko Orria (1935-1936)
Izarra Antzerki-Salla (1919-1921)
Junior (1919-1932)
Kaiku (1921-1922)
Kristau Ikasbidea (1930-1931)
Nekazaritza (1930)
R.I.E.V. (1907-1936)
Santo Tomasco feriya (1877)
Txistu (1928)
El Thun-thun (1894)
Tierra Vasca (1933-1934)
Yakintza (1933-1936)

EIBAR

El Adelante (1901-?)
¡Jaiki! (1920-1932)
El Kantabriko (1910)

ERRETERIA

Bertsolariya (1931-1932)
Oarso (1930-1933)
Renteria (1918-1922)

IRUN

Euskal Esnalea (1909)
Euskal-Esnalearen Esku-egundiya (1910)

TOLOSA

Almanaque bilingüe (1878)
Antzerti (1932-1936)
Euscaldun necazarien adisquidea (1865-1866)

Euskel egutegi txikiya (1920)
Euskal Esnalea (1908)
Irugarrengoan Irakaslea (1935-1936)
Poxpolin (1935-1936)

ZARAUTZ

Argia (1936)
Euzkotarra (1922)
Irugarrengoan Irakaslea (1917-1934)

LABURDI

ANGELU

Euzko-Enda (1939-1940)

BAIONA

Almanaca berria edo egunaria (1879-1882)
Almanach du Courier (1931)
1887 garren urteraco egunaria (1886)
Argitzalea (1909-1913)
Egunaria edo almanaca (1904-1910)
Escualdun almanaca edo egunari berria (1884-1887)
Escualdun gazetaren almanaca (1888-1891)
Escualdun laborarien adiskidea (1848-1914)
Eskualduna (1887-1944)
Eskualdun almanaka (1909)
Eskualdun onaren almanaka (1905-1908)
Eskualdunaren almanaka (1910-1920)
Eskualdunentzat eskuarazko egunari edo almanaka berria (1904-1909)
Euskaltzaleen-Biltzarra (1912-1936)

Fedearen Propagacioneco urtecaria (1877-1936)
Gauden gu eskualdun (1934)
Gure Herria (1921-1936)
Gure Herria. Almanaka edo urtecaria (1924-1939)
Le Républicain de Vasconie (1952)
San Frances Terziaren hilabetekaria (1911)
San Francesen Deia (1912)
Uscal-Herrico Gaseta (1848)

DONIBANE-LOHITZUNE

Almanaca berria edo escualdun egunaria (1885)

USTARITZ

Aintzina (1934-1937)

NAFARROA

IRUÑA

Amayur (1931-1936)

Bai jauna bai (1883)


Irugarrengo Prantzisko'tarra (1913-1932)

Napartarra (1911-1918)


Revista Euskara (1878-1883)

Zeruko Argia (1919-1936)

ARGITARATZE HIRIAK
Ipar Euskal Herria



ARGITARATZE HIRIAK
Europa



EUROPA

ALEMANIA

BERLIN

Euskara (1889-1896)

ESPAINIA

BARCELONA

Baskonia (1932)

MADRID

Bai jauna bai (1904)

FRANTZIA

ORTHES

Almanaka berria (1884)

PABE

Almanach berria (1888)

Egunari berria (1852)

Le Réveil Basque (1886-1894)

PARIS

Armanak Uskara edo Ziberouko Egunaria
(1887-1913)

Elgar (1934-1936)

Euskalzaleen-Biltzarra (1911)

Euzko-Deya (1936-1940)

Gure Izarra (1888)


R.I.E.V. (1907-1936)

AMERIKA

IPAR-AMERIKA (ESTATU BATUAK)

LOS ANGELES

Escualdun Gazeta (1883-1884)



NEW ORLEANS

Euzkottarra (1909)

NEW YORK

Aberri (1925-1928)

SAN FRANCISCO

California-ko Eskual Herria (1893-1898)

HEGO-AMERIKA

ARGENTINA (BUENOS AIRES)

La Baskonia (1893-1936)

La Euskaria (1906-1915)


Euzkottarra (1913)

Laurac-bat (1878)

Nación Vasca (1929-1939)

MEXIKO (MEXIKO D.F. eta CHIHUAHUA)

Euzkottarra (1907-1908)



URUGUAY (MONTEVIDEO)

Euskal Herria (1912-1935)

ASIA

TAIPINGFO

Egutegitxoa. Gure ama

WUHU

Wuhu'ko egutegiya (1933)

Hizkuntzaren araberako aurkibidea

A) Euskararen portzentaia:

A.1. Euskara hutsezko aldizkariak (euskaraz %90 baino gehiago dutenak):

Egutegia eusquerascoa.
Uscal-Herrico Gaseta.
Escualdun laborarien adiskidea.
Egunari berria.
Le Républiquein de Vasconie (azken zenbakia bakarrik).
Eusquerasco pronosticua.
Euscaldun necazarien adisquidea.
Fedearen Propagacioneco Urtecaria.
Almanaca berria edo egunaria.
Almanaka berria.
Escualdun almanaka edo egunari berria.
Almanaca berria edo escualdun egunaria.
Escualdun Gazeta.
1887 garren urteraco egunaria.
Armanak uskara edo Ziberouko egunaria.
Eskualduna.
Almanach berria.
Escualdun gazetaren almanaca.
Gure Izarra.
California-ko Eskual Herria.
Euskaltzale.
Ibaizabal.
Baserritarra (1904).
Egunaria edo almanaca.
Eskualdunentzat eskuarazko egunari edo almanaka berria.
Eskualdun onaren almanaka.
Euskal Esnalea.
Argitzalea.
Eskualdun almanaka.

Euskal-Esnalearen esku-egundiya.
Euskalzaleen-Biltzarra.
San Frances Terziaren hilabetekaria.
San Francesen Deia.
Jaungoiko-Zale.
Irugarren'go Prantzisko'tarra.
Euskal egutegi txikiya.
Euzko Deya (1916).
Irugarrengoan Irakaslea.
Jesus'en Biotzaren Deya.
Izarra Antzerki-Salla.
Zeruko Argia.
Argia.
Eleiz-Orria.
Argia'ren Egutegia.
Gure Mixiolaria.
Zeruko Orrichua.
Gure Mutillak.
Txistu.
Gazteen Laguna.
Kristau Ikasbidea.
Almanach du Courrier.
Arrati'ko Deya.
Bertsolariya.
Euskaltzaleen-Deya.
Karmen'go Argia.
Antzerti.
Ekin.
Euzko.
Wuhu'ko Egutegiya.
Euskaltzaindiaren Laguntzalleak Deia.
Gauden gu eskualdun.
Gizarte Ikas Batzak.
Iganteko Orria.
Poxpolin.
Ereintza.
Eguna.
Euzko-Enda.

A.2. Euskaraz % 50 baino gehiago duten aldizkariak:

Almanaque bilingüe.
Le Réveil Basque.
Gipuzkoako Nekazaritza.
Euskera.
¡¡Jaiki!!
Aranzazu.
Gure Herria.
Gure Herria. Almanaka edo Urtekaria.
Euzkerea.
Bermeotarra.
Mendigoxale.
Yakintza.
Aintzina.
Euzkadiko Agintzaritzaren Egunerokoa.
Gudari (1936).

A.3. Euskaraz %50 baino gutxiago duten aldizkariak:


El Correo del Norte.
Laurac-bat.
Revista euskara.
Bai jauna bai (1883).
El Eco de San Sebastián.
Euskal Erria.
Euskara.
Baserritarra (1893).
La Baskonia.
Bizkaitarra (1893).
El Thun-thun.
Euskalduna.
El Correo Vasco.
El Adelante.
Euzkadi (aldizkaria).
Bai jauna bai (1904).
Aberri (1906).
La Euskaria.
Euzkotarra (1907).
Gipuzkoarra (1907).
JEL.
R.I.E.V.
Aberrija.
Bizkaitarra (1909).
El Kantabriko.
Azkatasuna.
Napartarra.
Arabarra.
Euskal Herria.
Euzkadi (egunkaria).

Euzkotarra (1913).
Aberri.
Rentería.
Eusko Ikaskuntzaren Deia.
Eusko Langille.
Junior.
Gipuzkoarra (1920).
Anuario de Eusko-Folklore (1921).
Kaiku.
¡Kendu!
Aberri (1922).
Euzkotarra (1922).
Aberri (1923).
Ecos de San Felicísimo.
Aberri (1925).
Gymnasium.
Txistulari.
Nación Vasca.
Bizkaitarra (1930).
El Día.
Nacionalista.
Oarso.
Amayur.
Aberri Eguna.
Acción Vasca.
Baskonia.
¡Jagi-jagi!
Mendigoxale.
Lan Deya.
Tierra Vasca.
Cinco.
Elgar.
Gudari (1937).
Erri.

B) EUSKALKIA:

B.1. Bizkaiera (alfabetikoki):

Aldizkariak
Aberri (1906).
Aberri (1916).
Aberri (1922).
Aberri (1923).
Aberri Eguna.
Aberrija.
Arabarra.
Arrati'ko Deya.
Azkatasuna.
Baserritarra (1893).



La Baskonia.
Bermeotarra.
Bertsolariya.
Bizkai-Aldundijaren Abeluin-Baso-Ingurtija.
Bizkaitarra (1893).
Bizkaitarra (1909).
Bizkaitarra (1930). Cinco.
El Correo Vasco.
Ecos de San Felicísimo.
Eguna.
Ekin.
Eleiz-Orria.
Euskalduna.
Euskaltzaindiaren Laguntzalleak Deia.
Euskaltzale.
Euskera.
Eusko Langille.
Euzkadi (aldizkaria).
Euzkadi (egunkaria).
Euzkerea.
Euzko.
Euzko-Deya (1916).
Euzko Deya (1936).
Euzko-Enda.
Euzkotarra (1907).
Gazteen Laguna.
Getxotarra.
Gudari (1936).
Gudari (1937).
Gure Izarra.
Gure Mixiolaria.

Gymnasium.
Ibaizabal.
¡Jagi-jagi!
¡¡Jaiki!!
Jaungoiko-Zale.
JEL.
Jesus'en Biotzaren Deya.
Karmen'go Argia.
¡Kendu!
Lan Deya.
Mendigoxale.
Txistulari.
Yakintza.

Almanakak

Egutegia eusquerascoa.
Euskal-Esnalearen Esku-egundiya.
Eusquerasco pronosticua.

B.2. Gipuzkera:

Aldizkariak



Acción Vasca.
El Adelante.
Antzerti.
Anuario de Eusko-Folklore.
Aranzazu
Argia.
Bai jauna bai (1883).
Bai jauna bai (1904).


Baserritarra (1904).
 Baskonia.
 La Baskonia.
 Bertsolariya.
 Cinco.
 El Correo del Norte.
 El Día.
 El Eco de San Sebastián.
 Ereintza.
 Erri.
 Espetxean.
 Euskal Esnalea.
 Euskaltzaindiaren Laguntzalleak Deia.
 Euskaltzaleen-Deia.
 Euskera.
 Eusko Ikaskuntzaren Deia.
 Eusko Langille.
 Euzkadiko Agintzaritzaren Egunerokoa.
 Euzkotarra (1922).
 Gipuzkoako Nekazaritza.
 Gipuzkoarra (1907).
 Gipuzkoarra (1920).
 Gizarte Ikas Batzak.
 Gure Izarra.
 Gure Mixiolaria.
 Gure Mutillak.
 Gymnasium.
 Ibaizabal.
 Igandeko Orria.
 Irugarrengo Prantzisko'tarra.

Irugarrengoen Irakaslea.
 Izarra Antzerki-Salla.
 Jesus'en Biotzaren Deya.
 Junior.
 Kaiku.
 El Kantabriko.
 Kristau Ikasbidea.
 Lan Deya.
 Nación Vasca.
 Nacionalista.
 Nekazaritza.
 Oarso.
 Poxpolin.
 Rentería.
 R.I.E.V.
 El Thun-thun.
 Tierra Vasca.
 Txistu.
 Txistulari.
 Yakintza.

Almanakak

Almanaque bilingüe.
 Argia'ren egutegia.
 1887 garren urteraco egunaria.
 Egutegitxo. Gure ama.
 Euscaldun necazarien adisquidea.
 Euskal-esnalearen esku-egundiya.
 Euskal egutegi txikiya.
 Santo Tomasco Feriya.





B.3. Lapurtera:

Aldizkariak

Aintzina.
Argitzalea.
California-ko Eskual Herria.
Elgar.
Eskualduna.
Euskal Herria.
Euskalzaleen-Biltzarra.
La Euskaria.
Euskera.
Fedearen Propagacioneco Urtecaria.
Gure Herria.
Gure Izarra.
R.I.E.V.
San Frances Terziaren Hilabetekaria.
San Francesen Deia.

Almanakak

Almanaka berria edo egunaria.
Almanaka berria edo eskualdun egunaria.
Almanach du Courrier.
Egunaria edo almanaca.
Eskualdun almanaca edo egunari berria.
Eskualdun gazetaren almanaca.
Eskualdun laborarien adiskidea.
Eskualdun almanaka.
Eskualdun onaren almanaka.
Eskualdunaren almanaka.
Eskualdunentzat eskuarazko egunari edo almanaka berria.

Euskal-Esnalearen Esku-egundiya.
Gauden gu eskualdun.
Gure Herria. Almanaka edo urtekarria.

B.4. Goi-nafarrera:

Amayur.
Gure Izarra.
Napartarra.
Revista Euskara.
Zeruko Argia.

B.5. Behe-nafarrera:

Aldizkariak
Eskualdun Gazeta.
Eskualduna.
Gure Izarra.
Le Réveil Basque.

Almanakak

Almanaka berria edo egunaria.
Almanaka berria edo eskualdun egunaria.
Almanach berria.
Eskualdun Gazetaren almanaca.
Eskualdun Onaren almanaka.
Eskualdunaren almanaka.
Eskualdunentzat eskuarazko egunari edo almanaka berria.

B.6. Zuberera:

Aldizkariak

Gure Izarra.

Le Républicain de Vasconie.

Le Réveil Basque.

Uscal-Herrico Gaseta.

Almanakak

Almanaka berria.

Almanach berria.

Armanak Uskara edo Ziberouko Egunaria.

Egunari berria.

Gaien araberako aurkibidea (alfabetikoki)⁴

POLITIKOAK

Aberri (1906-1908)
Aberri (1916-1922)
Aberri (1922)
Aberri (1923)
Aberri (1925-1928)
Aberri Eguna (1932)
Aberrija
Acción Vasca
El Adelante
Aintzina
Amayur
Arabarra
Argitzalea
Azkatasuna
Baserritarra (1893-1897)
Baskonia
Bermeotarra
Bizkaitarra (1893-1895)
Bizkaitarra (1909-1913)
Bizkaitarra (1930-1936)
El Correo del Norte
El Correo Vasco
Erri
Euskalduna
Euzkadi (1913-1937)
Euzko
Euzko-Enda
Euzkotarra (1907-1909)
Euzkotarra (1913)
Euzkotarra (1922)
Getxotarra
Gipuzkoarra (1907-1913)
Gipuzkoarra (1920-1936)

Gudari (1936)
Gudari (1937)
¡Jagi-Jagi!
¡¡Jaiki!!
JEL
¡Kendu!
Mendigoxale
Nación Vasca
Nacionalista
Napartarra
Le Républicain de Vasconie
Le Réveil Basque
Tierra Vasca
Uscal-Herrico Gaseta

KULTURALAK

Amayur
Antzerti
Anuario de Eusko Folklore
Bai jauna bai (1883)
Bai jauna bai (1904)
La Baskonia
Bertsolariya
Cinco
Elgar
Euskal Erria
Euskal Esnalea
Euskaltzaindiaren Laguntzalleak Deia
Euskaltzale
Euskaltzaleen-Biltzarra
Euskara
Euskera
Eusko Ikaskuntzaren Deia
Euzkadi (1901-1915)


4.- Aldizkari batzuk sail batetan baino gehiagotan daude, esate baterako, informatiboak eta politikoak bait ziren. Almanakak ez dira aurkibide honetan sartu, gure sailkapen hau egiterakoan denak "almanaka edo egutegiak" motan sartu bait ditugu.

Euzkerea
 Euzko-Deya (1916-1923)
 Euzko-Enda
 Gure Herria
 Ibaizabal
 Izarra Antzerki-Salla
 JEL
 Kaiku
 El Kantabriko
 Laurac bat
 Oarso
 Renteria
 Revista Euskara
 R.I.E.V.
 El Thun-thun

Txistulari
 Yakintza

ERLIJIOSOAK

Aranzazu
 Ecos de San Felisimo
 Ekin
 Eleiz-Orria
 Federeen Propagacioneco Urtecaria
 Gazteen laguna
 Gizarte Ikas Batzak
 Gure Mixiolaria
 Gure Mutillak
 Gymnasium



Igandeko Orria
Irugarrenko Prantzisko'tarra
Irugarrengoen Irakaslea
Jaungoiko-Zale
Jesus'en Biotzaren Deya
Junior

Karmen'go Argia
Kristau Ikasbidea
San Frances terziaren Hilabetekaria
San Francesen Deia
Zeruko Argia
Zeruko Izpitxoak
Zeruko Orrichua

INFORMATIBOAK

Argia
Arrati'ko Deya
California-ko Eskual Herria
El Correo del Norte
El Día
El Eco de San Sebastián
Eguna
Escualdun Gazeta
Eskualduna
Euskalduna
Euskal Herria
Euskaltzale
La Euskaria
Euzkadi (1913-1937)
Euzko

Euzko-Deya (1936-1940)
Gure Izarra
Ibaizabal
Le Réveil Basque
Tierra Vasca

NEKAZALAK

Baserritarra (1904-1911)
Bizkai-Aldundijaren Abeluin Baso-Ingurtija
Ereintza
Gipuzkoako Nekazaritza
Nekazaritza

SINDIKALAK

Eusko Langille
Lan Deya
Gizarte Ikas Batzak

ERAKUNDEENAK (OFIZIALAK)

Bizkai-Aldundijaren Abeluin Baso-Ingurtija
Ereintza
Euzko Agintaritzaren Egunerokoa
Euzko Deya (1936-1940)

KOMIKIAK

Poxpolin
Txistu

Pentsamoldearen araberako aurkibidea

A) ABERTZALEAK

A.1. EUZKO ALDERDI JELTZALEARENAK:

Aberri (1906-1908)
Aberri (1916-1922)
Aberri (1922)
Aberri (1923)
Aberri Eguna
Aberrija
Amayur
Arabarra
Baserritarra (1893-1897)
Bermeotarra
Bizkaitarra (1893-1897)
Bizkaitarra (1909-1913)
Bizkaitarra (1930-1936)
El Correo Vasco
El Día
Eguna
Espetxean
La Euskaria
Euzkadi (aldizkaria)
Euzkadi (egunkaria)
Euzkerea
Euzko Deya (1916-1923)
Euzko Deya (1936-1940)
Euzko Enda
Euzkotarra (1913)
Euzkotarra (1922)
Getxotarra
Gipuzkoarra (1907-1913)
Gudari (1936)
Gudari (1937)
¡Jaiki!
JEL
Nación Vasca
Napartarra

Poxpolin
Yakintza

A.2. COMUNION NACIONALISTA VASCA

Arabarra
Euzkadi (egunkaria)
Gipuzkoarra (1920)
Kaiku
¡Kendu!

A.3. JAGI-JAGI

¡Jagi-jagi!
Mendigoxale

A.4. EUSKALERRIAKOA

Euskalduna

A.5. ACCION NACIONALISTA VASCA

Acción Vasca
Nacionalista
Tierra Vasca
Baskonia (?)
Ereintza

A.6. ARGENTINAKO ACCION NACIONALIS- TA VASCA

Aberri (1925-1928)

A.7. EUZKOTAR ERKAL ABERTZALE ALDER- DIJA (PARTIDO REPUBLICANO NACIONALIS- TA VASCO)

Azkatasuna

A.8. ERREGIONALISTA (AINTZINA)

Aintzina

B) SOZIALISTAK (P.S.O.E.)

El Adelante

A.9. EUZKO LANGILLIEN ALKARTASUNA

Euzko Langille

Lan Deya

Ereintza

C) KOMUNISTA


Erri

D) DEMOKRATA (E.E.BB.)

A.10. EUZKO NEKAZARIEN BAZKUNA

Escualdun Gazeta

Argia



E) ERREPUBLIKAZALEAK

Aldizkariak:

Argitzalea
California-ko Eskual Herria
Le R'epublicain de Vasconie
Le Réveil Basque
Uscal-Herrico Gaseta

Almanakak:

Almanaca berria edo egunaria
Almanaca berria edo eskualdun egunaria


Almanach berria
Egunari berria

F) 'XURIAK'

Aldizkariak:
Eskualduna

Almanakak:

Aramanak uskara edo Ziberouko egunaria
Egunaria edo almanaka
Eskualduna almanaca edo egunari berria (bo-
napartista)



Escualdun gazetaren almanaca
Escualdun laborarien adiskidea
Eskualdun almanaka
Eskualdun Onaren almanaka
Eskualdunaren almanaka
Eskualdunentzat eskuarazko egunari edo almanaka berria
Gauden gu eskualdun

G) *LIBERALA*

El Correo del Norte

H) *ERREGEZALEA*

El Eco de San Sebastián

I) *ELIZKOTIAK*

Aranzazu
Ecos de San Felicísimo

Ekin
Eleiz-Orria
Eskualduna
Fedearen Propagacioneco Urtecaria
Gazteen Laguna
Gizarte Ikas Batzak
Gure Mixiolaria
Gure Mutillak
Gymnasium
Igandeko Orria
Irugarrengo Prantzisko'tarra
Irugarrengo Irakaslea
Jaungoiko-Zale
Jesus'en Biotzaren Deya
Junior
Karmen'go Argia
Kristau Ikasbidea
San Frances Terziaren Hilabetekaria
San Francesen Deia
Zeruko Argia
Zeruko Orrichua

Aldizkatasunaren arabeko aurkibidea

A) EGUNKARIAK

Aberri (1923)
El Correo vasco
El Día
El Eco de San Sebastián
Eguna
Euzkadi
Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa
Tierra Vasca

B) ASTEAN BI ALDIZ

El Correo del Norte

C) HIRUAN BEHIN

Euzko-Deya (1936-1940)


D) ASTEKARIAK

Aberri (1906-1908)
Aberri (1916-1922)
Aberrija
El Adelante
Amayur
Arabarra (hirugarren eta laugarren aroetan)
Argia
Azkatasuna
Bai jauna bai (1883)
Baserritarra (1893-1897)
Baserritarra (1909-1913)
Bizkaitarra (1930-1936)
California-ko Eskual Herria
Ekin
Erri
Escualdun Gazeta
Eskualduna
Euskalduna

Euskaltzale
La Euskaria
Euzko
Gipuzkoarra (1907-1913)
Gipuzkoarra (1920-1936)
Gudari (1936)
Gudari (1937)
OGure Izarra
Ibaizabal
Igandeko Orria
¡Jagi-jagi!
Kaiku
El Kantabriko
¡Kendu!
Lan Deya
Mendigoxale
Nacionalista
Napartarra
Le Républicain de Vasconie
Le Réveil Basque
El Thun-thun
Uscal-Herrico Gaseta

E) HAMABOSTEKARIAK

Acción Vasca
Arabarra (bigarren aroan)
Arrati'ko Deya
Baserritarra (1904-1911)
La Baskonia
Cinco
Ereintza
Euskal Erria
Euskal Esnalea (1910-1931)
Euzko Deya (1916-1923)
Euzkotarra (1922)
Gipuzkoako Nekazaritza
Jaungoiko Zale



Baskonia
 Bermeotarra
 Bertsolariya
 Bizkai-Aldundijaren Abeluin-Baso-Ingurtija
 Bizkaitarra (1893-1895)
 Ecos de San Felicísimo
 Eleiz-Orria
 Elgar
 Ereintza
 Euskal Esnalea (1908-1909)
 Euskal Herria
 Euskaltzaindiaren Laguntzalleak Deia
 Euzkerea
 Euzko-Enda
 Euzkotarra (1907-1909)
 Gazteen Laguna
 Gizarte Ikas Batzak
 Gure Herria
 Gure Mutillak
 Irugarren'go Prantzisko'tarra
 Irugarrengoen Irakaslea
 Jesus'en Biotzaren Deya
 Junior
 Karmen'go Argia
 Kristau Ikasbidea
 Laurac bat

Nación vasca
 Zeruko Argia

G) BIHILABETEKARIAK:


Euzkadi (aldizkaria: 1910-1914)
 Gure Mixiolaria
 Gymnasium
 Txistulari
 Yakintza

H) HIRUHILABETEKARIA

Eusko Ikaskuntzaren Deia
 Euzkadi (aldizkaria: 1901-1913)

I) URTEKARIAK

Anuari de Eusko Folklore
 Euskalzaleen-Biltzarra
 Fedearen Propagacioneco Urtecaria
 Oarso
 Renteria
 Revista Euskara
 Almanaka eta Egutegi Guztiak



**B. EUSKARAZKO KAZETARITZA GERRA ONDOREN
(1939-1959)**

0. SARRERA

Lan honetan gure doktorego tesiaren gaiari segida eman nahi izan diogu¹, euskarazko kazetaritzaren historiaren mailak piskanaka piskanaka osatuz joateko. Tesian Espainiako Gerra Zibilaren aurreko komunikabideak ikertzen bagenituen, oraingoan Gerra ondorengoak ditugu aztergai. Periodizazio guztiak arbitrario samarrak izaten dira, garaietako mugak aldakorak izan baitaitezke. Hala ere, kasu honetan, uste genuen Gerrak muga bat inposatzen zuela: Gerra aurreko kazetaritza bere gailurrera iritsi zen Gudaldian, aspaldiko egitasmoa gauzatzen denean: euskara hutsezko egunkariarena, Gerran, lehen Eusko Jaurlaritzaren denboran, 1937.eko urtarriletik ekaina arte kaleratu zen *Eguna*. Ordurako, euskarazko kazetaritzak mende bateko bidea egina zuen, 1834.ean agertu bait ziren Donostiako *El Correo del Norte* euskarazko lehen kazetaritza-testuak. XX. mendeko 20. eta 30.eko hamarkadetan, euskarazko kazetaritza unerik hoberenak bizi zituen, *Euzkadi*, *Ekin*, *Zeruko Argia*, *Euzko* eta batez ere Donostiako *Argia* (1921-1936) astekariarekin.

Ezin dugu ahaztu, bestalde, Ipar Euskal Herriko historia oparoa. Chahok Euskal Herri osoko euskara hutsezko lehen aldizkaria, *Uskal Herrico Gaseta*, 1848.ean argitara eman zuenetik, almanakak hasieran eta gero astekariak gorri eta xurien arteko lehien testigantza plazaratu zuten. Gorri edo errepublikazaleen Pabeko *Le Réveil Basque* argitaratu bezain laister, xurien erantzuna Euskal Herriko historian gehien iraun duen aldizkaria den *Eskualdunan* bideratu zen. 1887.etik 1944. urte bitartera argitaratu zen Baionako astekari hau, Ipar Euskal Herriko irakurleko euskaldun gehiena bilduz.

Garai emankorra, dudarik gabe, Hegoan Espainiako Gerra Zibilak eta Iparrean II. Munduko Gerrak moztu zutena. Gure ikerketa hau bestea bukatzen zen puntuan hasten da, Bilbo (Errepublikaren aldekoek zuten Hego Euskal Herriko lurralde bakarra) 1937.eko ekainean asaldatuek bereganatzen dutenean. Hortik aurrera, diktadura ezarri zen, euskaldun asko eta asko herbestera joan ziren eta euskararen gainean isilaldi luze bat amildu zen: liburugintza, kazetaritza, hezkuntza, jendearteko elkarrizketak ere euskaraz egitea, debekatu egin zuen Estatu frankistak.

Gerra ondorengo kazetaritzari buruzko historia, baina, ez da bakarrik hondamendiko kronika bat. Hondamendia gertatu zen, jakina, baina herbestean hasieran, kanpotik eta barrutik gero, berpizte baten historia ere bada. Hasiera hasieratik, garairik latzenetan ere, euskaldunek beren kulturari eusten jakin izan zuten. Ipar Euskal Herrian, Europan, Ameriketean, euskara hutsez zein elebidunezko kazetak sortu zituzten, beti ere Hegora begira, noiz itzuliko zain.

Herbesteko bidea, hala ere, luzea izan zen. Batzuk, urteak pasa ondoren, itzuli egin ziren; beste batzuk, aldiz, herbestean hil. Geratu zirenak ere, Gerra ondorengo garai zailenak pasatuta, euskaraz argitaratzeari berriro ekin zioten.

1.- *Euskarazko prentsa XX. mendean (1919-1937). Euskal kazetaritzaren sorrera eta garapena*, Joseba Agirreazkuenagaren zuzendaritzapean Euskal Herriko Unibertsitateko Garaiko Historia Sailean aurkeztu zen 1992.eko ekainak 4ean. Epai-mahaiaik, Jean Haritsehelhar buru zelarik, *apto cum laude* kalifikazioa eman zion.

Historia honen alde handia Gerra garaian garatzen da: hasieran Espainiako Gerran, laister II. Munduko Gerra. 1936.etik 1944. arte, euskaldun asko (Hegoan Frankoren matxinadari aurre egin ziotenak, gero Frantziar nazien erasoaldiaren lekuko izan zirenak) bi gudalditan egon ziren. Garai nahasiak, aldaketa politiko eta ekonomiko sakonak ekarri zituen, euskal kazetaritzan ere bere islada izango zutenak.

Beraz, euskal kazetaritzarekin jarraitzeko, hogeitaz bitarte batean mugitu gara: 1939.-1959. urte bitartekoa, alegia. 1939. ean bukatzen da Espainiako Gerra, eta hasten da argitaratzen Angelun Hegoko euskaldun herbesteratuen lehen kazeta, *Euzko Enda*. 1959. ean, 60.eko hamarkadaren atarian, amaitzen dugu gure ikerketa hau, industrializazio handia gertatzeaz zegoela. Noski, 50.eko hamarkadan Euskal Herria, batez ere Gipuzkoa eta Bizkaia, industrializatzeko bilakaera batean murgildu zen; hala ere, benetako industrializazio hurrengo hamarkadan gertatu zen, "desarrollismo"aren garaian alegia. Aurreko hamarkadetan nabarmentzen hasiak ziren aldaketak sakonago egiten dira 60.eko urteetan: etorkinen etorrera handia, hiritartze bilakaera punta-puntakoa, politizatze zabala, abertzaletasunaren erradikalitzea, E.T.A.ren sorrera...

Ikertzen dugun garaia, beraz, lau zatitan banatu dugu:

A) Gerra ondorengo lehen urratsak (Gudaldien arteko garaia, Espainiako Gerra bukatzen denetik Munduko II. Gerra hasten den arte): 1937. ean Euskal Herri osoa asaldatu menpe erortzen da, Bilbo hartzen dutenean. Amaizten da Errepublikak emandako autonomia. Eusko Jaurlaritza herbesteratzen da. Gartzelatan (*Espetxean*) eta herbestean (*Euzko Enda*, *Anayak*) euskarazko kazetaritzak bizirik jarraitu nahi du. Bitartean, Ipar Euskal herrian (non Hegotik herbesteratu gehienak zeuden) *Eskualdunaren* inguruko multzo politikoa, Jean Ybarnegaray deputatua batez ere, eskubitarantzako bilakaeran sakontzen da, Franco eta Hitlerren alde jarri.

B) Munduko II. Gerraren garaia: Garai latza euskaldun guztientzat. Iparrean naziak zeuden, *Eskualduna* haien alde zegoelarik; han herbesteratu gehienek alde egin behar izan zuten, Europako beste lekuetara edo Ameriketara. Haien prentsa galerazita dago. Hegoan ere, Francoren Estatu berriak debekatzen du euskarazko prentsa.

D) 1945.-1949. urte bitarteko garaia: Munduko II. Gerra bukatzen da, aliatuak irabazle geratzen direlarik. Eusko Jaurlaritzarentzat, esperantza handiko garaia, itzulera gertu zegoela bait zirudien. Iparrean euskarazko prentsa berriro loretzen da: iparretarrek, *Eskualduna* Frantziako Gobernu berriari itxia, haren ordez beste astekari bat argitaratzen dute, *Herria*. Beste aldizkari batzuk ere sortzen dira, pentsamendu katolikoaren inguruan: *Etchea*, *Oiarzuna*, etabar. Hegotarrek ere berriro beren kazetak argitaratzen dituzte: Eusko Jaurlaritzaren *Euzko Deya*, Euzko Alderdi Jeltzalearen aldizkariak, Barandiaranenak, *Gernika* aldizkari humanista... Hegoan ere, kontu handiz bada ere, lehen euskal aldizkariak hasten dira: *Anaitasuna* erlijiosoa eta Real Sociedad Bascongada de Amigos del País delakoaren argitalpenak.

E) Azkenengo garaia 50.eko hamarkadakoa da. Ekonomian, politikan, kazetaritzan, egoera piska bat baretuta, aldaketa nabarmenak gertatzen dira. Hego Euskal Herriko bigarren industrializazioaren lehen urratsak dira. Lehen ahots kritikoak, batez ere elizgizonen artean, altzatzen dira. Herbestean eta Hegoan, euskal kulturaren lumak biltzen saiatzen da, herbestean *Euzko Gogoa* eta barruko *Egan* aldizkariaren eskutik. Elizgizonek izugarritzko garrantzia dute garai honetan: aldizkari erlijiosoenkin batera, tokian tokiko prentsa ere bultzatzen dute, eta euskal kulturaren inguruko aldizkari batzuk ere argitara ematen dituzte.

Gure interes nagusia Hegoan, edo, hobeto esanda, Hegoko euskaldunek egindako prentsan jartzen dugu. Horrek ez du inolaz ere esan nahi Iparreko prentsa alde batera utzi dugunik, ezta gutxiago ere. Horri buruzko datu ahalik eta zehatzenak ematen saiatu gara gure ikerketa honetan.

Hala ere, aitortu behar dugu hobeto ezagutzen dugula mugaz honuntzako historia, mugaz haruntzako, Frantzian administratiboki kokatua denez gero, desberdin samarra delako.

Lan hau aztertutako aldizkarien erroldarekin osatzen da. Jacques Kayserren ereduaren araberako fitxekin batera, aurkibide eta grafiko batzuk era eskeintzen ditugu, kazetagintzaren bilakera eta ezaugarriak argiago ikus ditezten.

Ikerketa apal honek, zer esanik ez, ez du azken hitza izan nahi, beste ikertzaile batzuk azterketa sakonago eta hobeagoak egin ditzaten oinarria baino. Borondate ezin hobeagoekin egina denez gero, gerta litezken akats eta hutsuneak barkatzea eskatu nahi genioke irakurleari.

I. GERRA ZIBILAREN ONDOKO LEHEN UNEETAKO PRENTSA

Espainiako Gerra Zibilaren garaian bere gailurrera iritsi ondoren, batez ere euskara hutsezko lehen egunkaria izan zen *Egunarekin*, Bilbo asaldatuaren menpe erori zenean, eta Euskadiko autonomi hutsala desagertuta, euskal kulturarentzat eta euskal komunikabideentzat ere sasoi latzetarako atea ireki zen. Hondamendia eskerga izan zen: lehen momentuan, dakigunez, 1936.eko uztaillean alegia, Nafarroan agertzen ziren euskarazko aldizkariak desagertu ziren, halanola Euzko Alderdi Jeltzalearen *Amayur* eta Iruñeako kaputxinoek 1919.etik argitaratzen zuten *Zeruko Argia*. Gipuzkoako asko eta asko ere desagertu ziren, garrantzitsuena euskara hutsezko aldizkariaren artean irakurle gehienak zituen *Argia* astekaria. Hilabete batzuk geroago asaldatuak Gipuzkoa osoan eskuratu zutenean, hondamendia haundiagoa izan zen.

Idazle gipuzkoarrak laister Bizkaira joan ziren, hura bait zen asaldatuaren menpe ez zegoen Euskal Herriko lurralde bakarra. Madrilgo Gorteek Euskadiko Autonomi-estatutua eman zutenean, Bilbon euskarazko aldizkari batzuk argitaratu ziren. Gerra aurrean argitaratzen ziren batzuk ere desagertu ziren, esaterako Zornotzako Jaungoiko-Zale Bazkunak kaleratzen zuen *Ekin*, baina beste batzuk ere agertu ziren. Garrantzitsuena, esan bezala, *Eguna* izan zen.

Ez dugu hemen horretaz hitzeging behar; argiratze dagoen gure tesiaren bertsioan mintzatu bait gara². Bakarrik aipatuko dugu zein izan zen Bilbo erori ondorengo egoera eta euskaldunek emandako urratsak. Asaldatuak, Estatu berria inposatzerakoan, gaztelera ez ziren hizkuntzak zapaldu egin zituzten, euskara ere barne. Legez debekatu zen euskaraz mintzatzea. Gipuzkoan, esate baterako, 1937.eko apirilak 15ean Donostiako Gobernadore militarra zen Alfonso Velardek "¡Hablad español!" izeneko bandoa aldarrikatu zuen³. Falangeak ere "Si eres español, habla español" lemapean euskararen aurka jokatu zuen. Euskarazko egunkari guztiak —eta erdarazkoak, Estatu berriaren aldekoak ez baziren— desagertu egin ziren, beren orde ez erregimenaren aldeko komunikabideak ezarriz. 1936.eko abenduak 23ko Legeak ez zilegia deklaratu zuen "la producción de libros, periódicos, folletos y toda clase de impresos y grabados pornográficos, de literatura socialista, libertaria y, en general, disolvente"⁴. Hurrengo urtean, 1937.eko urtarrilak 14ean alegia, dekretu baten bidez Salamancan Delegación del Estado para la Prensa y Propaganda sortu zen, zeinen lana zera zen: "emplear toda la prensa diaria y periódica y los demás medios de propagación de noticias sea en España, sea en el extranjero, para hacer conocer los hechos del Movi-

2.- Irakur daitezke, gainera, Joseba Agirreazkuenagaren "Prentsa euskaraz: 1936.eko Gudaldian eta Lehen Euskal Gobernuaren garaian", *Jakin*, 50, 1989, eta *Egunaren* berrargitalpen faksimila.

3.- Torrealde, J.M.: "Euskararen zapalkuntza 1936-1939", *Jakin*, 24, 1982.

4.- Terrón Montero, J.: *La prensa de España durante el régimen de Franco*, Centro de Investigaciones Sociológicas, Madrid, 1981, 50. orrialdean aipatua.

miento Nacional”⁵. Hurrengo pausua Falangeren eskuetan prentsa jartzea zen, eta hori borobilzkeo, 1938.ean Barne Ministraritza sortu eta Serrano Súñer —Francoren koinatua— ministrari izendatzea izan zen. Honek 1938.eko apirilak 22an Prentsari buruzko Legea promulgatu zuen, Dirección General de la Prensa eta Dirección General de la Propaganda zirelakoak bere agindupean hartuz. Antonio Tovar —gero euskal gazetan interesatua, eta Mitxelenari Salamancako Euskara Katedra eskeini ziona— eta Dionisio Ridruejo buru ziren. Ridruejo izango zen, denboraren poderioz, Francoren erregimeneko ahots kritiko bat. Tovar eta Ridruejoren ordezkariak Arias Salgado eta Juan Aparicio jarri ziren.

1938.eko Legeak espezio egoera finkatzen du, Gerra bukatutakoan ere bai, eta beraz espresioaskatasun guztiak esekitzen dira. Pentsamoldean aniztasuna gaitzesten da, eta norberaren eritzia azaltzeko baliabide guztiak ere Estatuaren menpe geratzen dira. Doktrina informazioaren gainean jartzen da; zentsura ezartzen da; kazetariak depuratu egiten dira; konsignan ematen dira. Askatasuna zapalduta geratzen da.

Erregimen berriaren aldeko ez ziren komunikabide guztiak desagertuta, guri interesatzen zaigun arloan euskarazko egunkari eta aldizkari guztiak, eta irratiko euskarazko irratsaioak ere -Gerra aurrean Donostiako Irratian astero Ander Artzeluzek eta Joseba Zubimendik bat egiten zuten⁶, eta Gerra garaian Bilbotik ere zenbait irratsaio euskaraz aideratu ziren-, euskararen aurkako propaganda kanpainia bat antolatu zen (beste lurralde batzutan, esaterako Katalunian, hizkuntza propioaren aurka), “Español, habla español”. Euskarazko pertsona izenak debekatu dira; hotel, denda eta horrelako izenak erdarazkoak izan behar direla ezartzen da; itsautzien izenak ere ezin dira euskarazkoak izan. Errolde Zibilean, ezarketa guztiak erdaraz egon behar dira, ez dira beraz onartzen euskaraz, katalanez, edo gaztelera ez diren hizkuntzez egindakoak. Testamentuak eta edonolako lege-agiriak ere, zuzenbide pribatukoak baziren ere, erdaraz bakarrik idatz zitezkeen. Publikoki ezin zen euskaraz mintzatu, pribatuki hitzegitea ere kultur gutxioko pertsonen ezaugarria zela esanez⁷. Erabilera publikoa zigortua izan zen. Joan Mari Torrealdai aipatzen ditu kasu batzuk⁸. Elizatik at ere geratu zen euskara: debekatu zen predikua euskaraz egitea⁹. Hezkuntza mundutik kanporatua izan zen euskara: ikastolak desagertu ziren, eta baita auzo-eskolak ere, Foru Aldundiek antolatutak:

“A la fuerte represión ejercida contra las llamadas rojas y separatistas, hay que añadir la persecución nacional, cultural, educativa y lingüística. Desde el momento mismo de la ocupación de Guipúzcoa, fue preocupación constante de los nacionales y falangistas la imposición de la unidad de lengua; se persiguió el uso del euskera y la música vasca. El razonamiento en que se basa la persecución del euskera es que todos deben educarse en el patriotismo y en la Nueva España, una de cuyas glorias es precisamente

5.- Ibidem.

6.- Díaz Noci, J.: “Euskara irratian: Gerra aurreko leheneneko urtasak”, *R.I.E.V.*, XXXVII, 2. zenbakia, 1992.

7.- Erakusgarri iruditzen zaigu Torrealdai, aipatu lanean, transkribitzen dituen L.A. Vegaren hitzak: “En la utilización de los dialectos [gaztelera ez ziren beste hizkuntzek ez zuten ezta kategoria hori merezi] por la gente urbana hay una exaltación de la aldeanería”. Lehengo hamarkadetan, euskarak lortu zuen baserriatik hirira pasatzea (ikus Díaz Noci, J.: “Hiria eta euskal kulturua masa-komunikazioaren garaian sorreran”, *Cuadernos de Sección. Historia-Geografía* 21, 1993), nolabait euskaldun askoren subkonszientean zegoen pentsamoldea gaindituz. Orain berritoki dikotomia hori planteatzen da, beste modu batez bada ere. Gure ustez, bi kulturaren arteko ezberdintasuna inoiz baino haundiago bihurtu zen, ofizialki bereizten bait ziren bi mundu horiek: alde batetik, hiria, kultura, eralduna, eta beste alde batetik, herria (baserria), kulturarik gabekoa, euskalduna.

8.- Aipatu lanean, 33-34. orrialdeak.

9.- Jose Antonio Arana Martijak 1938.eko debeku eta kasu batzuk aipatzen ditu bere “Euskara Gernikako inguruetan (1938)” artikulutxoan, *Jakin*, 1978.eko uztaila-iraila, 2. aldia, 7. zenbakia, 95. orrialdean. Torrealdai ere, aipatu lanean, kasu batzuk aipatzen ditu.

'el magnífico idioma castellano'. El castellano debe ser el idioma de todo buen español y patriota. En la Nueva España se excluye en bilingüismo de la enseñanza en favor del idioma castellano, único idioma oficial (...)''¹⁰.

Aspaldiko ohitura ezin txarragoak ere berreskuratzen dira hezkuntza munduan: eratzuna, eskoletan euskaraz hitzegiten zutenei ematen zitzaiena; haiek beste bati pasatu behar zioten euskaraz ari bazen. Astea bukatutakoan, eratzuna zeukana zigortua zen.

Zentsura liburuen gainean ere erori zen. Sutara joan ziren pentsamolde ofizial berriarekin bat ez zetozen guztiak. Euskarazko guztiak hor zeuden, jakina. Kasu bat baino ez aipatzearren, gogora dakarkigu. 1937.ean Jose M.^a Arella Igea, Gipuzkoa eta Bizkaiko Gobernadore Zibilaren agindu baten bidez Euskal Herriko Biblioteketan espurgaketa bat egin zen. Rodríguez Ranzek Andoaingo eskoletan egina aipatzen du: euskarazko liburuen artean, olerki liburak, umeentzakoak, Eusko Ikaskuntzaren argitalpenak, eta baita hain inuxente zirudien *Nekazarien irakurraldiyak* sutara joan ziren¹¹.

Euskal idazle eta kazetariak hilda (Ariztimuño edo *Lauaxetaren* kasuak), gartzeleratuak (Ander Artzeluz, adibidez) edo herbesteratuta, euskarazko literaturaren ekoizpen inprimatua ez zen berpiztu 1950. urtera arte, Tomas Agirre *Barrensororen Uztaro* liburua berrargitaratu arte (lehen argitalpena Gerra piztu zen urtekoa dugu). Herbestean ere, 1946. urtera arte ez zen hasi kritikoeak "herbesteko belaunaldia" deitzen dutenaren ekoizpena¹², eta 1950.ean argitaratu zen Ameriketara euskara hutsezko Gerra ondorengo lehen elaberria, Juan Antonio Irazustaren *Joanixio*.

Zer egoeratan geratu zen beraz euskal kazetaritza? Lehen momentuan, 1937.ean, Euskadi faxisten menpean hartuta, Eusko Jaurlaritza Kataluinara joan zen. Han Barcelonan *Euzkadi en Catalunya* astekaria kaleratu zuten, 1936.ean eta 1937.ean, baina euskarazko arrastorik ez da agertzen.

1937.ean, Bilboko Larrinagako gartzelan zeuden presoek eskuizbribatutako aldizkari bat argitaratu zuten, *Espetxean*. Ezagutzen dugun lehen alea (Sabino Arana Fundazioan omen daude jatorrizkoak, guk kopia batzuk kontsultatu ditugu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan) 1937.eko abenduak 8koa dugu. Elebiduna, ezagutzen dugun azken alea (seigarrena, dirudienez), 1938.eko urtarrilak 20koa da. Benetan hunkigarria izan da aldizkari honen orrialdeak irakurtzea: idazleak (ezezagunak) gero eta gutxiago ziren, asko eta asko afusilatutakoak izan bait ziren. Urte batzuk geroago, dirudienez, José Verdesekek, aldizkari honen zenbaki berri batzuk argitaratu zituen Burgosko gartzelara. Egoera txarretan ere euskaldunek nolabait euskal kulturak bizirik iraun zezan ekintzak antolatzeko ahaleginak egiten zituzten. A. de Urarte bere *Veintisiete meses condenado a muerte* liburuan¹³ kontatzen du nola Burgosko gartzelan holako Akademia bat antolatu zuten, berrogei irakaslerekin (guztiak hango espetxeratuak): Aritmetika, Algebra, Kalkulo Merkantila, Takigrafia, Marrazkigintza, Gaztelera, Frantsesa, Inglesa, Alemana eta beste ikasgai batzuk irakasten ziren han. Euskara ere bai:

"Para no llamar la atención sobre lo que estaban estudiando, algunos pusieron en las cubiertas de sus cuadernos el siguiente rótulo: 'Temas de gramática griega'. Y así, nadie les molestaba.

10.- Arren Berrojaechevarría, G.: *Educación y escuelas de barriada en Bizkaia (escuela y autonomía, 1898-1936)*, Editorial Onura, Bilbo, 201.-202. orrialdeak. Ikus daiteke baita ere autore beraren *La generación del exilio. Génesis de las escuelas vascas y las colonias escolares 1932-40* liburua, Editorial Onura, Bilbo, 1983.

11.- Rodríguez Ranz, J.A.: "Diktaduraren errepresio kulturalaren ezaugarri bat: Eskoletako liburutegien espurgaketa", *Bilduma*, 2, 1988, 187.-191. orrialdeak.

12.- Kortazar, J.: *Literatura vasca siglo XX*, Etor, Donostia, 1990, 100. orrialdea.

13.- Santiago de Chile, 1964.

Andrés de Arzeluz, el digno dirigente nacionalista, no sólo daba clase de vasco, sino que para mejor orientar sus lecciones llegó a escribir una preciosa gramática (...)”¹⁴.

Espetxe hartan euskaldun atxilotuen buruzagia Juan de Ajuriaguerra omen zen.

1939.eko urtarrilean, bestalde, Baionan Hego Euskal Herritik herbesteratutakoek beren lehen kazeta argitaratu zuten: *Euzko Enda. Boletín Mensual dedicado a la unión de la raza vasca*, han bildutako Comité Basque de secours aux réfugiés izeneko elkartearen kemenez. Gazteleraz, frantsesez eta zertxobait euskaraz idatzita zegoen. José Javier Leguía zuzendua, aldizkari hartan bere lanak argitaratu zituzten, besteak beste, Joxemiel Barandiaranek, I. López Mendizabalek, Jesus Maria Leizaolak, Inazio Eizmendi *Basarrik*, Errose Bustintzak, Manu Ziartso *Abeletzek* (*Euzko* eta *Egunaren* zuzendaria), Joseba Zubimendik (*Argia* eta Donostiako Irratiaren laguntzailea), eta baita Nikolas Ormaetxea *Orixek* ere. Aldizkariaren orrialdeetan hondamendiaren arrastoak nabariak dira:

“Erbesteko gure bizitza mingotza da. Emengo legeak, lanik ez dauskue laketuten (...). Gure etxetik urrun, lan askori eutsi bearrez aurkitu gara, baña ez gara makal geratu; asnai arteko biotz zindotasuna agertzen jakin dogu”¹⁵.

Are latzago dira lerro hauek:

“Ha terminado la lucha armada en el territorio del Estado español (...). ¿Qué es, mientras tanto, del pueblo vasco? A nadie como a él le amenazó tanto la catástrofe (...). Para servir a ese afán en estos días, los más duros que ha conocido este pueblo de existencia milenaria, nació *Euzko Enda*, llamando a todos los hijos de la raza, emprendiendo la labor de componer su Censo en todo el mundo (...). ¡Perdurar! (...) Así se guarda ininterrumpido el fuego del hogar de los caseríos vascos, y así conserva inextinguible su afán de perduración nuestra Patria”¹⁶.

Espainiako Gerra bukatu zen urte hartan bertan, 1939.ean, herbesteratutako euskal apaizek Parisen aldizkari bat kaleratzeari ekin zioten: *Anayak. Correspondance bi-mensuelle des prêtres basques en exil*. Lehen zenbakia (guztira sei agertu ziren) 1939.eko urtarrilean argitaratu zen. Frantsesez (%90) eta euskaraz idatzia zen. Sinadura gutxi agertzen dira, hala ere badakigu izen ezagun batzuk hor zeudela: Zirilo Arzubiaga eta Gabriel Manterola, adibidez, biak Jaungoiko-Zalekoak eta Bazkun haren *Jaungoiko-Zale* eta *Ekin* aldizkarietan arituak; eta S. Onaindia (azken honek frantsesez, besteak euskaraz). Batzuk Frantzia bizi ziren, beste batzuk (Arzubiaga eta Manterola) Ingalaterran. Han urte batzuk geroago B.B.C.n lan egin zuten, Kanporako Zerbitzuan, lehenak euskarazko irratsaioak eta bigarrenak erdarazkoak egiten, Europa eta Ameriketara aideratzen zirenak.

Bitartean zer egiten zuten Iparreko euskaldunek? Dakigunez, Baionan aspalditik argitaratzen zen *Eskualduna*. Arrakasta haundiko astekaria, Iparreko euskaldun gehienak bildu zituen, gure us-tez Hegoan ez bezala alderdi propiorik ezak bultzatu zuen pentsamolde bat sortzera. Hegoan aber-tzaleak bazeuden, alderdietan antolatuak (Eusko Alderdi Jeltzaleak, Acción Nacionalista Vasca), baina Iparrean, Frantziako zentralismoak behartuta, horrelarik ez zen sortu. Hala ere, P. Letamendiak azpimarratzen duenez¹⁷, Elizak izugarritzko eragina izan zuen euskaldunak biltzean: Hegoan,

14.- Urarte, A. de: *Veintisiete meses condenado a muerte*, Santiago de Chile, 1964, 343. orrialdea.

15.- *Euzko Enda*, 1939.eko maiatza, 5. zenbakia, 8. orrialdea.

16.- Ibidem.

17.- “Le catholicisme qui, autant et même davantage que l’attachement aux fueros, marquera les conflits politiques au Pays basque espagnol, sera, par contre, un élément important de mobilisation politique au Pays basque français”. Letamendia, P.: *Nationalismes au Pays Basque*, Presses Universitaires de Bordeaux, 1987.

noski, elizgizonek ere garrantzi handia izan zuten, askok eta askok abertzaletasunera jo zutelarik; Iparrekoek ere mugaz bestaldeko mogimendu politiko hori lagundu zuten, esate baterako *Eskualdunatik* hain gertu zegoen Mgr. St.-Pierrek, *Anxuberro* goitizenez Bilboko *Euzkadi* egunkarian artikulua mordoan idatzi zuena. Baina Iparrean, berriro gogoratu behar dugu, ez zegoen mogimendu politiko propiorik. Iraultza Frantsesetik, Euskal Herriko apaizgoak eskubitara jo zuten, Errepublikaren aurka beti jokatu.

Hala ere, 30.eko hamarkadan Hego eta Iparraren arteko hurbilketa bat gertatu zen. 1933.ean Ariztimuño aldarrikatzen du nola Iparrean sortuko zen euskal alderdi bat, "baina ez abertzalea edota erregionalista"¹⁸. Ustaritzen irakasle zen Pierre Lafitterekin kontaktuak egiten hasi zen, eta handik lasterrera *Aintzina* aldizkaria sortu zen. Hasieran E.A.J.tik gertu (bere lema *Jaun goikoa eta lege zarra* zen), gero eskubitara jo zuten, *Eskualdunak* laguntzen zuten hautagaiarentzako botua eskatuz: Jean Ybarnegaray.

Gogoratzen dugunez, *Eskualduna* beti hautagai baten alde agertu zen. Hasiera batean (astekaria 1887.ean sortu zen) Louis Etcheverry bonapartistaren alde jokatu zuen (Etcheverryk bera sortu zuen aldizkaria), gero Baionako apezpikutzak bereganatu zuen astekaria, eta 1914.etik Ybarnegaray lagundu zuten. Urte hartatik deputatu izan zen. 30.eko hamarkadako azken urteetan, iparreko euskaldunen botoa eskubitara joan zen berriro, eta Ybarnegaray sartu zen De la Rocque jeneralaren Parti Social Françaisean, De Coral (bigarren hautagai euskalduna) Louis Marinen Fédération Républicainera joan zen, eta hirugarren hautagaia, René Delzangles, Alliance Démocratiquera. Hirurak Front Populaire delakoaren aurkakoak. Zer esanik ez, *Eskualdunak* haien aldeko kanpainia egin zuen. *Aintzinak* ere haientzako botoa eskatu zuen.

Espainiako Gerran Ybarnegarayk laister abertzaleen aurkako jarrera erakutsi zuen, eta Francoren aldekoa. *Eskualdunaren* orrialdeak jarrera horren ispilu izan ziren. Adibide bat aski ezaguna da, nola Gernika bonbatatua izan zenean, asaldatuen bertsioarekin bat zetozen: "Molaren soldadu eskualdunek zaitzen dute arbola saildua. Geroztik izan diren kazeta-egile frantsesek diote gorriek berek dutela eman sua, Irunen egin zuten bezela". *Euzko Deyarekin* ere eztabaidaka hasi ziren, gorriak, separatistak, "pozoitsuak" eta horrelako irainak botatzen zizkietelarik. Ybarnegarayren jarrera ezin bortitzagoa izan zen Hego Euskal Herritik zetozenen aurka. Herbesteratuen aldeko Komite bat sortzen denean, hiru deputatu euskaldunak (Ybarnegaray, Delzangles eta De Coral) ez ziren ezta agertu ere egin. Hala ere, Ybarnegarayk beti bere burua euskaldun jatortzat aurkezten zuen, "défenseur de l'identité basque", Letamendiak dioenez¹⁹. Katolikoa, Pilota Federakuntzaren buruzagia, *Gure Herria* aldizkariaren inguruko kultur-mogimenduan ere sartua, agian, Letamendiak proposatzen duenez, halako parekotasuna aurki daiteke bere jarrera eta Hegoko karlistek mantendu zutenaren artean: "Ybarnegaray et le carlisme: mêmes références à l'identité basque s'exprimant par la langue, al religion et les coutumes (leote, etc.), même conservatisme politique et social, mais aussi attachement farouche à l'Etat nation français ou espagnol"²⁰.

Hori zen Iparreko euskaldun askoren jarrera. Ybarnegaray, naziak Frantzian sartu zirenean, Vichy-ko Gobernuko ministrari bihurtu zen. *Eskualduna* ere erabat erasotzaileen alde azaldu ziren, Hitlerren hitzaldiak ere itzuli eta argitaratuz. Zer esanik ez, Frantzia askatu bezain laister, Libération-ekoek itxi zuten astekaria.

Orain arte ez dugu aipatu dudarik gabe Gerrako eta Gerra ondorengo lehen uneetako aldizkari garrantzitsuena, gorabehera askorekin bizitza luze samarra izango zuena: *Euzko Deya*. 1936.ean

18.- *Euzkadi*, 1933.eko urtarrilak 13.

19.- Aipatu liburua, 47. orrialdea.

20.- Ibidem.

Eusko Jaurlaritzak Parisen sortua, bere helburua atzerrian propaganda eta informazioa zabaltzea zen. Gerra bukatutakoan, jarraitu zuten argitaratzen 1940.eko maiatza arte, hau da, II. Munduko Gerra piztu zen arte. Frantsesez, gaztelera eta euskaraz agertzen zen. Bertan hasi ziren idazten herbestera joan behar izan zuten euskaldunak: I. L. López Mendizabalek, Xabier Mitxelenak, etabarrak. 1939. urtera arte, Eusko Jaurlaritzak ekintza batzuk antolatu zituen Ipar Euskal Herrian, Frantziako Gobernuaren baimenez, eta Iparreko diputatu eskubitarren oposaketaz (Ybarnegarayk, esate baterako, Frantziako Ganbaran Euskadiko errefuxiatuak botatzea esakatu zuen). Baina naziak hurbiltzen ziren heinean, errefuxiatuek beste lurralde batzutura joan behar izan zuten, gehienak Ameriketara. Beyriseko paper asko erre zituzten Eusko Jaurlaritzakoek. Vichyn nazien aldeko Gobernu bat eratu zen, hor *Eskualdunak* betidanik laguntzen zuen Ybarnegaray deputatua ministrari zelarik. Honek errefuxiatuen aurkako errepresioa hasi zuen (1939.ean Francoren Gobernu errekonozitu zuten). Euskaldun asko Loirako Departamentura bidali zituzten, 1940.ean Gurs-eko kontzentrazio-barrutira; Eusko Jaurlaritzaren egoitzak itxi zituzten, eta *Euzko Deyaren* argitalpena bertan behera utzi zuten²¹. E.A.J.ko partaide gehienak Ameriketara edota Londresera joan ziren (han Manuel de Irujok delegazio bat antolatu zuen, Agirre eta beste batzuk New Yorkera zihoazen bitartean. Batzuk (Alberó eta Landaburu) Parisen geratu ziren. Goyheneche saiatu zen alemaniarrengandik euskaldunentzako tratu bat lortzen. Bakoitzak bere bidera jo zuen, eta sakabanaketa Espainiako Gerraren ondorengoa baino haudiagoa egin zen, garai latzak baino latzagoak.

II. BIGARREN MUNDUKO GERRA GARAIKO PRENTSA

A) Ameriketako prentsa

Gerra Zibilaren ondoren, euskaldun asko eta asko Ameriketara joan ziren. Bigarren Munduko Gerra piztu zenean, beste euskaldun askok ere hara joan behar izan zuten. Ez da beraz harriztekoa euskaldunen prentsaren garapena Ameriketara, batez ere, gaztelera hizkuntza zuten estatuetan. Hor, lehenago ere, XIX. mendeko emigrazioari esker, bazeuden euskaldun kolonia batzuk, aipatutako bi gerra horien artean hara joandako euskaldunen ezerrera errazago egin zuena.

40.eko hamarkadako lehen urteetan arrazoi politikoengatik herbesteratutako euskaldunen prentsaren lehen adibideak aurkitzen ditugu. Eusko Ikaskuntzako partaidea zen Bernardo Estornes Lasak *Batasuna* izeneko aldizkaria argitaratu zuen Chileko Santiagon 1941 eta 1942 urteen artean. Batez ere kulturazkoa zen, eta ia dena erdaraz dago. Euskaraz olerki bat baino ez dugu aurkitu. Hala ere, hemen aipatzen dugu Ameriketara herbestertuen lehen aldizkaria delako. Denok dakigunez, Estornes Lasak gero euskal kulturarako hainbesteko garrantzia izan duen *Auñamendi* argitaletxea antolatu zuen.

Hurrengo urtean, hau da, 1943.ean, hasi zen argitaratzen Mexicon *Euzko Deya* bat, izen berdineko aldizkari batzuk kaleratu bait dira XX. mendean (lehenengoa, dakigunez, 20.eko hamarkadan, Bilbon, *Euzko Gaztediren* inguruan sorturiko *Euzkaltzale* Bazkunaren bultzadaz). Eusko Jaurlaritzak *Euzko Deya* hauekin sorrera bultzatu eta babestu zuen, Parisen, Mexikon, Londresen eta beste leku batzutan. Guztietan, aldizkari abertzale jeltxide informatzaile gehienetan, erdara zen nagusi: batzutan gaztelera (Mexicokoaren kasuan), beste batzutan frantsesa (Parisekoan) eta beste batzutan inglesa (Londresekoan). Ikusi dugu lan honen lehen atalean nola Gerra Zibila piztu zenean, sortu zen Parisen *Euzko Deya* bat, sorta honen lehena. 1945.ean berriro hasi zen argitaratzen Pariseko hau (gero luzeago arituko gara honetaz), eta 1943.ean Mexicokoa. Parisekoa informatiboagoa bazen, Ameriketako hau magazine itxurakoa zen, eta ia dena gaztelera idatzia zen. Euskaraz agertzen ziren zatiak normalean Andoni Ruiz de Azua *Ogoñopek* sinatzen zituen, dakigunez

21.- López Adán, E. (*Beltza*): *El nacionalismo vasco en el exilio 1937-1960*, Txertoa, Donostia, 1977, 13. orrialdea.

beti euskal prentsari atxekitutako idazlea, Gerra aurrean ere hainbat eta hainbat aldizkaritan aritua. *Euzko Deyaren* erredakzio-burua zen, gainera, Jesús de Garriz zuzendaria zelarik. Normalean, azkenengo orrialdeetan, noizbehinka, *Euzkeraz* izenburupean, zenbait testu labor agertzen da. Bartzutan, beti ere *Ogoñoperen* ardurapean, atal hura bi orrialde izatera iritsi zen. Aldizkari osoan bezala, gaiak batez ere euskal kulturari buruzkoak izaten ziren, eta politika gutxi (hori izan bait zen herbestean argitaratutako Eusko Jauriaritzaren aldizkari gehienen jarrera, politikaz, eta batez ere bertako politikaz, ez aritzea). Ohiturei buruzko gaiak, euskarari buruzkoak, eta argazkiak ere aurki zitezkeen orrialde horietan.

Munduko Gerrak behartuta, esan bezala Frantzia errefuxiatuta zeuden euskaldun askok Ameriketara joan behar izan zuten, baina ez bakarrik abertzaleak, komunistak ere bai, esate baterako. Gerra Zibilean komunistek beren aldizkarietan euskarari leku bat uzten zioten, orri oso bat kasu askotan. Gerra ondoren ere berdin egiten zuten. 1942.ean Mexicon hasi ziren argitaratzen *Alkartu* izeneko hilabetekaria. Lehen aleak ezin izan ditugu ikusi, baina jakin badakigu 1942.eko urriak 23tik Mexicoko Administrazioan erregistratuta zegoela, eta handik gutxira lehenengo zenbakiak agertu ziren. Lehen zuzendaria Secundino Ortega izan zen. Dakigunez, 1947. urtera arte kaleratu zen, hasieran Ameriketara, esan bezala, eta II. Munduko Gerra bukatutakoan Toulousen, 1945.eko urtarrilak 21etik, 26 Rue Mathalyn helbidean, Agustín Ibáñez zuzendaritzapean garai honetan. Oso haundia, egunkari itxurakoa, 5 zutabe izaten zituen, argazki ugari, eta mami politikoko testu asko. Euskadiko Alderdi Komunistaren delegazio batek argitaratzen zuen, erdaraz, hala ere beti zatitxo bat euskaraz bazeukan, normalean 3. orrialdean, "Euzkel atala" izenburupean, *Egi-zale* delako bategen sinatua. "Nuestra primera preocupación ha sido no convertirnos en una publicación de emigración", zioten *Alkartukoek*, "para trasladar toda nuestra preocupación y nuestro espíritu al país (...). Nuestro interés periodístico se ha dirigido a buscar la noticia del país por todos los medios posibles"²². Aurrerentzean ere, komunistek beren aldizkarietan ia beti euskaraz zertxobait idatzi zuten.

B) Iparreko prentsa

Hego Euskal Herriko errefuxiatuen prentsa Iparrean desagertu bazen ere, bertako euskaldunen prentsak zutik jarraitu zuen, arazo askorekin bazen ere. Iparreko prentsari dagokionez, ikusi dugu zein izan zen *Eskualdunen* jarrera Espainiako Gerra Zibilean, eta gero naziek okupatutako Frantzia ere. Azken finean, lehenagoko pentsamoldearen etekina da, Frantziako kontserbadurismo iraultzailearen aurkakoa eta klerikalaren ekoizpena. Haren erroak 1789.eko Frantziako Iraultzari erantzunean bilatu behar ditugu gure ustez, Michel Elissambururen obretan ezin hobeto erakusten dena, edota XIX. mendeko Iparreko almanaka kontserbadoreetan, gure tesian aztertu genuen bezala. Familia, ondasunean eta erlijioan oinarritua, *Eskualduna* eta bere atzean zegoen talde ideologikoaren jarrera etengabea Europako gatazka belikoen garaian erradikaltasunera jo zuen. Astekariaren azken garaiko zuzendaria Xalbat Arotçarena izan zen; bere aitzindariak bezala, erlijiosoa zen, Baionako Apezpikuak jarria. Lafittek kontatzen duenez, "ideietan izigarri tematsua zen, eta lehenagoko *Action Française*-ko hainitz orhoitzapen gelditu zitzaizkon, gauzak heien arabera biziki usu jujazten baitzituen"²³. Beste aldetik ere, alemaniarren baimenik gabe, ezin zuten papera lortu. Baina, hala ere, arrazoi ideologikoak ere pisuzkoak izan ziren. Jarrera horrek bultzatu zituen nazien alde jartzera. Gerra ondoren, Frantzia askatuko agintariek *Eskualduna* debekatu zuten, orain arte euskarazko aldizkariaren artean bizitarririk luzeena izan duen argitalpena kaleratzeari utzi behar izan ziolarik. Ordurako, hainbat eta hainbat irakurle ere galdu zuen *Eskualdunak*, 2.200 bat bakarrik (kontutan

22.- "Tres años de Alkartu", *Alkartu*, 1946.eko ekainak 30, 37. zenbakia, 1. orrialdea.

23.- "Eskual astekariaren itxorioa", in *Gure Herria Almanaka*, 1971, 34. orrialdea.

hartu behar dugu unerik onenetan astekariak 10.000 zituela)²⁴. Frantziako *Libération* delakoa iritsi bezain laster, Arotçarena preso hartu eta berak zuzentzen zuen aldizkaria debekatu egin zuten. 1883.etik 1944.erako urte haietan *Eskualdunak* Ipar Euskal Herriko irakurle gehienak, laborari gehienak alegia, biltzea lortu zuen. Are gehiago, Hegoan ez bezala indar politiko propiorik ez zegoez, *Eskualdunak* pentsamolde finko baten espresabide ezin hobea izan zen, pentsamolde horri, azken finean Frantzia osoan bezala kontserbadore anti-errepublikanoena, zenbait berezitasun eman zion, pentsamolde eskubitar hori Euskal Herrirako nolabait moldatuz. Esan beharrik ez dago nola Ipar Euskal Herriaren egoera, administratiboki Frantzian kokatua, eta Hego Euskal Herriaren egoera zein desberdin ziren. Frantziako zentralismoa, 1792.etik ondo ezarria²⁵, ez zuen uzten Frantziako herrien indar politikoak sortzen, alderdi politikoen moduan behintzat.

Hala ere, zenbait saiakera ere sortu ziren, arrakasta mugatu samarra izan bazuten ere, eta alderdi politiko behin betirako erarik hartu gabe. 30.eko hamarkadan sortu zen *Aitzina* mogimendua, Lafittek eta Ustaritzeko seminarioko beste gazte batzuk izen berdineko aldizkaria sortu zuten. 40.eko hamarkadan berriro kaleratu zen, tajuera txikiago batekin (lehen egunkari era zeukan). Bigarren garai honetan aldizkariak 14 x 21 zentimetro zituen. Beste aldaketa batzuk ere bazeuden, halanola zuzendariak, Marc Legasse eta André Ospital (*Gérant* Jean Duboscq, Ustaritzeko Zazpiak Bat taldearen lehendakaria); gaiak batez ere kulturalak ziren (*Aintzinak* hasiera batean euskal olerki eta kantauk argitaratu zituen); eta argitaratze-lekua, Donibane Lohitzune (lehen Ustaritzen egiten zen)²⁶.

Aintzinen asmo nagusia zera zen: "De connaître et de rassembler tous les jeunes basques ardents (...) et grouper toutes les activités littéraires, artistiques, culturelles ou sportives, dispersées à travers le Pays basques, et de développer la propagande en faveur de notre mouvement de Renaissance Basque"²⁷. Lehen Kontseiluan, besteak beste, denboraren poderioz aski ezagunak bihurtuko ziren gazte batzuk zeuden, bide desberdin samarretatik joan baziren ere: hor zeuden, esaterako, Marc Legasse idazlea eta Pierre Larzabal antzerkilari eta apaiza, gero abertzaletasun erradikalera joan zirenak; eta Michel Labeguerie Kanboko sendagilea, Simun Haran eta Jacques Abeberryrekin batera *Enbata* mogimendua sortu zuena, gero utzi eta Parisa senatore joan zena, eta euskaldun lehen kantarietako bat izango zena 60. hamarkadan (zortzi kanta argitaratu zituen disketan)²⁸.

Baina hori beste kupel bateko sagardoa da, eta gainera orain ikertzen dugun garaitik nahiko urrun geratzen zaigu. Itzul gaitezen orduan *Aintzina* eta bere asmoetara. 1943.eko apirilak 27an, Ustaritzen ospatutako mezaren ondoren, hango alkatea zen Louis Dassanceren lehendakaritzapean (lehenago Eskualzaleen Biltzarraren presidentea), Eskualdun Gazteen Batasuna sortu zen, "une Fédération de tous les groupes basques"²⁹. Bernard Mendisco, *Bimendi* euskal gramatikaxoaren egilea, presidente hautatu zuten. Michel Limonaire, Olaeta dantza-taldekoka, idazkari; eta Lucienne

24.- Ibidem.

25.- Hizkuntzari dagokionez, urrunera joan gabe, gogoratu behar dugu Gregoire abatearen informea, eta arlo politikoan laburtarren herbesteratzea, Jean Claude Larrodek *Muga* aldizkarian argitaratutako artikuluan adierazten duena.

26.- "En 1942-43, *Aintzina* reparaît, animée par les mêmes hommes auxquels s'ajoutent quelques jeunes comme le d'*Aintzina* sera plus culturelle et moins politique que la première. Elle publiera cependant des textes favorables au régionalisme, en vogue dans les milieux du gouvernement de Vichy. Lors des élections cantonales de 1945, les premiers candidats s'affichent comme nationalistes basque français proviennent des milieux d'*Aintzina*", Letamendia, Pierre: *Nationalismes au Pays Basque*, Presses Universitaires de Bordeaux, 1987, 140. orrialdea.

27.- *Aintzina*, 1942.eko urtarrila, 1. zenbakia.

28.- Aristi, Pako: *Euskal Kantagintza berria*, Erein, Donostia, 1985, 18. orrialdea.

29.- *Aintzina*, 1943.eko ekaina.

Haitce diruzain. Kontseilu hartako beste partaideak Baionako Yribarren andrea, Jean Duboscq, Ep-herrak taldeko Ipharraguerre, Kanboko Izarra taldeko Salaberry, Donibane Lohitzuneko Garcia, Pariseko Errepika taldeko Errecart eta Goyeneche, eta Bordeleko Irritzi taldeko Michel Labéguerie. Talde berri honen asmoa "organiser des cours de danses et de chants basques" zen³⁰.

Garai latzak ziren ekintza politikoak egiteko, eta kultur ekintzak bakarrik egitea posible zen. Baina, hala ere, zenbait kutsu erreibindikatio ere agertzen zen. Hegoan euskara lantzea erabat debekatuta zegoen; Iparrean betidanik zaila zen euskara irakastea, adibidez. Artean Hazparneko bikarioa zen Pierre Larzabalen hitzaldi baten ondorioz, Eskualdun Gazteen Batasunak eskatzen du euskararen irakaspena derrigorrezkoa izan dadin eskola guztietan, eta irakasle guztiak euskaldunak izan daitezten. Are gehiago, "les Jeunes Basques demandent qu'à l'occasion de la formation des provinces qui est à l'ordre du jour des préoccupations du Gouvernement français, l'unité du Pays Basque soit rétablie en une région administrative unique et distincte des autres régions", hori dena "Zazpiak bat" lemapean³¹. Urte hartan bertan laborarien batasuna bilatzen ari zen, Dassanceren kemenez³². Kementsuak ziren, bai, zeren 1944.ean Eskualdun Desterratuak Biltzarra sortzeko ideia aideratu bait zuten, Ustaritzeko Seminarioan zegoen Oxarango aitaren bidez³³. Horrenbeste ekintza antolatzeagatik, Frantziako aldikari batzuek "séparatistes basques-françaises" izendatu zituzten³⁴. Eta *Aintzina*koek, aldiz, erantzun zuten: "Comment, 'séparatistes'? Au contraire, 'unionistes' ". *Aintzina*koek, egia esan, Hego eta Ipar Euskal Herriko batasuna nahi zuten, eta protesta bat plazaratzen zuten: "Depuis plusieurs années, ils accumulent livres, brochures, conférences, sur les sujetc basques les plus divers, essayant soit de mettre en valeur des différences imaginaires entre Basques des deux côtés des Pyrénées (...). Manoeuvres imbéciles (...)"³⁵.

Gazteenek beren aldikaria bazuten. Baina gelditzen zen 60 urte baino gehiagotan lorturiko irakurlegoa, *Eskualdunaren* inguruan bildurikoa hain zuzen, urte onenetan 10.000 irakurle zituena. Zenbait euskaldun bikain, halanola Saint-Pierre, Louis Dassance, Oxobi, Dufau eta Duhour, bildu ziren Ustaritzeko erretorea zen L. Léoni beste aldikari bat, beste astekari bat, kalera zezan eskatzeko. Orduan zuzendari bat bilatu egin behar zen, alemanen aldekoa ez izana, "memento hartan gauza premiatsua baitzen"³⁶. Hautatua Pierre Lafitte izan zen. Lafittek, hirugarren pertsonan, kontatzen du nola izan zen mementu hura:

"L.Léon jin zen bada Ustaritzeko Seminarioan Lafitte-n mintzatzerat. Hunek ez zuen ezetz erran, bainan ez zuen deusik hitzeman nahi bere Superioraren eta Apezpikutegiko jaunen baimenik gabe.

'Ehadila hortaz kexa: gu okaputako gituk, denak antolatuko zauzkiagu alde hortarik. Bilkura bat eginen diagu Milafranka-Argizabalean, Mgr. Saint-Pierre-k lagun-moltxo bat deiturik: zuzen den bezala gurekin izanen hiz' "³⁷.

Eta bilera hartan, behin-behineko zuzendaria Lafitte izendatu zuten. Hala ere, zailtasunak ba-zeuden *Herria* antolatzeko. Prokuradore batengana joan ziren xedeak azaltzera, eta gero Libéra-

30.- Ibidem.

31.- *Aintzina*, 1943.eko maiatza.

32.- Ibidem.

33.- *Aintzina*, 1944.eko Almanaka.

34.- *Aintzina*, 1943.eko urtarrila.

35.- Ibidem.

36.- Lafitte, P.: aipatu "Eskual astekariaren ixtorioa"n.

37.- Ibidem.

tion delakoaren agintarienagana. haiek bazuten susmo txarrak, ez zuten *vichysoise* nahi, eta Baionan eraturako Komitea trabak jartzen hasi zen: "Hasi ziren jakin nahiz baginuentz diru-emailerik, artikulu frantsesik ukanen ginuenetz, nor nahik izkiriatzen ahalko zuenetz gure kazetan"³⁸. Dirudienez, denbora hartan bazegoen Sara inguruan beste astekari euskaldun laiko bat ateratzeko asmoa, eta orduan Lafittek eta are gehiago egin zuten lan *Herriaren* alde. Lan horretan beste batzuk lagundu zuten, hala nola Guillaume de Hiriart erradikala eta Lizeoko irakaslea zen Dufos du Rau. Hala ere, agintariak euskarazko aldizkaria baimena luzatzen zuten, lehen baimena Pabetik, eta gero Bordeletik etorri behar zela esanez. Azkenean, Lafittek berak Bordelera jo eta baimena lortu egin zuen.

Agintari laikoan baimena lortu ondoren, eliz-agintariena behar zuten. Baionako apezpikua berrosatu zenean, etorri berria zen Terrier apezpikuarengana joan ziren Lafitte, Saint Pierre eta Dassance. Lafitte ezagutzen ez zuenez, ondo zeritzola apezpikuak astekari atera eta zuzentzeari, behin-behineko artezkari moduan bazen ere.

Lafittek berak kontatzen digu zein izan zen hurrengo arazoa: dirua. Berak diru piska bat jarri zuen, Jean Elissalde *Zerbitzarik* bi mila libera, eta Telesforo Monzon eta De la Sota hegoarrek ere dirua jarri zuten. Gerra bukatutakoan paper eskasia zela eta Pleven ministrariarengana hurbildu zen Lafitte bere laguntza eske, eta lortu ere egin zuen.

Hori dena arazo materialei dagokienez. Bestelako problemak ere bazeuden. Horietako bat, *Eskualdunaren* itzala. Alde batetik, *Herriak Eskualdunaren* jarraitzailea izan nahi zuen; beste alde batetik, haren pentsamolde erradikaletik urrundu nahi zuen. Irakurle batzuk *Eskualdunaren* itzulera espero zuten, eta *Herria* inpostoretzat edo jotzen zuten; agintariak, batez ere Baionako zentsuraztaile ofizialak, komunista, eta prefetak ezin zuten euskarazko astekari katoliko berria begi onez ikusi.

Baina Gerra ohiartzunak baretuz joan ziren, eta *Eskualdunaren* irakurle amorratuek laister ulertu zuten astekari zaharra ez zela berriro agertuko. *Herriak* bere aitzindariaren pausuak jarraitu zituen gauza askotan, eta berriro Iparreko euskaldunen faborea berreskuratu zuen. Lehen hamar urteetan, beti ere Lafitteren lekukotasunaren arabera, 2.000 ale argitaratetik 10.000 aletara pasatu zen. *Herriaren* lehen zuzendariak adierazten digu zergatik lortu zuten, bere ustez, arrakasta hori:

"Memento batez asko gazte bazoatzia Ameriketara, eta abiatu gabe gehienek abonamendu bat hartzen zuten, harat eta hemengo berrien ukaiteko. Geroxeago, Algeriako soldadoeri eskualdun gaztek pagatzen zioten 'Herria', orhoitgarri bezala. Eta ondoan hainitzek atxiki zuten haren irakurtzeko usai"³⁹.

Baina argi dago irakurle gehienak bertako euskaldunak zirela. Gero eta gutxiago, noski. 1971.ean, Pierre Lafitte ez zen oso baikorra. Arrazoi anitzengatik: irrati-telebista heldu zen, eta horiekin batera irakurtzeko zaletasuna ere murriztu egin zen, euskaraz zein erdaraz; frantsesezko aldizkari eta egunkariak gero eta gehiago ziren; euskara ez zen irakasten, eta familietan ere, gutxiago mintatzen zen; Ameriketara ere gero eta gutxiago irakurtzen zen: lehenengo irakurleen seme-alabek ez zekiten euskaraz, helbideak aldatzen ziren...

Hala ere, *Herriak* bere betebeharra bete zuen, lehen ere *Eskualdunak* egin zuen bezala; baina garaiak aldatzen dira, eta euskarazko aldizkariak zaharrenak ere bere ordaina pagatu behar izan

38.- Ibidem.

39.- Ibidem.

du. Dena den, *Herria* gaur egun ere agertzen da Ipar Euskal Herrian, lehengoko indarrak ez bada ere. Hurrengo ataletan berriro *Herriaz* mintzatzeko parada izango dugu.

Atal hau bukatzeko, labur-labur hitzegingo dugu XIX. mendean eta XX. mendeko lehen hamarkadetan euskal kazetaritzan hain garrantzi handia izan zuen aldizkari mota batez: almanakak. Haien kopurua nahiko handia izan zen⁴⁰, eta benetako aldizkarien aitzindaria ere izan ziren. Zinez, ezin ditugu almanakak aldizkaritzat hartu⁴¹, baina aldi berean ezin dugu beren garrantzia alde batera utzi. Hala ere, kazetaritza finkatu ahala, almanaken pisua gutxituz doa. Horixe gertatzen da euskal kazetaritzan ere. Aztertzen dugun garaian bi almanaka bakarrik daude, bat egia esan: *Gure Almanaka*, *Eskualdunaren* itzalpean urtero agertzen zena, eta, astekaria desagertuta, *Gure Herria Almanaka*, *Herriari* lotua. Ez dugu asko hitzegingo horietaz: astekariaren pentsamoldearen jarratzaileak dira, eta osagarriak. Testu luzeagoak datoz, eta egutegiari dagozkion gauzak ere bai. Irakurlegoa hiritartzen den heinean, genero honen garrantzia murriztuz joan zen. Hala ere, 70.eko hamarkadan ere argitaratzen ziren almanaka edo urtekari hauek.

III. MUNDUKO II. GERRAREN ONDORENGO PRENTSA (1945-1949)

II. Munduko Gerra bukatutakoan, gauzak nolabait bere onera doaz. Frantzia berriro aliatuen menpe, Ipar Euskal Herrian bazegoen finkatzerik. Asko eta asko Ameriketara joanak ziren, halanola Jose Antonio Agirre Lekube lehendakaria bera, New Yorken finkatu zena. Eusko Jaurilaritza berriro bildu zen 1945.eko udaberrian, New Yorken bertan. Bilera hartan, dirudienez, esperantzak handiak ziren, eta baten batek esan zuen Euskal Herrira itzulera gertu zegoela⁴². Ezin dugu ahaztu New Yorken argitaratu zela 1946.etik euskara hutsezko aldizkari bat, politiko-kulturala: *Argia*. Europen ere, askatasun giro berrian, zenbait ekintza egiten dira, eta gure gaiari dagokionez, zenbait aldizkari martxan jartzen dira, politikoak zein kulturalak. Politikoen artean, aipagarrienak Pariseko *Euzko-Deya*, *Alderdi* eta *Oficina de Prensa de Euzkadi* dira. Beste alderdi politikoek ere berriro ekiten diote beren aldizkariak kaleratzeari, eta beraietan euskararentzat badago lekurik. Hala nola, Acción Nacionalista Vasca *Gerra* aurreko *Tierra Vasca* argitaratzen du, eta komunistek bere alde-tik *Euzkadi Roja*. Aldizkari kulturei dagokienez, Barandiaranen itzala nabarmena da (bera Saran bizi zen). Gernika taldeak ere ukatu ezinezko garrantzia izan zuen kultur arloan. Aldizkari kultural aipagarrienak dira *Ikuska*, *Eusko Jakintza* eta *Gernika*.

Hego Euskal Herrian, frankismoaren zama handia bazen ere, zenbait argi izpi ere ikusten hasiak ziren. Aldizkari erlijioso oso garrantzitsu bat, *Anaitasuna*, hasten da argitaratzen 1945.ean. Urte askotan frantziskotarren aldizkari hau euskaldunon eskuetara iritsiko da. Urte batzuk geroxeago, 1948.ean, hasiera batean gehigarri moduan eta gero aldizkari bezala, hasi zen kaleratzen *Egan*, argitalpen kultural-literarioa, euskara hutsez. Orain ikertzen dugun garaia azken urtean, 1949.ean, hasi zen kaleratzen gure ustez hamarkada horietako euskara hutsezko aldizkaririk garrantzitsuen, *Euzko Gogoa*, herbestean sortua, Ameriketara, baina hasiera-hasieratik Euskal Herri osorako pentsatua, denboraren poderioz Euskal Herriratu zena, Baionara.

Zer esanik ez, urte hauetan, naziek aldegin, Iparreko euskaldunek beren aldizkariak kalera-tzen dituzte, Hegokoek sortutakoek duten garrantzia baino murriztagoa, esparru mugatuago batera zuzenduak bait dira. Aldizkari horiek, atal honen azkenaldean piska bat ikertuko ditugunak, lau dira batez ere: *Etchea*, *Gazte*, *Oiarzuna* eta *Elgar*.

40.- Ikus Eusko Ikaskuntzak argitaraturiko gure *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda* (1834-1939).

41.- Ez dugu aipatzen ormarako almanakarik, horiek egutegi hutsak bait direnez, informazioarekin zerikusirik ez bait dute.

42.- López Adán, E. ("Beltza"): *El nacionalismo vasco en el exilio* (1937-1960), Txertoa, Donostia, 1977, 21. orrialdea.

A) Aldizkari politikoak

Esan bezala, behin Frantzia *Libération*-ek askatua, Eusko Jaurlaritzak 1942. urtera arte Parisen argitaratzen zuen *Euzko-Deya* aldizkaria argitaratzeari ekin zion. Frantsesa eta gaztelera nagusi ziren, hala ere euskarak bazeukan lekurik. Hamabostean behin agertzen zen Pariseko Marceau Hiriibideko 11. zenbakitik. Bere azpizburua, lehen bezala, *La Voix des Basques-La Voz de Euzkadi* zen. Lehengo numerazioa jarraitzen zuten, beraz esan dezakegu aldizkari bera zela, Gerrak inposatutako etenaldi baten ondoren berriro agertua. *Euzko-Deya* Eusko Jaurlaritzaren bozeramailea zen, horregatik ez da harrizkekoa politika munduan lortzen diren itun edo akordioak argitaratzea; hala nola, 1945.eko maiatzak 15.ean Euskadiko alderdi politiko eta sindikatuek Baionan sinatu zuten deklarapena⁴³. Egia esan, bazirudien Eusko Jaurlaritza atzerrian Espainiako Gobernu errepublikanoa baino askoz hobe antolatuta zegoela, 1945.eko urria arte ez bait zen berriro bildu⁴⁴. Gauza batzuk aldatzen hasiak ziren, Espainiako Gerran Gasteizko Gotzaia zen Mateo Muxikak Jose Antonio Agirrerri bidali zion gutunak frogatzen duena:

“Debo declarar y declaro solemnemente y con todo el peso de mi autoridad episcopal que desde hace ya mucho tiempo me consta con absoluta certidumbre que Gobierno y Autoridades vascas, en general, aún en medio del frenesí y odio desenfrenados de la contienda, dieron constantemente pruebas evidentes de moderación, de espíritu de justicia, de sentimientos de humanidad y generosidad (...)”.

Berehala, Agirre lehendakariak erantzun zion:

“Cuando llegue la hora cercana del retorno, lo haremos juntos, para continuar en armonía la ingente obra de paz que nos está encomendada (...)”⁴⁵.

Baina denbora asko falta zen Euskal Herrira berriro itzultzeko. Jose Antonio Agirre bera herbestean hil zen.

Euskaraz normalean *Euskal-Oriya* zegoen (aldizkariak 8 bat orrialde izaten zituen), eta bertan denetarikoa gaiak aurki ditzakegu, gehienak euskarari buruzkoak. Dena den ez dira falta Europari buruzko berriak. Kontinentea pil-pilean zegoen, 1946.eko euskarazko orrialde batean ikusten denez: “Karl-Hermann, Anton Brunner eta Martin Gottfried Weis, urkatuak”, nazien aurkako epaiak nonnahi sortzen bait ziren; “Europar auteskundiak nun nai”, “Italia’ko Unberto erregea erori da”, zioten beste bi titularrek. Aldaketa haundiak, dudarik gabe, herbestera tuak zer edo zer egitera bultzatzen zituztenak. 1947.eko maiatzak 1ean greba bat antolatu zen Hego Euskal Herrian, Bizkaian eta Gipuzkoan batipat. *Euzko-Deyak* informazio asko eta asko eman zuen, frantsesez batez ere, gaztelerez eta euskaraz. Euskaldunon hizkuntzaz 1947.eko maiatzak 15.eko zenbakian honako esaldi hauek irakur ditzakegu. ““Euzkadi, lenengo arrikada Franko’ri jaurti diona”. Eta egia bazen hura izan zela Francoren sistema politikoaren kontra euskaldunek egindako protesta haundia. “La huelga del Primero de Mayo”, esan zuen Euzkadi Irratiak, “ha demostrado también que existe un medio incruento para implantar la democracia”⁴⁶. Batzuk diotenez, 20.000 bat pertsonak greba egin zuten⁴⁷. Esperantzarako bidea irekita zegoen nolabait. O.N.U. delakoak, Espainiako Gobernuak es-

43.- Deklarapen hori Euzko Alderdi Jeltzaleak, Euzkadiko Komite Sozialistak, Euzkadiko Alderdi Komunistak, A.N.V.k, Alderdi Errepublikano-Federalak, U.G.T.k, C.N.T.k, Euzko Mendigoizale Batza, E.L.A.-S.T.V.k eta Ezkerra Errepublikanoak sinatu zuten.

44.- *Euzko-deya*, 1945.eko urriak 15, 224. zenbakia.

45.- *Euzko-Deya*, 1946/VI/15, 240. zenbakia.

46.- *Euzko-Deya*, 1947.eko ekainak 15, 264. zenbakia.

47.- López Adán, op. cit., 39. orrialdea.

katuta, 1947.ean esijitu zion Francori politikaz aldatzea. Aldaketa batzuk aidean, eta Euzko Jaurlaritzak, E.A.J.koek batez ere, erabaki zuten borroka armatua alde batera utzi eta nazioarteko giroa kontutan hartuz barruko politikan transformazioak modu baketsu batez bultzatzea. 1947.ean Erresistentzia Armatuaren gizonak sakabanatzen dira⁴⁸. 1946.ean ere Euzko Alderdi Jeltzalea hasi zen Hego Euskal Herrian berrantolatzen. Europako aliatuekin oso harreman onak mantentzen ziren; baita Estatu Batuekin ere (gogoratu behar dugu II. Munduko Gerran han egon zirela herbesteratuta euskaldun asko eta asko). 1946.ean batzuk han jarraitzen zuten, eta New Yorken euskara hutsezko aldizkari bat argitaratzen hasi ziren. Bere izena Gerra Zibilaren aurrean Donostian argitaratuarena zen, bere ezaugarriak desberdin samarrak baziren ere: *Argia*.

Hala ere, *Argiaren* lehen alea, 1946.eko apirilkoa, Caracasen argitaratu zen. Lehenengo lau zenbakiak, 1946.eko uztaila arte, Venezuelako hiriburuan agertu ziren; beste guztiak, 1946.eko abuztuak 9tik, New Yorken. Han bertan agertu ziren gainontzeko guztiak, guk dakigunez 15 ale guztira, azkena 1948.eko azaroan argitaratua.

Esan dugunez, Gerra ondorengo *Argia* eta Gerra aurrekoa ez dira berdinak, izena izan ezik. 1946.etik argitaratzen den hau batez ere politikoa da, E.A.J.ren pentsamoldeari jarraitzen diona. Eusko Jaurlaritzarekin batera ere harreman estuak zituen⁴⁹, artean ere New Yorken zegoena. Lehen zenbakian "Asmo eta egintzak" agertzen dira: "ARGIA'k eukiko dabezan elburu nagusiak onexek dira: Aberri-askatasuna ta Euzko-Yakintzaren askatasuna (...). Arana-Goiri'tar Sabiñen egia ixango da ARGIA'k zintasunez aldeztuko doguna. Au da: EUZKADI da euzkotarren aberria".

Normalean, aldizkariak honako atal hauek izaten zituen: "Asmo eta egintzak", "Olertiak", "Euzkotarrak Ameriketean" (Venezuela, Argentina, Chile, Mexico eta abarreko berriak), gai politikoak, kulturari buruzkoak, asteko berriak eta denborapasak (azken orrialdean). Argazkiak bazituen, eta Amerika osoko iragarkiak ere, euskaldunenak. Harremanak bazituen beste euskarazko aldizkariekin, esate baterako Baionako *Herriarekin*. Euskal kulturaren aldekoa, 1947.ean Itzultzaile Batzaldija antolatu zuten⁵⁰. Laister hasi ziren Ipar Euskal Herrian herbesteratutako euskaldunekiko harremanak, eta Ameriketean zeuden asko ere hara joan ziren handik gutxira. Nikolas Ormaetxea *Orixeren* itzala hasi zen nabari egiten. *Argia* eskatuta 1947.ean artikulua bat bidali zuen, "Ixilka lan" zeritzona:

"Emen Prantzian ateratzen dira lau edo bost agerkari euskera apur batekin. Auetaz Lafitte jaun apaizak GERNIKA'n eman dun iritzia gogorregi arkitu dute zenbaitek, baina arrazoi geiegi du: 'prantzesez edo españolez idatziak daude ia osorik. Dakarten euskera apurra ere auntz-erdera da, itz asmatu berriz joasia; egiazko euskerarekin ez du zerikusirik (...). Idazle urritasun edo eskasi ikaragarria degula dio ARGIA'k. Ez ote gera geiegi ere elkarrekin mokoka artzeko, ta besteren ona eziñaeramanen euskerari kalte egiteko? Berriz esan: etorriko al dira eskolak. Aiek etortzearekin, agur kazkarkeri oiek geienak (...). Emen egin dezakegun gauzarik oberena, ixil ixilik lan egin"⁵¹.

Ormaetxeak pisuzko garrantzia izango zuen 50.eko hamarkadan hain eraginkorra izan zen beste euskara hutsezko aldizkari batean, agian Gerra ondorengo inportanteena izan zen *Euzko Gogoan*. *Orixek* berak esan zuenez, pausu isil eta zuhurrez jokatu behar zen, herbesteratzea ustez baino

48.- López Adán, op. cit., 33. orrialdea.

49.- Cfr. 5. zenbakia.

50.- Gogoratu behar dugu urte hartan Gerra Zibilaren ondoren Hegoko euskaldunek euskara hutsez argitaratutako lehen liburua agertu zela, herbesteratzen, Jon Andoni Irazusta tolosarraren *Joanixio* elaberria (Buenos Airesen argitaratu zen, Ekin argitaletxean). Hego Euskal Herrian ez zen beste literatur-libururik agertu 1950. urtera arte, Tomas Agirre *Barrensororen Uztaro*, 1936.ean ere argitaratua zena.

51.- *Argia*, 1947.eko maiatza, 9. zenbakia.

luzeagoa izango zelako. 1946.ean aliatuek eta nazioarteko giro orokorrak jaioterritik urrun zeudenen esperantzak pizten zituzten, baina 1947.ean Estatu Batuek beren kanporako politika aldatu zuen, komunismoaren aurka edozein baliabidez jokatu. Horretarako, Francoren estatua lagun bezala ikusten hasia zen. Herbesteko euskaldunek ulertu zuten Gerra Zibilean hasitako bidea ustez baino luzeagoa izango zela. Urte hartan bertan Euzko Alderdi Jeltzaleak beste aldizkari bat kaleratzeari ekin zion: *Alderdi*.

Aldizkari honek bizitza luze samarra izan zuen. Lehen zenbakia Baionan agertu zen 1947.eko apirillean. Elebiduna zen, gaztelera eta euskaraz egina, nagusia gaztelera zelarik (euskaraz bakarrik orrialde bat edo gutxiago agertzen zen). Hasieran, ikertzen dugun garaiko hainbeste aldizkari bezalaxe, mimeografiatua zen, 1949.era arte ez bait zen inprimatu.

Lehen zenbakian argi eta garbi zioten nortzuk ziren bultzatzaileak, *Alderdi* Euzko Alderdi Jeltzalearen boletina zela baieztatuz, "una necesidad advertida por sus dirigentes y señalada en la reunión Consultiva de Donibane Loitzun"⁵². Nolabait, *Alderdi* Gerra Zibilaren ondoren Hegoko abertzaleek herbestean argitaratutako lehen aldizkaria zen *Euzko Endaren* jarraitzailea zen. Baze- goen, ordea, desberdintasun bat:

"La atención primordial de aquél [*Euzko Enda*] se dirigía al 'vasco desconocido' que en tierras lejanas pudiera interesarse rectamente por la suerte trágica de Euzkadi; mientras que éste de hoy —sin excluir aquella finalidad— se dirigirá sobre todo a vascos (...) que en las filas del P.N.V. formaban en Euzkadi peninsular y en sus filas continúan, unos cercanos y otros desparramados por las cinco partes del mundo"⁵³.

Dirudienez, boletina Hegoan ere banatzen zen. Han protestak noizbehinka agertzen ziren. 1947.eko Aberri Eguna ez zen bakarrik herbestean ospatu, barruan ere bai⁵⁴. Donostian abertzale batzuk hartu zuten Radio San Sebastián, "que la Resistencia Vasca convirtió por unos momentos en Donostia Irratija"⁵⁵, eta ordubiak aldera euskaraz eta erdaraz Aberri Eguna ospatzera deitu zuten. Bilbon 12.000 lagun, beti ere *Alderdik* zioenez, bildu ziren San Juan elizaren inguruan, hola- ko manifestapen bat egiten (hala ere, "durante diez o quince minutos pasearon pacíficamente, saludándose sonrientes al paso, charlando con alegría y afectuosidad. Y, en fin, disolviéndose al cabo *motu proprio* sin haber dado lugar al más pequeño incidente"⁵⁶).

Prensa ez zen ordea komunikabide bakarra. Ikusi dugu nola abertzale batzuk Donostiako Irra- tia hartu zuten 1947.ean. Urte hartan bertan, 1947.eko apirilaren azken astelehenean, gauez, Lon- dreseko B.B.C. irrata hasi zen euskarazko irratsaio batzuk aideratzen. Inglaterrian bazeuden apaiz euskaldun batzuk, haien artean Gotzon Urrutia. Gerra aurrean Zornotzako *Jaungoiko-Zale* eta *Ekin* aldizkarietan aritua zen. Jaungoiko-Zale Bazkunaren bultzatzaile izan zen, beste batzurekin batera, hala nola Inglaterrian ere zegoen Gabriel Manterolarekin batera. Urrutia omen zen B.B.C.ko kanpo- rako zerbitzuak aideratzen zituen asteroko irratsaio haien arduraduna. *Alderdik* normalean trans-

52.- *Alderdi*, 1. zenbakia, 1949.eko apirila.

53.- *Ibidem*.

54.- Santiago de Pablo irakasleak giro hori ezin hobeto erakusten ditu, Arabako kasuan oinarritzen bada ere, bere *El nacionalismo vasco en la posguerra, 1939-1955* liburuan, Sabin Arana Kultur Elkargoa, Bilbo, 1991.

55.- *Alderdi*, 1. zenbakia, 1947.eko apirila.

56.- *Ibidem*.

kribitzen zituen, "Euzkera Irratijan" izenburupean⁵⁷. Lehenago ere, 1946.eko abenduak 20an, hasi zen emititzen Resistencia Vasca-ko Euzkadi Irratia, euskaraz eta erdaraz. Euskarazko testu asko *Alderdi* eta, 1950.etik *Euzko-Deya* ere, agertzen ziren. Piskanaka piskanaka, herbestean euskal kultura berreraikitzen ari zen: Buenos Aireseko Ekin argitaletxeak beste elaberri bat argitaratu zuen 1947.ean, Joseba Ezaguirreren *Ekaitzpean*. Goi mailako ikasketak, aurreko garaietan batez ere Hegoan garatu zirenak (Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia eta beste antolakunde batzuei esker), Gerrarekin batera bertan behera gelditu ziren, kasu askotan. Herbesteratuek bere gain hartu zuten, baldintza txarretan, euskal kulturari buruzko ikerketak egiteko lana (hor ibili zen, esate baterako, Joxemiel Barandiaran, geroxeago ikusiko dugun bezala). Gernika taldea eratu zen, beti ere abertzaleen laguntzarekin (Manuel de la Sota hortik zebilen). 1948.ean eratu zen Bordeleko Unibertsitateko Letra Fakultatean Euskal Literatura eta Euskara Katedra, René Lafon irakasleak bete zuena. Urte hartako abenduaren 7an izan zen, eta bertan Euzko Jaurlaritzaren aldetik Telesforo de Monzón egon zen, St. Pierre apezpikuarekin batera. Ordurako lanean zebiltzan Ikuska taldea eta *Euzko Jakintza* aldizkaria, eta beren ordezkariak ere hor zeuden, haien artean noski Barandiaran bera.

Itzultzeko lehen esperantzak baretuta, herbesteratutako euskaldunek beren bizitza finkatzen zuten Ipar Euskal Herrian edo Ameriketean. Egitasmoak ere, hasiera batean behin-behinekoak zirenak, iraupen luzeagorako prestatzen dira. Kazetaritzan ere horrek islada nabaria du. 50.eko hamarkada hasterakoan, ziklostilean egindako aldizkari batzuk inprentarako pausua ematen dute, horietako bat *Alderdi* bera izanik. Klandestinitate garai ilunak, hala ere, ez zeuden erabat gaundituta, eta baliabide hori ez zen gututz alde batera utzi. Baina 49.etik nolabaiteko finkatze bat nabaritzen da.

Nahiko denbora izango dugu garai horretaz hitzegiteko. Oraingoz 40.eko hamarkadan geratu-gara, aldizkari politikoak aztertuz. Jelkideen artean oso kementsua izan zen Euzko Gaztedi (E.G.I.), E.A.J.ren gazteak. 1945.ean hasi ziren argitaratzen *Azkatasuna* aldizkaria, hasieran "JEL" azpizenburuarekin. Beti bezala, jelkide gazteak E.A.J.koak baino erradikalagoak ziren:

"Euzko Gaztedi, por medio de su órgano AZKATASUNA, quiere dar a conocer a los patriotas vascos los principios que inspiran su acción:

1.º Basándose en el lema JAUNGOIKUA ETA LAGI-ZARRA, el objetivo fundamental de su acción es: la lucha por el logro de la independencia total de Euzkadi. Apoyamos al Gobierno Vasco porque lo consideramos como un medio para alcanzar ese fin.

2.º Su objetivo inmediato: el derrocamiento del fascismo franquista que oprime y destroza nuestra patria"⁵⁸.

E.G.I.k beti bozeramaile bat izaten saiatuko da. Hala erabaki zuten 1946.eko Asanbladan. Eta bozeramaile hartan, orrialde bat behintzat beti euskaraz:

"Art. 18.º: Siempre que las circunstancias lo permitan, EUZKO-GAZTEDI tendrá su órgano en la prensa. Se nombrará un Comité de Dirección, que será el encargado de cuanto se refiera a este particular, compuesto de tres personas, una de las cuales, al menos, deberá pertenecer a la Junta Directiva.

Art. 19.º.- El órgano de expresión en la prensa deberá publicar una página, por lo menos, redactada en euzkera (...)"⁵⁹.

57.- Radio Francek, aldiz, ez zuen euskarazko irratsaioak emitituko 50.eko hamarkada arte.1958.ean behintzat, Parisetik bi irratsaio aideratu ziren, Hipolito Irigoyen eta Pedro Aranburu jeneralari buruzkoak (biak Argentinako presidentek izan ziren). Buenos Aireseko *Tierra Vasca* aldizkarian transkribituta daude, "Euskera" izeneko atalean, 1958.eko irailak 15 eta azaroak 15.

58.- *Azkatasuna*, 1946.eko utarrila.

59.- *Ibidem*.

Organu hori urte luzetan zehar *Azkatasuna* izan zen. Berehalaxe zenbakituta dago, eta azpi-zenburua ere aldatzen da: "Organo de Euzko Gaztedi". Neurriak ere bai: 21 × 31 zm. Diruzaina Juan de Sistiaga zen, eta dirudienez zuzendaria Julio de Sarasua. Euskaraz testu batzuk aurkitzen ditugu, Joseba Zinkunegik, J.M. Leizaolak edo Norberto Tauer txekoslovakarriak, besteak beste, sinatuak. Euskararen alde gazte jeltkideek zenbait ekaintza prestatzen dute: 1946.eko ekainean euskal gramatika bat burutzen ari direla diote, "con objeto de que puedan aprender nuestra lengua nacional aquellos de nuestros afiliados que la ignoran"⁶⁰. Urte hartan ere, irailean, Baionan Eusko Ikaskuntzen Astea ospatzen da. Euskarak protagonismo gehiena eskuratzen du: José de Zinkunegik "Necesidad de un Euzkera literario unificado. Urgencia del problema. ¿Cómo resolverlo?" izeneko hitzaldia botatzen du; Pierre Lafittek ere, bere *Grammaire basque sur le navarro-labourdin litteraire* argitaratu berria zeukan, euskararen batasunaz ere hitzegiten du. Elias Etxebarriak, Policarpo de Larrañagak (nekazarien arazoei buruz), J.M. Barandiaranek (euskal ipuei buruz), J.M. Leizaolak, Andoni de Oyartzunek, eta Nikolas Ormaetxeak, besteak beste, parte hartu zuten. Gernika taldeak Baionan euskara eskolak antolatu zituen. Bazirudien, nolabait, herbestean euskal kultura aurreko hamarkadan lortutako dizdira berreskuratzen saiatzen zela. 1948.eko irailean, esaterako, VII. Eusko Ikaskuntzen Kongresua ospatu zen, Barandiaranen lehendakaritzapean.

Azkatasunak bere bidea jarraitzen zuen; arazo ekonomikoak ez ziren falta, ordea, eta 1946.eko urrian, Sistiaga diruzainak harpidedunei ahalegin berezia eskatu zien:

"Zuek ordaintzen dezuten bost liberakin ez degu izparringia ordaintzen, zenbaki baikoitza zazpi ta zorti libera balio duelako, ta gañera jakingo dezute beste aldera gure anaieri bialtzen diogula: Aiek ere poz pozik daude gure Azkatasuna irakurtzeko. Onekin eskatzen dizuet Euzko Gaztedin izenean, aldezutena ematea".

1947.ean, hala ere, salneurria igo zen hamar liberetara (*Alderdik* 20 balio zuen). 1948.etik, *Azkatasunaren* neurriak haundiagotzen dira, egunkari modukoa bihurtzeko (29 × 44 zm., 4 orrialde, 6 zutabetan banatuta). Urte hartan, hala ere, desagertzer behartuta aurkitu zuen bere burua. Ia urtebete argitaratu gabe egon ondoren, 1949.ean berriro kaleratu zen, mimeografiatua. Ikusi dugun azken alea 1951.eko apirila-maiatza-ekainekoa da, 53 ale guztira.

Caracasen beste aldizkari bat ere argitaratu zen, *Euzko Gaztedi* izenekoa. Hala ere, lotuago zegoen Emakume Abertzale Batzarekin, Euzko Gaztedirekin baino. Esan daiteke aldizkaria Emakume Abertzale Batzaren bozeramailea zela, bi memoria aurkitzen bait ditugu haren orrialdeetan. Emakume Abertzale Batza Gerra aurrean sortu zen, Euzko Alderdi Jeltzaletik hurbil zeuden emakumeak biltzeko⁶¹. Sortu zen 1922.ean, Irlandako Cumman nan Ban izeneko emakume abertzaleen bilgunearen antzera. Dirudienez, Policarpo de Larrañagak, gero Euzko Nekazarien Bazkuna, Euzko Tostarteko Bazkuna sortu zituena, parte hartu zuen E.A.B.ren jaiotzan⁶². Gerra bukatutakoan E.A.B.ko emakume asko herbestera ziren. Buenos Airesen eratu zen berriro E.A.B., eta gero Caracasen ere bai. Herbestean, lehen Euskadin bertan egin zuten bezala, Euzko Alderdi Jeltzalearen inguruan beste talde batzuk sortzen saiatu ziren, halanola *gastetxuak*. 1951.ean, *Euzko Gaztedi* aldizkarian bertan diotenez, "bajo la dirección de Emakume Abertzale Batza hemos organizado los gastexus (...). Expuesto nuestro proyecto a algunos señores y a las directivas del Centro vasco e Inmobiliaria Euskalduna, iniciamos nuestra labor con un donativo de 250 \$ hecho por el Dr. Gonzalo de Aranguren y la concesión por el centro de uso exclusivo para este fin de la terra-

60.- *Azkatasuna*, 1946.eko ekaina, 6. zenbakia.

61.- Emakume Abertzale Batzaren historiari Policarpo de Larrañagaren *Emakume Abertzale Batza. La mujer en el nacionalismo vasco* (Añamendi Argitaldaria, Donostia), eta Mercedes Ugaldereen liburua.

62.- 1951.ean Caracas-eko Emakume Abertzale Batzak zituen 206 bazkideei bisita bat egin zien.

za cubierta (...). La inmobiliaria Euskalduna nos entregó \$ 1.100 (...)"'. Bi urte geroago, 1953.ean alegia, Emakume Abertzale Batzak 230 bazkide zituen.

Caracasen E.A.B.koek beren aldizkaria argitaratzeari ekin zioten 1948.eko ekainak 8tik. Tajue-
ra aldakorra zen. Hasieran 21,5 × 28 zm. zituen, eta mimeografiatua zen. Euskaraz Leiza delako
batek, Elgezabal delako batek eta Bernardo Estornes Lasak idatzi ohi zuten. Aldizkari politiko-
kulturaltzat har dezakegu. 1950.ean inprimatzen ari ziren, apiriletik zehazkiago, baina, diru arazoak
zirela medio, 1951.ean berriro mimeografiatuta agertu behar zuen aldizkariak. 1953.ean inprimatu
zen berriro, egunkari modukoa zelarik. Argazkiak eta iragarkiak bazituen. 1954.ean egunkari itxura
haundiagoa zuen, bere neurriak 29 × 41 zentimetro izanik. 1959.ean kolore gorria sartu zen, ma-
ketazio berriagoa ere egin zen, beti ere egunkari moduan (hilabetean behin edo bi hilabetetan be-
hin agertzen bazen ere). Guk dakigunez, 1974. urtera arte, irregularki bazen ere, kaleratu zen.

Euzko Gaztediarekin ere lotuta zegoen *Eutsi!!* izeneko aldizkaria. 1949.etik kaleratu zen, Pari-
sen, Euzko Alderdi Jeltzalearen gazteen kemenez. Klandestino, mimeografiatua, oso txikia, be-
hintzat 1955. urtera arte argitaratu zen, bere aldizkatasuna zein zen ez dakigularik. Ale bat bakarrik
ikusi dugu, 57.a, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan, datarik gabe, baina, 1954.eko Gabonetako
Agirre lehendakariaren hitzaldia aipatzen denez gero, 1955.ekoa dela dirudi. la erdia euskaraz ze-
goen idatzita, gipuzkeraz.

Aipatu behar genuke arlo honetan gazte jeltkideen beste aldizkari bat: *Ikasle*. Erdi kulturala,
erdi politikoa, dirudinez urtero ateratzen zen, edo behintzat urtero (ikasturtero, hobeto esanda)
atera nahi omen zuen. Ale bakar bat ikusi dugu, 1948-1949. ikasturtekoa, 2. zenbakia (lehena, be-
raz, 1947.-1948.ekoa izan zen). Aldizkarian bertan esaten denez, Euzko Ikasle Alkartasunaren bo-
zeramaile klandestino, ("Boletín clandestino de E.I.A. bere azpizburua zen). Lau orrialdea
mimeografiatuak ziren, erdara hutsez, Jose M.^a Agirre *Lizardiren Biotz-begietan* liburutik hartutako
"Mendi-gana" olerkia ezik. Ikusitako zenbaki honen ardatza euskara da, Francoren diktadurapean
okerrago zegoena. "¿Qué podemos hacer los ikasles vascos?", galdetzen dute E.I.A.ko arduradu-
nek. "Podemos hacer mucho", horra erantzuna. Konponbide hauek proposatzen zituzten:

"Los núcleos de E.I.A. de los centros docentes deben de preocuparse esencialmente
del estudio y difusión del euskera, propagar para ello los materiales necesarios y suplir
las deficiencias que pudieran presentarse.

Los elementos de E.I.A. deben intervenir en todas las ramas de la cultura, deporte,
artes, etc., dándoles un marcado carácter vasco y euskérico.

El cultivo de las canciones, formación de corales, ochotes, etc. con repertorio eus-
kérico debe ser incrementado.

En los centros docentes se deben formar abiertamente cuando se pueda y clandest-
inamente en otros caso, grupos de estudios vascos dedicados al análisis y examen de
la cultura vasca en sus diversas manifestaciones (...).

Todo ikasle debe de hacerse con una gramática y con un diccionario de la lengua
vasca (...). Los estudiantes que saben euskera, deben perfeccionarse en la escritura y
en el estudio de la literatura y de la poesía. Su correspondencia deben cruzarla en euske-
ra. Deben ayudar a los erdeldunes en los ejercicios de conversación (...)"'.
"Ikasle, lan egin bear dezu euskeraren alde. Euzkera barik, eztago Euzkadi'rik", horixe zen be-
ren lema. Baina Francok ezarritako erregimenean ez zen batera erraza euskara eta euskal kultura-
ren alde lan egitea⁶³. Horregatik, Euzko Ikasleek "el genocida peninsular por excelencia" deitzen

63.- Dena den, eta izkutuan bazen ere, euskaraz eskolak ematen hasi ziren Hegoan. Esate baterako, M.^a Dolores Goyak
holakoak eman zituen 1943. urtera arte (Ikus Aranburu Puente, X.: "Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Historia de

diote. Herbestean gauza batzuk antolatu zituen E.I.A.k: Miarritzen 1949.erao Udako Euskal Unibertsitate bat antolatu nahi zuten, eta urte hartan bertan (1948.eko uztaillean), Ustaritzen Hego eta Iparreko euskaldun ikasle batzuk bildu zuen kanpamendu batean. Urte hartan ere, Euzko Ikasle Alkartasunak antolatutako ikastaro batzuk ospatu ziren Parisen, hamabost bat hitzaldik osatuak, euskara, literatura, musika, zuzenbide, historia eta ideia politikoei buruz.

Jelkideek ezezik, beste talde politikoek ere ekin zioten berriro beren bozeramaileak argitaratzeari. Batzuk Gerra Zibilaren aurreko ereduak berreskuratu zituzten. Acción Nacionalis Vasca delakoak, esaterako, halaxe egin zuen, eta 1946.ean berriro *Tierra Vasca* kaleratzen hasi zen. Dakigunez, *Tierra Vasca* izan zen 30.eko hamarkadan talde politiko honen bozeramaile nagusia, egunkaria bait zen (*Nacionalista* eta beste aldizkari batzuk astekariak edo hilabetekariak ziren). 1933.ean agertu zen lehen aldiz, gero, diru arazoak zirela medio, isildu egin zen eta 1936-1937.ean, Eusko Jaurlaritzaren garaian, berriro agertu zen Bilbon. *Tierra Vasca* batez ere erdaraz idatzita zegoen, baina beti ere euskarari leku bat ematen zioten ("euskel atal" deituriko baztertxoan). Gerra ondoren, esan bezala, berdin egin zuten. Garai honetan *Tierra Vasca* ez da egunkaria (aztertzen ditugun aldizkarien artean, ez dugu egunkaririk aurkitzen), eta aldizkatasuna aldakorra da: agertzen zen ahal zenean⁶⁴. Lehen zenbakia 1946.eko urtarrilean agertu zen, "Boletín de Información de Acción Nacionalista Vasca" azpizenburuarekin. Tajuera haundiko aldizkaria zen, lau orrialdekoa. Orrialde erdi bat euskaraz zegoen, "Txinpartak" izenburupean, *Tximista* delako batek sinatua.

1947.ean hilabetero kaleratu zen. 1947.ean aldizkatasuna aldakorra goa bihurtu zen, neurriak ere txikiagotzen ziren bitartean. Gerra aurrean bezala, José Olivares Larrondo *Tellagorrik* zuzendu zuen, hil arte. 1958.ean ere argitaratzen zen, Buenos Airesen, beti ere euskararentzat txoko bat utziz.

Komunistek ere Gerra garaian *Euzkadi Roja* argitaratu zuten. Gerra ondoren izenburu hori berreskuratu zuten beste aldizkari bat ateratzeko, 1947.etik. Hala ere, zenbaki garrantzitsuenak 50.eko hamarkadakoak dira, eta hurrengo atalean garai horretaz hitzegiten dugunean aztertuko ditugu. Gazte komunistek (Juventudes Socialistas Unificadas zirelakoek) mimeografiatutako aldizkari klandestino bat kaleratu zuten, *Gaste'en Alkartasuna*, dirudienez Gipuzkoan argitaratzen eta banatzen zena. Sei ale ezagutzen ditugu, gaur egun Espainiako Alderdi Komunistaren Artxibo Historikoan gordetzen direnak⁶⁵. 1947.ean argitaratu zirenak, ezagutzen dugun lehena urte hartako martxoak 23an. Haren helburua, lograr el derrocamiento de Franco y Falange'. Makinaz izkribatu eta gero multikopistan egindako aleek bi orrialde zituzten bakarrik. Nahiz eta izena euskarazkoa izan, ez dago aldizkarian euskarazko testurik.

B) Kultur aldizkariak

Aldizkari politikoekin batera, garai honetako kazetaritza mota garrantzitsuena kulturala da. Herbestean, esan bezala, Gerra aurreko ekintzak berrosatu egin behar izan ziren, politika arloan eta baita kultura arloan ere. Politikoak ez ziren herbestera bakarrik; kultura munduan zebiltzanek ere

la educación en el País Vasco: La ikastola. María Dolores Goya (Gros-eko ikastola", *Cuadernos de Sección. Educación*. 3. Eusko Ikaskuntza, Donostia). 1942.etik Elbira Zipitriak ere euskarazko klaseak eman zituen (Aranburu Puente, X.: "Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak: Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean", *Cuadernos de Sección. Educación*. 4. Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1991).

64.- Lehen zenbaki hartan irakur daiteke: "SE pone en conocimiento de todos nuestros correligionarios que, si ya no lo han hecho, deben ponerse en contacto con las autoridades nacionales de Acción Nacionalista Vasca (...). Los correligionarios de Euzkadi, que pongan un poco de su parte para saber dónde estamos". Honek adierazten digu talde politiko hori berriro biltzeko zailtasunak zer nolakoak ziren.

65.- P.C.E.eko Artxibo Historikoaren Zuzendaria den Victoria Ramos Bellori eskertu nahi diogu aldizkari honen fotokopiak bidali izana.

mugaz haruntzago joan behar izan zuten, Gerra baino lehen politikan sartuta ez bazeuden ere; baina Francoren erregimenak euskal gauzetan ibiliak "susmagarriak" zirela uste zuen. Horietako bat Joxemiel Barandiaran zen. Gerra hasi zenean, Barandiaran Mutriku portutik untziratu zen Iparrean joateko, 1936.eko irailean. Hamazazpi urte iraun zituen bere herbestera⁶⁶. Madrilen fitxa bat egin zioten, "simpatizante de ideas judeo-masónicas y rojo-separatistas" zela esanez. Miarritzen, Angelun, Belloc-en, Baionan eta azkenik Saran egon zen Barandiaran. 1937.ean hasi zen Iparrean berriro lan egiten. 1938.eko apirilean Iparrean zeuden intelektual batzuk bildu ziren, lanean hasteko: hor zeuden Angel Apraiz, Isaac López Mendizabal, Francisco Javier Landaburu eta Joxemiel Barandiaran bera. Baina laister Munduko II. Gerra piztu zen eta, nahiz eta Barandiaranek arkeologian lanetan ibili, gauzak zaildu egin ziren.

Baina Gerra pasatu bezain laster, Barandiaran argitaratzen hasi zen *Ikuska* aldizkaria⁶⁷. 1946.ean izen bereko elkarte sortu zuen, edo berriro martxan jarri zuen esan beharko genuke, aldizkariaren lehen zenbakian gogoratzen denez, ikerketarako erakunde hau Gasteizen jaio bait zen 1921.ean⁶⁸. *Ikuska*, batez ere arkeologian aritzen zena, berehalaxe sartu zen Eusko Ikaskuntzara. Eusko Ikaskuntzaren ekintzak moztu ziren Gerra hastean, eta horregatik, 1946.ean *Ikuska* berriro sortu zen. Urte hartan ere, Iparrean errefuxiatuak zeuden Eusko Ikaskuntzaren partaideek Barandiaran hautatu zuten lehendakari bezala.

Ikuska aldizkaria frantsesez, gazteleraz eta erdaraz idatzia zen. Hizkuntza nagusia frantsesa zen, eta euskaraz noizbehinka bakarrik agertzen zen testuren bat. Gehienak Joxemiel Barandiaranenak berarenak izaten ziren. Hala nola, 1. zenbakian Arabako "Sorginaren txabola" deituriko trikuharriari buruzko artikulu bat. Etnografia eta arkeologia ziren jakintza-erakunde nagusiak. Nolabait, Gerra aurrean bere ardurapean argitaratzen ziren *Eusko Folklore: materiales y cuestionarios* eta *Anuario de Eusko Folklore* ordezkatzen zituen aldizkari berri honek. Hala ere, Barandiaranek, euskal kulturak pairatutako hondamendia ezagutzen zuelarik, erabaki zuen beste gai batzuetaz ere aritzea:

"Dad la falta de un órgano que reúna y dé noticia de los trabajos que van apareciendo sobre asuntos vascos, el Instituto Vasco de Investigaciones 'IKUSKA' ha decidido abrir en su boletín una sección que llene ese vacío. En todos los números, pues, aparecerá una lista de obras y artículos publicados que lleguen a nuestro conocimiento (...). Esta sección se propone también publicar bibliografías especiales sobre diversos asuntos que podrán servir como guías de estudio hasta que aparezca la Bibliografía General Vasca (...). Comenzamos hoy nuestra labor con una lista de libros y folletos sobre la guerra civil de 1936 en el país vasco (...)"⁶⁹.

Hurrengo zenbakian, *Ikuskan* antzinako euskal aldizkariaren erroldetako bat agertu zen, artean ere argitaratzen zen *Eusko Jakintzaren* orrialdeetan osatu zena⁷⁰. Aldizkari hau, Joxemiel Barandiaranek zuzentzen zuena, Gernika taldeak martxan jarri zuen (1947-1958 urte bitartean argitaratu zen Baionan frantsesez, gazteleraz eta euskaraz).

Eusko Jakintza Gernika "Société Internationale des Etudes Basques" erakundearen babesean argitaratu zen. Ander Manterolaren ustez "hauxe izan da euskal gai humanistikoei buruz mende

66.- *Ikuska* aldizkariaren 23. alea, berezia, Barandiaran buruzko monografikoa, Ataun, 1989.eko abendua.

67.- 1993.ean, leerro hauek idazten ditugunean, *Ikuska* berriro argitaratzen hasi da.

68.- *Ikuska*, 1. zenbakia, 1946.eko azaroa-abendua.

69.- *Ikuska*, 1947.eko maiatza-abuztua, 4.-5. zenbakia.

70.- Sota, M. de la: "Inventario vasco de viejas revistas", *Ikuska*, 1947.eko iraila-abendua, 6.-7. zenbakia, eta *Eusko Jakintza*, 1947, 1, 277.-287. orrialdeak.

hontan kaleratu den publikaziorik garrantzitsuena, *Revista Internacional de Estudios Vascos* barne dela⁷¹. Esaldi hau esajeratu samarra iruditzen bazaigu ere, ukaezina da Barandiaranen betebeharrak ezin garrantzitsuagoa izan zela Gerra ondorengo herbesteko belaunaldiarentzat. Azken finean, Eusko Ikaskuntza, eta bere bozeramailea zen *R.I.E.V.* aldizkaria, Barandiaranek bere gain hartu zuen herbestean Gerra aurreko lanaren zama, eta *Eusko Jakintza R.I.E.V.* en jarraitzailea dela esan dezakegu, *Ikuska* Gerra aurreko *Eusko Folklore* eta *Anuario de Eusko Folklore* ren zutabetan oinarritzen zen bezalaxe. Guztiz ados gaude Manterolaren esaldi hauekin: "On Joxemielen zuzendaritzapean mundu zabaleko orduko hizkuntzalari, historialari, arkeologo, etnografo eta geograforik ospetsuenetarikoa hartu zuten parte aldizkari honetan"⁷². Hala ere, "garai hartako egoera politikoa zela eta aldizkari hau gutxi zabaldu zen Hego-Euskalerrian". Asmo eta ahalegin garrantzitsua bazen ere, batez ere kontutan harturik zer garaita kaleratu zen, Gerra aurreko *R.I.E.V.* en zabalera askoz ere haundiagoa izan zen.

Barandiaranen asmoak arlo kulturalen geratzen baziren, Gernika taldeak haruntzago joan nahi zuen, eta horregatik 1948. ean izen bereko aldizkaria argitaratzen hasi zen hiru hilabetetan behin: *Gernika. Cahiers collectifs de cultur humaniste* zuen izena, 1949.etik beste azpizenburu batez agertu zelarik: *Eman da zabal zazu. Al servicio del humanismo popular vasco*. Lehen ikusi ditugun beste kultur aldizkariak bezala, frantsesez, gaztelerez eta euskaraz argitaratu zen. Hasieran, besteetan bezala, frantsesa zen nagusi (azken finean Estatu Frantsesean argitaratzen ziren), baina denboraren poderioz gaztelera nagusitu zen, horregatik *Gernikaren* azpizenburuaren aldaketa. Dena den, hasiera euskaraz idatzitakoaren portzentaia %10a bazen, urteetan zehar %30ra iritsi zen.

Gernika mogimendua Donibane Lohitzuneko Hotel de la Poste n sortu zen 1945.eko apirilak 26an, Gernikaren bonbaketaren zortzigarren urteurrenean. Bere helburuak hauek ziren:

"I. Mantener vivo en el alma de cada vasco el apego a la ciudad mártir, considerándola como el corazón y el centro espiritual de Euskal-Erria.

II. Favorecer la unión de los vascos de Europa, América y el resto del mundo valiéndose del nexo moral y cultural, muy por encima de las diversas ideologías políticas.

III. Crear entre los vascos conciencia de Humanidad, atendiendo a la invocación de Iparraguirre que cantó y ensalzó al Roble de Gernika como símbolo de paz y fraternidad"⁷³.

Gernika erakundea herbestean sortu zen, eta ez zuen zerikusirik Barandiaranen izen bereko taldearekin. Herbestean jakin zuten euskaldun askok Gernikak nozitutako bonbaketak. Aldizkarian bertan kontatzen zaigunez, mogimendua hau osatzeko asmoa 1943. ean sortu zen, baina hurrengo urtean gauzatu zen Donibane Lohitzunen, Gerra aurrean abertzaletasunean eta kazetaritzan ere (Donostiako *El Día* egunkariaren sortzailea izan zen bera) aritua zen Rafal Pikabeak piztu zuen ideia. Mogimendua apolitikoa izan nahi zuen. Berehalaxe, baina, arazoak sortu ziren, "cuando en la primavera de 1945 se conmemoró en San Juan de Luz el aniversario de la destrucción de Gernika por la aviación alemana, los representantes de un cierto racismo extremista lanzaron ya su desafío a la institución que presidía el señor Picavea"⁷⁴.

Dirudienez, hasieran Gernika taldearen kontrakoek bere helburua lortu zuten, baina 1948. ean, esan bezala, Pikabea eta mogimendua berpiztu eta aldizkaria kaleratzen hasi ziren. 1945. ean Pika-

71.- Manterola, A.: "On Joxemiel Barandiaranen bibliografiari buruz", *Nondik*, aipatu ale berezia.

72.- Ibidem.

73.- *Gernika*, 1. zenbakia, 1948.eko urtarrila-otsaila.

74.- *Gernika*, 1. zenbakia, 2. orrialdea.

beak *Gernikaren* ale bat argitaratu zuen, guk ezagutzen ez duguna (agertu omen zen 1945.eko urrian-azaroan), eta argi eta garbi utzi nahi zuten ez zutela zerikusirik Joxemiel Barandiaranen izen berdineko aldizkariarekin (hasiera batean *Gernika. Eusko Jakintza*, eta gero bakarrik *Eusko Jakintza*) edo Bilbon argitaratzen zen beste aldizkari batekin (*Guernica*, heraldikari buruzkoa). Mogimendu honek ere ez zuen zerikusirik Baionan sortutako beste erakunde batekin, Instituto Gernika ere izendatua, "integrado por hombres de un solo partido político y cuyas actividades se desenvuelven al margen de nuestros ideales universalistas. Lo que esa institución ha sido respecto a la nuestra, los procedimientos de acaparamiento y de confusión utilizados para imposibilitar nuestra labor, serán consignados en los anales de nuestro movimiento"⁷⁵.

Gernika mogimenduak honelaxe aurkezten zuen bere burua: "Un movimiento fundamentalmente popular, de carácter pluralista, que en ningún modo responde a las exigencias o imposiciones de una ideología determinada"⁷⁶. Ameriketako zenbait erakunderi eta batez ere Lafittek zuzentzen zuen *Herria* astekariari atsegin zitzaizkiela zioten.

Abertzaletasun jelkide dogmatikotik urrundua, *Gernikan* hasi ziren idazten izen ezagun batzuk: hala nola Inazio Eizmendi *Basarri* bertsolari eta kazetaria, Gerra ondoren herbesteratuta egon zena (1949.eko 1. zenbakian euskal baserriei buruzko bertso batzuk argitaratu zituen), edota Nikolas Ormaetxeak. Iparrekoek (Gavel irakasleak, Etcheverry kalonjeak, Ustaritzeko Sallaberry abateak, Xavier d'Iharce *Iratzederrek*), Ameriketakoek (Tomás de Eguidazu Venezuelako abokatuak, esaterako), eta Hegokoek (Xanti de Meabe, Adolfo de Larrañaga herbesteratuek) idazten zuten *Gernikaren* orrialdeetan. Aldizkariaren historian zehar, euskal kulturaren ezagunak ziren izenak aurkitzen ditugu: Juan Thalamas Labandibar, Miguel Astiz, Jean-Pierre Yholdi, Justo Garate, Isidoro de Fagoaga, Isaak López Mendizabal, Pierre Lafitte, Errose Bustintza *Mañariko*, eta azken urteetan (aldizkariak 1953.ean utzi zion argitaratzeari) Federico Krutwig euskaltzaina, Andima Ibinagabeitia, Luis Villasante, Norbert Tauer eta Jon Mirande. Aldizkariaren kulturaren arlo gehienak sartzen ziren: artea, olerkigintza, literatura, filosofia, filologia, etabar. Bere orrialdeetatik euskaraz eta euskarari buruzko ikerketak hasi ziren idazten. Horri buruzko eztabaidak ez ziren falta: "Euskera antiguo eta moderno"az idatzi zuen *Orixek*, Angel Irigarayri erantzunez (1950.eko uztaila-iraila), "¿Euskeraz nola idatzi bear da?", planteatzen zuen Isaak López Mendizabalek ale berean, zenbaki hartan Federico Krutwig Euskaltzaindiaren berrantolaketari buruz ari zen, eta Mirande kementsuak ere bere ustez euskaldunen etsai zirenen aurka aritzeko aukera izan zuen ("Euskaldungoaren etsaiak", 1953.eko apirila-abuztua). Euskal kulturaren garai latzetan mugitzen zirenentzat *Gernika* izan zen elkargune bat, denetariako ideiak eta eritziak plazaratzeko.

Gernika 1953.ean desagertu zen: "GERNIKA hará un alto en el camino (...). Durante ese período se ha logrado establecer, en el actual panorama cultural y humanístico vasco, una línea clara y firme de crítica objetiva y serena, una revisión general de valores y normas de las que, hoy más que nunca, se hallaba necesitado nuestro pueblo (...)"⁷⁷. Helburuak beteta, *Gernikaren* 25 aleak euskal ikasketei eta euskal kulturari buruzko erreflexioari seriotasuna emateko ahaleginaren eredu dira gaur egun.

Gauza guzti horiek herbestean gertatzen ziren. Hegoan, bitartean, Gerraren hondamendiak gainditu nahian, euskal kulturak piskanaka piskanaka, erregimen politikoak ezarritako zailtasun eta oztopo guztien gaineratik, berriro ibiltzen hasi nahi zuen. 1936.ean euskal kulturaren erakundeak desgertu ziren, edo behintzat, ekintzak egiteari nahitanahiez utzi behar izan zioten. Eusko Ikaskuntzak

75.- Ibidem.

76.- Ibidem.

77.- *Gernika*, 1953.eko uztaila-iraila, 24. zenbakia.

mutu geratu behar izan zuen, herbestean zenbait Eusko Ikaskuntzen Kongresu ospatu eta, ikusi dugun bezala, Barandiaran lehendakari izenbatua bazen ere, Hegoan ezin zuen ezertxo ere egin. Euskaltzaindia ere geldirik geratu zen, eta, nahiz eta 1941.etik berriro bildu oso ekintza gutxi egin ahal izan zuen 1953. urtera arte; bere bozeramailea, *Euskera* aldizkaria, ez zen berriro agertu 50.eko hamarkada arte, ia hogeit urte kaleratu gabe egon ondoren, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala.

Baina zerbait geratzen zen. 1940.etik Nafarroko Foru Aldundiaren Kultur Kontseiluaren ardurapean zegoen Príncipe de Viana erakundeak izen bereko aldizkaria kaleratzen zuen. Gaur egun ere argirataratzen da aldizkari hori. Erdara hutsez agertzen bazen ere, euskal ikaskuntzarako arnasa ekartzera etorri zen, euskal kultura itoaldian zegoenean.

Berdin egin zuen Real Sociedad Vascongada (betiko idazkera, "Bascongada" alegia, alde batera utzi behar izan zen) de Amigos del País delakoak, Espainiako Consejo Superior de Investigaciones Científicas delakoaren Gipuzkoako delegatu bihurtua, 1945.etik bere boletina hiru hilabetetan behin kaleratzen lortu zuena. Hor agertzen hasi ziren berriro euskal testu batzuk, poesiak eta literatura testuak, hasiera batean gehigarri moduan, baina iadanik *Egan* izenburupean. Horren atzean Koldo Mitxelena zegoen, gartzelan urteak eman ondoren, euskal ikasketetan aritzea erabaki zuena. Ez dugu hemen Mitxelenaren garrantzia azpimarratu behar. Antonio Arrue eta Angel Irigarayekin batera gehigarri elebiduna argitaratu zuen 1953. arte, eta hortik aurrera, euskara hutsez. Literatur lanak ezezik, itzulpenak, zinemari buruzko kritikak (Mitxelenak berak sinatuak), liburuen iruzkinak, Euskaltzaindiaren hitzaldiak eta abar agertzen ziren.

Baina kultur argitalpen garrantzitsuenetarikoa bat, garrantzitsuena ez bazen, Guatemalako *Euzko Gogoak* izan zen. Jokin Zaitetik 1949.ean sortua, hurrengo hamarkadan izugarritzko garrantzia izan zuen euskal kulturari eta euskal kazetaritzari. Bere itzala batez ere 50.eko hamarkadan proiektatzen denez, hurrengo atalean luzeago hitzegingo dugu aldizkari honi buruz. Lehen Guatemalan eta gero Miarritzen, bederatzit urtetan zehar euskara hutsezko argitalpen eraginkorrena izan zen. Zaitetik, euskara hutsezko kazetagaritzaren ahulezia ikusita, 1947.etik aldizkari berri bat atera nahi omen zuen. Hasiera batean, dirudienez, asmoa Estatu Batuetako *Selecciones del Reader's Digest* antzeko aldizkari bat kaleratzea zen, Euzko Jaurlearitzaren babesean edo, eta horixe proposatu zion Andima Ibinagabeitiari⁷⁸. 1949.ean inprimatu zen lehen alea, 1950.ean kaleratu zena. Lehenago, *Asmoa* izeneko orri bat bidali zuen Zaitetik Euskal Herriko etxe eta erakunde askotara helburuak hain zuzen zeintzuk ziren adieraziz, baita ere laguntza eske. Asmo nagusia euskara berpiztea zen, noski, "euskeraz bakarrik idatzi nai dugu, eusko-gogoaren barnemuiñetaraño eldu gaitezen: azkatasunaren giltza galdu bai-dugu, euskera galdu ezker". zioen Zaitetik orri hartan. Hasieran, literatura oinarritzen zen aldizkaria, eta idazle guztien elkargune izan nahi zuen *Euzko Gogoak*, baita abangoardista edo kritikoenena era, hala nola Jon Mirande edo Federico Krutwig bezalako idazleak. Aldizkaria izan zezakeen adorea jabeturik, laister euskal kultura eta euskal politikako pertsona asko Jokin Zaitegiren egitaspora hurbildu ziren: Andima Ibinagabeitia, F. Irizar, Sebero Altube, Telesforo Monzon, B. Zapiain, Joxemiel Barandiaran, Jose Antonio Agirre lehendakaria bera Franzian, Gotzon Urrutia (B.B.C.ko euskarazko irratisaioen arduraduna) Ingalaterran, Jon Oñatibia (Mexicon bizitua) eta Argentinan zegoen Isaak López Mendizabal, esate baterako⁷⁹. Euskaltzaleen artean ezin hobeto hartua izan zen *Euzko Gogoak*; *Alderdi*, *Euzko Deyan* (Andima Ibinagabeitiak idazten zuen euskaraz, eta bera eta Zaitegi lagunminak ziren), *Ikuska* eta beste aldizkarietan txaloka jasotzen dute Zaitegiren argitalpena.

78.- Vélez de Mendizabal, J.M.: *Jokin Zaitegi* liburutik ateratako zehazkizunak.

79.- *Ibidem*, 90. orrialdea.

Zailtasunak bazeuden, ordea. Caracasen inprimatzen zenez gero, inprimategiko arduradun eta langileek euskara hizkuntza arrotza zuten, eta bikoitza kobratzen zuten⁸⁰. Euskaditik ere oztopoak: dirudienez, jesuitek ez zuten beren burua euskararekin zerikusirik gauzetan nahastu nahi, eta nagusiek jesuitei agindu zieten euskarazko aldizkaririk, edota "revistas sobre o con contenido euskérico" ez onartzean, eta jaso bezain laster itzultzea. Jesuita batzuk ezin izan zuten *Euzko Gogoara* testurik bidali, nagusien baimenik ez bait zuten. Hori gogorra izan behar zen Zaitegirentzat, Loiola-ko jesuitetan hazia bait zen, Andima Ibinagabietiarekin batera han burutu bait zituen bere ikasketak⁸¹.

Hala ere, Zaitegik lana kemenez jarri zuen. Eta berri on bat ere jaso zuen: Frantzian argitaratzen zen *Oficina de Prensa de Euzkadi (O.P.E.)* boletinaren bitartez jabetu zen Nikolas Ormaetxea Argentinara zihoala bizitzera. Hari eskeiniko zion *Euzko Gogoan* lan egitea, etxea, janaria eta Caracasera joateko txartela. *Orixek* baietz erantzun eta Jokin Zaitegiren aldizkariari bide berriak zabaldu zitzaizkion. Hurrengo hamarkadan ondu ziren bien arteko lanaren emaitzak.

D) Hegoan, berpizte bidea.

Orain arte ikusi dugu herbestean egiten zena. Dakigunez, egoerak hala behartuta, Hego Euskal Herrian isiltasun handia zegoen. Baina piskanaka piskanaka euskara inguruko zenbait ekintza egiten ari ziren. 1941.etik Euskaltzaindia berriro bizirik zegoen, ekintza guztiak egin gabe bazen ere; "urrats neurtuak", Martin Ugaldek eta Jose Antonio Arana Martijak diotenez⁸². Euskaltzain batzuk hil egin ziren, eta euskaltzain berriak lau izan ziren: Ignacio M.^a Etxaide, Nazario Oleaga, Angel Irigaray eta Federico Krutwig (hau oso kritikatu izan zen zenbait alderdi puristatik, bere abizena atzerritarra zelako). Azkue, lehen bezala, presidentea zen. eta berak agindu zion Krutwigi Euskaltzaindiaren aldeko ekintzak burutzea. Zehazki, 1949.eko ekainak 25ean jaso zuen enkargu hura⁸³. Krutwigek proposatu zituen euskaltzain gehiago onartzea, hamabitik hamazortzira, euskaltzain berri gehienak lapurtarrak ziren, eta erizpidea ez zen bakarrik meritu akademikoa, baizik eta "primordialmente, el prestigio del nuevo miembro y el bien que en las actuales circunstancias podía reportar su nombramiento para elevar el prestigio de Euskaltzaindi y contribuir a la conservación y propagación del vascuence dentro de los límites de los Estados francés y español"⁸⁴. 1951.ean Resurrección M.^a de Azkue hil eta Ignacio M.^a Etxaide presidente berria hautatua izan zen. Kritika gogorak jasoko zituen, batez ere herbestetik, batzuren ustez frankismoarekiko harremanak bazituelako. Euskaltzaindiak berriro bere aldizkaria, *Euskera*, kaleratuko zuen 1953.ean (ale bakar bat, lehengo aurkibideak eta ekintzak adierazten zituena), eta erregulariki 1955.etik.

Kazetaritzari dagokionez, R.S.B.A.P.sen *Boletinaren Egan* gehigarriaz aparte, elizgizonak hasi ziren berriro euskal kazetak argitaratzen. Aipamen berezia merezi du frantziskotarren *Anaitasuna* aldizkariak. Bizitza haundiko argitalpena, 70.eko hamarkadan ere argitaratzen bait zen (eta gainera, euskara batuaren alde izugarriko lana egin zuen). Frantziskotarrek, Gerra aurrean ere zenbait aldizkari elebidun (*Aranzazu*) zein euskara hutsezkoak (*Irugarrenge'oen Irakaslea*, esaterako) argitaratzen zituzten. 1945.ean berriro euskarazko aldizkari bat argitaratzeari ekin zioten, Aita Eugenio

80.- Ibidem, 91. orrialdea.

81.- Luis Villasantek bere *Historia de la literatura vascan* kontatzen du nola Zaitegi eta Ibinagabestia, izkutuan *Ami vasco* liburuskira irakurri ondoren, erabaki zuten euskara ikastea, 1927. urte aldera (433. orrialdea.)

82.- Ugalde, M., eta Arana Martija, J.A.: *Euskaltzaindiaren historia laburra*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1984, 25. orrialdea.

83.- Krutwig Sagredo, F.: "Sobre la reorganización de la Academia de la Lengua Vasca", *Gernika*, 1950.eko uztaila-iraila, 43. orrialdea.

84.- Ibidem.

Agirretxeren zuzendaritzapean (berak sinatzen zuen lehen orrialden agertzen zen editoriala). Hasieran Gipuzkoan bakarrik (Tolosako frantziskotarrek argitaratzen zuten), 1953.etik Bizkaian ere agertu zen, Gipuzkoako edizioaren eranskin moduan, dirudienez Foruko frantziskotarrek eskatuta, hau Imanol Berriatuaren zuzendaritzapean. Gehiago hitzegingo dugu aldizkari honetaz hurrengo atalean, 50.eko hamarkadari buruzkoa, urte haietan gauzatu bait zen, lehen aztertutako zenbait aldizkariren kasuan bezala, haren emaitzak. Bakarrik esango dugu arrakasta handia lortu zuela berehalaxe, eta pasadizo bitxi bezala, 1957.ean Arratirako edizio bat agertu zela, mimeografiatua. Gerra aurrean bezala, ordenu erlijiosoek garrantzi handia ematen zioten kazetaritzari, baita tokian tokiko informazioari eta euskalkieei ere (esate baterako, *Anaitasunak* bezala, Gerra aurreko jesuiten *Jesus'en Biotzaren Deya* aldizkariak bi argitalpen izaten zituen, gipuzkerazkoa eta bizkaierazkoa). Elizgizonen eragina oso handia izan zen, lehen bezala, Gerra ondoko denboran. *Anaitasunatik* ondoren, 50.eko hamarkadan ordenu erlijioso, parrokia edota banakako elizgizonekin lotutako aldizkari asko sortu ziren, denetariakoak gainera: erlijioari buruzkoak, ordenu barrukoak, herriko aldizkariak, apaiz kritikoen organuak... Horiek denak ikusteko aukera izango dugu hurrengo atalean.

E) Iparreko prentsa

Baina oraingoz azter ditzagun 40.eko hamarkadako Ipar Euskal Herriko prentsa, hau da, Iparreko euskaldunek egina (lehen Iparrean argitaratu baina Hegoarreko egindako aldizkari batzuk aztertu bait ditugu).

Aipatuko dugun lehena Baionako *Oiarzuna*. *Eskualdun emazten kaseta* da. Oso aldizkari bitxia, kalitate onekoa, ondo inprimatua, argazkiak eta bazituen, gehiena euskaraz idatzia zen, frantsesez zenbait zati ere agertzen zelarik. Euskaldun emakumeei zuzendua, kutsu erlijiosoa nabarmena da. Bi ale ezagutzen ditugu, Renoko Nevadako Unibertsitatean gordetzen direnak⁸⁵, 1947.eko urtarrilekoa eta ekainekoa. Ez zeuden zenbakituta, beraz ezin dugu jakin noiz agertu zen lehen aldiz aldizkari hau. Lau orrialde zituen, eta, esan bezala, nahiz eta emakume seglarrei zuzendua izan, bere mamia batez ere erlijiosoa zen. Ez dakigu nortzuk argitaratzen zuten ez eta noiz arte iraun zuen ere.

1947.ean Iparreko euskaldunek beste bi aldizkari kaleratu zituzten lehen aldiz: *Etchea* eta *Gazte*. Lehenengoa euskara hutsezkoa zen, eta 1975. urtera arte argitaratu zen, P. Lahetjuzaren zuzendaritzapean. Baionan inprimatzen zen, hilabetean behin, eta informatiboa zen, beti ere kutsu elizkoiak zeukalarik. Nolabait, *Etcheak Eskualdunaren* lema bereganatu zuen, familia zutabe bihurtuz: *Eskualdun familien ilhabetekaria* zuen azpizenburua. Tajuera haundikoa (1949.ean bakarrik txikiago egin zen, egunkari modukoa, esan bezala bizitza luze izan zuen, *Herriak* beste arrakasta lortu ez bazuen ere.

Oiarzuna eta *Etcheak* bezala, *Gazte* oso kutsu erlijiosoa zuen. Baionan argitaratzen zen 1947.etik (beraz aipatutako beste aldizkariekin batera agertu zen, ia aldi berean), R. Idiéderrek zuzendua. *Eskualdun Gazteriaren Hilabetekaria* zen bere azpizenburua. *Oiarzuna* harrera ezin hobean egin zioten⁸⁶, eta badirudi haien artean, edo bien sustengatzaileen artean, bazegoela harremanik. Denboraren poderioz, Ipar Euskal Herriko kulturari aski ezagunak diren Pierre Charriton (artean elizgizona) eta Jean Hiriart-Urruty apaizek zuzendu zuten gazte katoliko euskaldunen-tzako kazeta hau.

Azkenik, Ipar Euskal Herrian argitaratzen ez ziren beste aldizkari bat aipatuko dugu. Parisen agertu zen, bigarren aldiz, *Elgar*. Lehen garaia 1934.eko uztailetik 1936.eko ekaina artekoa da.

85.- Eskertu nahi diogu hango Basque Library-ko Assistant den Marcelino Ugalderi aldizkari ezin bitxiago honen kopia bidaltzea.

86.- *Oiarzuna*, 1947.eko urtarrila, 2. orrialdea.

1933.ean Eskualzaleen Biltzarrak baimena eman zien Parisen bizi ziren euskaldun batzuei Frantziako hiriburuan delegazio bat sortzeko. Haien artean Paul de Rocca-Serra *Legarralde* eta Eugene Goyheneche zeuden, besteak beste. 1948.ean berriro argitaratzen hasi zen, eta 1975. arte agertu zen. Eskualzaleen Biltzarraren bozeramailea zen, *Journal mensuel des basques de Paris* azpizenburua zeramalarik. Gehiena frantsesezkoa zen, %10a euskaraz idatzia zen. Zuzendaria P. Dargaigaratz omen zen, Rocca-Serra *Legarralde* "redacteur en chef" delakoa zelarik. Berak adierazten zuen *Gernika* aldizkarian nola birsortu zuten berriro *Elgar*: 1947.eko abenduan Louis Dassancek, Eskualzaleen Biltzarraren presidenteak proposatu zuen Parisen bizi ziren euskaldun eta euskaltzaleak berriro biltzea, elkarlana berriro hasteko asmoz, are gehiago kontutan hartuz Paris oso hiri garrantzitsua zen, kultur-arloan eta beste arloetan ere. Gainera, Parisera joan ziren euskaldunak laister frantzesten ziren⁸⁷. Horregatik, erabaki zuten Parisen talde bat sortzea, Euskal Etxe bat antolatze ("un Foyer Basque, centre de renseignements, salle de lecture, restaurant, etc."), musika eta dantza-talde bat sortzea ("60 chanteurs, 20 danseurs adultes, 24 enfants, 4 txistularis"), euskara eskolak ("deux cours de basque, élémentaire eta supérieur") eta euskal aldizkari bat, hilabetekari bat. Esan bezala, *Elgar* hurrengo urtean kaleratzen hasi zen.

IV. 1950-1959 BITARTEKO KOMUNIKABIDEAK

50.eko hamarkadan, batez ere Hego Euskal Herrian —gure ikerketa honen ardatz nagusia den esparru geografikoa—, aldaketa kualitatibo nabarmen batzuk gertatzen dira ekonomian, politikan eta, nola ez, kazetaritzan ere. Ekonomian industri-ekintza areagotzen da batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan, hiriritze-bilakaera bat sortuz, alde batetik —beraz euskararen gordeleku zen herri eremuan ere aldaketa handiak sortu ziren—, eta beste alde batetik ere Euskal Herritik kanpoko jendetza hasi da etortzen. Demografiaren aldetik ere, biztanlego-kopurua haunditzen da: 1950.etik 1960.era Gipuzkoan 374.000 biztanletik 478.000 biztanlera pasatzen da; Bizkaian 569.000tik 754.000ra. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian, guztira, hamar urtetan 310.000 biztanle gehiago daude⁸⁸.

Hazkuntza bilakaera hori ez zen berdina lurralde bakoitzean; Bizkaian hiriburuaren inguruko zonaldean biltzen da industrializazioa eta biztanlego gehiena; Gipuzkoan aldiz badaude ardatz batzuk. Araban industrializazioa ez da oraindik handia. Eredu batzuk, beraz. Gainera, kontutan hartu behar dugu euskararen presentzia atzera doala industrializazio handia duten lekuetan, etorkin erdaldunen ezarreragatik. Bestalde, euskara gordetzen duten herrietan ere hizkuntza ez da nonnahi mintzatzen, errepresioarengatik ia familian bakarrik hitzegitera mugatuta, eskola eta komunikabideetatik at. Euskara mantendu eta garatzeko Elizak, lehenengo mendeetan bezala, oso betebeharrak izango du. Elizak bultzatuko ditu, neurri handi batean behintzat, ikastolen eta euskarazko komunikabide askoren sorrera. Elizak, edo Elizaren sektore batzuk hobeto esanda, piztuko dituzte erregimenari lehenengo kritikak⁸⁹. Euskal Herriko apaizgoaren kasuan, kritikak are handiagoak izango dira. Gerra garaian, apaiz asko abertzaletasunaren aldekoak ziren, eta errepresioa handia izan zen. Asko eta asko herbestera joan ziren, Ingalaterrara, Frantziara, Belgikara, Ameriketara batez ere. 1944.ean horietako batzuk Aita Santuari gutun luze bat bidali zioten, eskatuz apaizek Estatuak Elizaren erregimenean parte hartzeari uko egin zezaioten, Gerra garaian eta ondoren beren kargutik botatakoak berriro onar zitzaten, arrazoi politikoengatik, hau da, frankismoaren alde egoiteagatik kargua lortu zutenak haiek gabe gera zitezen, eta "que sean puestas en vigor en la diócesis de Vitoria [garai hartan Gipuzkoa eta Bizkaia ere barruti hartan sartzen ziren] las normas

87.- "Le Basque de Paris devient, très vite, parisien. Et il s'en croit exhaussé", zioen Dassanceren informe edo dosierrik (*Gernika*, 1949.eko abendua).

88.- Tejerina Montaña, B.: *Nacionalismo y lengua*, Centro de Investigaciones Sociológicas, Madrid, 1992.

89.- Ikus Lannon, F.: *Privilegio, persecución y profecía. La Iglesia católica en España 1875-1975*, Alianza Editorial, Madrid, 1987.

generales de la Iglesia relativas al uso de las lenguas indígenas a fin de evitar graves males en la enseñanza religiosa, de no agravar el pavoroso problema del abandono de la religión por el pueblo y de poner término al gran escándalo que siempre ha constituido en el pueblo vasco el hecho de conducirse la Iglesia como si en estas cosas obrara al dictado de una política antivasca⁹⁰. Ez zuten erantzunik jaso. 1946.ean batzuk Hegora itzuli ziren, kargu eta enplegurik gabe. Herbestetik, baina beti ere barrura begira, elizgizon batzuk, geroxeago ikusiko dugunez, aldizkari kritiko batzuk argitaratu zituzten.

Hego Euskal Herrian, bitartean, elizgizonek Gerra aurreko argitalpen batzuk berriro kalera-tzeari ekin zioten: Iruñeako kaputxinoek, esate baterako, *Zeruko Argia* argitaratu zuten bigarren aldiz. Aldizkari batzuk erlijioso hutsak ziren, hau da, kasu askotan ordenuari buruzkoak; beste batzutan informazioa (herri batekoa, adibidez), sartzen da. Beste batzuk kulturalagoak dira. Baina, gauza guztien gainetik, nabari da nola Elizak berriro *custodios linguae* izateko betebeharra berreskuratu duen.

Bestalde, kazetaritzan ere 50.eko hamarkada hau beste garai bat dugu. Periodizazio guztiak, Terrón Monterok gogoratzen duenez⁹¹, arbitrarioak izaten dira, baina badago arrazoirik 50.eko hamarkada honetan desberdintasun batzuk gertatzen direla esateko. Irekitze bat badago, mamian ez bada ere, baina lehengo urtetako gogortasuna piska bat arintzen da. Elizak ere badu zerikusirik aldaketa honekin: Terrónen ustez, "nacional-catolicismo"tik "catolicismo-nacional"era pasatzen bait da, zera hau azpimarratuz, "que a partir de ahora serán los componentes del catolicismo social los que priven de manera definitiva sobre los del falangismo-fascista"⁹². Erregimen frankistaren bi ideologi-zutabetik bat nagusitzen da, beraz. Arrazoi ekonomikoak ere baziren, autarkismoak porrot eginda, eta nazioarteko panoraman Espainia sartzen da, amerikarrek eta Nazio Batuen Erakundeak onartuta.

Egoera berri honek bere islada izango du euskarazko kazetaritzan, noski, bereziki Hego Euskal Herrian argitaratzen den horretan. Euskaraz gauzak argitaratzeko aukera, zaila bazen ere, baze-goen, lehen ez bezala. Erakunde batzuk, batez ere Euskaltzaindira, bizitzara itzultzen dira. Hezkuntza munduan ere gauzak, poliki-poliki, mugitzen hasten dira. Gerra aurrean egin zen bezala, hezkuntza munduari erantzuna emateko edo, irakurlegoa zabaltzen saiatzen da, eta umeentzako aldizkariak ere argitaratzen dira. Barrutik eta kanpotik euskal kulturaren inguruan zebiltzanak biltzeko ahalegi-nak egingo dira. Bitartean herbesteko ekoizpena badago, kasu gehienetan Hegoari begira, klan-destinitatean beraz sortua, nazioarteko laguntzari esker itzultzeko aukera galduta zegoela ikusirik. Iparreko euskaldunek bere aldetik, kazetaritzan beren urratsak ematen zituzten.

A) Aldizkari erlijiosoak

Aurreko atalean esan dugu nola 40.eko hamarkadako azken urteetan Hego Euskal Herrian eliz-gizon euskaldunek aldizkari batzuk sortzen dituzten. Horieta bat, urteetan zehar garrantzitsue-netariko bat izango zena, frantziskotarren *Anaitasuna* dugu. Hasiera batean Tolosan sortua, gipuzkeraz, gero Bizkaiko frantziskotarrek ere beste *Anaitasuna* bat argitaratzeari ekin zioten, biz-kaieraz. Lehenengoa aita Eugenio Agirretxek zuzendu zuen. Bizkaierazkoa aita Imanol Berriatuak, 1953.etik, hasieran Gipuzkoako *Anaitasunaren* gehigarri moduan. Bi ziren beren helburuak: alde batetik, kristautasuna bultzatu, garai batean non "prensa den munduaren errege"⁹³, eta bigarre-

90.- Iztueta Armendariz, P.: *Sociología del fenómeno contestatario del clero vasco (1940-1975)*, Elkar.

91.- Aipatu liburuan, 83. orrialdetik.

92.- Ibidem.

93.- *Anaitasuna* (Bizkaikoa), 1. zenbakia, 1953.eko ekaina.

na euskara erabiltzera animatu, leku guztietan: "baserrikoak, kalekoak, frabrikakoak, unibersidadekoak, futbolekoak, ziñeskoak, ezkontzakakoak, gaztarozkoak", berri mota horiek⁹⁴. Horrela, lehen bezala, fedea eta euskara ("euskaldun-fededun" berdintze hori) berriztatzen zuten, baina orain, industrializazioa zela eta, hirira ere joanez.

Aldizkariaren atal nagusiak hauexek ziren: lehen orrialdean, Berriatuaren editorial bat, norma-lean erlijioari edo euskarari buruzkoa. Erlijioari buruzko zalantzak "Esaidazu!" izeneko atalean erantzuten ziren. Beste atal fijo bat "Or, an, emen" izenekoak zen; berri laburrak, gehientsuak erlijioari buruzkoak. hala ere, ez ziren falta berri orokorrak. Azken finean, Gerra aurrean ere holako aldizkari erlijiosoek zuten egitura. Komikiak ere sartzen zituzten, atzeritarrak (iparamerikarrak, batipat), euskarara itzuliak (*Felis katua*, *The Katzenjammer Kids*, etabar.). Umeegan berriro konfidantza jartzten zen.

Esan bezala, *Anaitasunaren* bi argitalpenetan euskalki bana erabiltzen zen: gipuzkera eta bizkaierazkoa. Helburu nagusia euskaldunek hitzegiteñ bultzatzea zenez gero, hurbilen zegoen euskalkia erabiltzea erabaki zuten. Horrek ez du esan nahi Euskaltzaindiaren aldekoak ez zirenik: are gehiago, 1955.etik harpidetzak Akademiaren egoitzan jasotzen ziren, Bilboko Ribera kalean:

"Euskalerriko sartaldean bizi direanentzako, kristinau aldizkari on bat egin gura geunke (...). ANAITASUNAK aspalditik artu dau bere bidea. Euskera errezean idatzi gura dogu, gure dialektua darabilen euskaldun guztieri ulertu eragiteko moduan. Badakigu gaurko euskerea erbesteko berbaz beterik dagoana. Orrek ez gaitu larregi artogatuten baiña. Fenomeno ori, asko edo gitxi, Europa'ko izkuntza guztieri jazo jake (...)"⁹⁵.

Jarrera irekia. Zer esanik ez, 1956.eko Euskaltzaindiak Arantzazun ospatutako bileran hartu erabakiak bete-betean onartu zituzten frantziskotarrek. Are gehiago, hurrengo hamarkadetan, 60. eta 70.eko urteetan alegia, *Anaitasuna* euskara batuaren defendatzaile porrokatu bilakatu zen.

50.eko hamarkadaren hasieran, 1950. ean bertan alegia, mugaz bestaldetik ahots kritikoek bere bozeramailea kaleratzea erabakitzen dute. Martxoan apaiz batzuk *Egiz* argitaratzen hasten dira, euskaraz eta gazteleraz (euskararen portzentaia ez zen haundia), mimeografiatua, aldizkatasun fijoerik gabe ("la publicación saldrá cuando pueda"), hala ere 1952.eko abuztu arte gutxigorabehera hilero agertu zen. Hasiera hasieratik argi eta garbi zegoen zein zen bere helburua: "EGIZ no tiene pretensiones de revista. Su apariencia es modesta, y lo será su contenido. Es una publicación que sale a la calle para ser eco de sentimientos y de aspiraciones que no pueden expresarse libremente bajo el régimen del general Franco"⁹⁶. Batez ere, bi gauza salatu nahi zituzten: euskararen galeratzea eta sindikatu langileen debekapena, haien artean E.L.A. 1950.eko abuztuko zenbakian, Juan de Arandik artikulua luze bat idazten du euskarari buruz, Euskal Herriko Elizak erabiltzea eskatuz. Oinarria 1920.eko Congreso de Propagatio Fide zen: "Los misioneros deben evitar la propagación del idioma de su patria entre los indígenas (...) y hagan siempre en dicha lengua nativa de los indígenas las prácticas religiosas, las instrucciones catequísticas y toda alocución pública en las escuelas y demás centros análogos (...)". "Burugabekeri orren errua [hau da, euskara ez erabiltzea] Madrid'eko agintariei bizkarreratu bear ote zaie? Erru guzia ez", diote beste zenbaki batetan⁹⁷. "Euskal-apaiz guziak euskararen alde bat egin ba'lute, Eleizaren aginduak eta irakaspenak eskuan, letorkieken zigorra jasateko gertu, erri-agintariei gogor egin ba'lieke, euzkera etzan gure errietan galdu dan bezela galduko". Urte hartan bertan Bilboko gotzaiak, Morcillo gotzaiak,

94.- Ibidem.

95.- *Anaitasuna*, 32. zenbakia, 1956.eko matxoa-maiatza.

96.- *Egiz*, 1. zenbakia, 1950.eko martxoa, 1. orrialdea.

97.- 1950.eko ekaina, 2. orrialdea.

euskaraz zenbait gauza argitaratu eta irakurri zuen⁹⁸; apaiz kritikoez txalokatzen dutena. Baina aldi berean, Espainiako prentsaren egoera gaitzesten zuten: "EGIZ siente una profunda satisfacción ante esta consigna del ilustre obispo de Bilbao [‘la verdad ante todo... la verdad nos hace libres’], pero la prensa española está sometida a rígido control estatal (...). El carácter católico o laico no influye nada en este caso (...). El periodista español sencillamente no es libre (...)”.

Barrutik ere bazeuden kritikak. 1950.eko abuztuan, Gipuzkoako apaiz batzuk gutun kritiko bat bidali zioten beren gotzaia zen Jaime Font Andreuri. Kritikak areagotzen ari ziren, eta 1951.ean José María Bueno Monreal Gasteizko gotzaiak, Morcillo González Bilboko gotzaiak eta Font Andreu Donostiako gotzaiak dekretu baten bidez *Egizen* klandestinitatea azpimarratu ondoren, apaiz guztiei aldizkarian testurik argitaratu edo argitalpena zabaltzea galerazten diete, "por ser políticamente partidaria y por sus nada infrecuentes insidias contra la Jerarquía Eclesiástica". "En vano hemos esperado once meses largos a que su director, redactores y colaboradores nos presentaran y nos pidieran la licencia que exige el canon 1386, párrafo 1", zioen ohar hark⁹⁹. 1952.eko martxoak 20an, beste dekretu episkopal bat: honetan, ikusirik *Egiz* kaleratzen jarraitzen dutela, zera erabakitzen da: "Los sacerdotes de esta diócesis residentes dentro o fuera de la misma, que intervengan en lo sucesivo como directores, redactores o colaboradores de la revista titulada EGIZ, ya siga apareciendo esta publicación con el mismo título o con otro distinto, quedarán ‘ipso facto’ incurso en la censura de suspensión ‘a divinis’"¹⁰⁰. Hamazortzi ale ateratu ondoren, *Egizekoek* besterik ez argitaratzea erabaki zuten.

Hala ere, 1954.eko abenduan beste aldizkari bat argitaratu zuten, tajuera haundiagokoa, *Egi billa* izenburuarekin. "Mintzo-bearrez", zioten lehen ale haren fronteko orrialdean, "azpitik datorkizu, ez gero nai genuen eraz, argi-argitan; azpitik baño. Eta ez gure erruz, jakiña; ainbeste urtetan menpeturik gauzkatena ez dute nai". Hitz latz eta zorrotzak botatzen zituztenak. Aldizkari honek, *Egizen* bideari eutsi ziona, behintzat 1955.eko ekaina arte iraun zuen. Guk dakigunez, gutxienez zazpi ale kaleratu ziren.

Garai honetako aldizkari erlijioso gehienak, aldiz, legalitatean zeuden. 1951.ean Larreako karmeldarrek *Karmel* argitaratzeari ekin zioten, egunotara iritsi den aldizkari erlijioso. Erlijioari buruzko berriak, batez ere ordenu honi dagozkionak, literatur-lanak, olerkiak, bertsoak etabar agertzen ziren bere orrialdeetan. Nolabait, Gerra aurreko Jaungoiko-Zalaren bideari jarraitzen zioten. Euskaldun amorratuak, behin eta berriro "Ikasi euskeraz" esaldia errepikatzen zuten. Hasieratik, Euskaltzaindiaren aldekoak izan ziren. 1959.ean, S. Onaindiak gehigarri bat argitaratu zuen: *Olerti*.

Urteetan zehar, erlijioarekin zerikusirik duten aldizkariak agertzen hasi ziren: 1952.ean *Eibar*, bertoko berriak zekartzana. Iparrean ere elizgizonek beren argitalpenak atertzen zituzten: hala nola, Belloc-eko *Othoizlari*. Beste atal batetan piska bat aztertzeo aukera izango dugu.

1954.ean Iruñeako kaputxinoek berriro plazaratzen dute Gerra aurreko beren aldizkaria: *Zeruko Argia*. Urte haietan, erlijioso hutsa zen; azpizburuak berak zioenez, "Erlijiozko aldizkari edo errebista, edergarriduna, euskeraz egiña, Aita Kaputxinoek argitaratua" zen. Bi zuzendari omen zituen: zuzendari-gerentea Hondarribiko Bonifacio de Beizama, eta zuzendari-artistikoa Aurelio de Echarri-Aranaz, Iruñean. Laister arrakasta handia loritu zuen, eta 1956.ean 4.000 harpidedun omen zituen. Idazleak kaputxinoak, kaputxinoak ez ziren beste erlijiosoak (Gabriel Manterola, esate baterako) eta laikoak ziren (Inazio Eizmendi *Basarrik* aldizkari honetan ere "Nere bordatxotik bilduta-

98.- *Egiz*, 1950.eko azaroa-abendua, 5. orrialdea.

99.- *Egiz*, 1951.eko abuztua-urria, 16. zenbakia, 1. orrialdea.

100.- *Egiz*, 1952.eko abuztua, 18. zenbakia, 1. orrialdea.

ko sortatxoak" izeneko atala argitaratzen zuen). Bizkaiko idazleek ere bazuten partehartzerik, 1955.etik "Bizkaiko euskeraz" izeneko atalaz *Bitaño* eta Manterola arduratu zirelarik.

Lehen bezala, hilerio kaleratzen zen *Zeruko Argia*. Aldizkariak zituen sailak: Kristau-lkasbidea, Abesti edo kantauak, Hirugarren Ordenuari buruzko berri eta gaiak, olerki eta bertsoak, nekazari-entzako gaiak, lan aukeratuak (munduko liburu eta aldizkarietatik hartutako zatitxoak), etabar. Gerra aurreko aldizkaria bezalakoa zen. 1956.etik, gainera, berriro "Ikusi eta ikasi" izeneko komikia (haiek egina) agertzen hasi zen, irregulariki, *Zeruko Argiaren* orrialdeetan. Guztira, 16 orrialde izaten ziren. Bizitza luzea izango zuen *Zeruko Argiak*, gero informatiboagoa bihurtu zena, hainbat eta hainbat euskaldun kazetarientzako eskola, 80.eko hamarkadan kaputxinoek utzita eta kooperatiba bihurtuta gaur egun ere argitaratzen den *Argia* bihurtuta.

Gauza horiek, beste kupel bateko ardoa denez gero, utziko ditugu oraingoz. 50.eko hamarkadako euskarazko kazetaritza erlijiosoarekin jarraitzearen, aipatu behar ditugu 1955.eko bi aldizkari. Bata, kaputxinoena baita ere, *Irun da Ondarribiko kaputxinoen irugarren ordenako orria* dugu, hango aita Karlos Argaiak zuzendua. Euskara hutsezkoa, erlijioa zen gai bakarra. Bestea *Nora?* zuen izena, *Irun'go Salletarren Nobiziaduko Illeroko Aldizkaria*. 1. zenbakia 1955.eko azaroan agertu zen. Lau orrialde zituen. Hango ikastetxearen berriak nagusi ziren. Euskara hutsezkoa zen.

Garai hartako beste aldizkari erlijioso batzutan ere euskara noizbehinka agertzen zen: hala nola *Gipuzkoa Misionera* (1955), Nafarroako Arizkun herriko *Elkartasuna*. *Boletín de la Asociación de la Caridad* (1955), Donostiako Santa Maria parrokiak argitaratzen zuen *La Voz de la Madren* (1955), etabarretan. 1956.ean Hondarribian *Ondarribiko izparrak* aldizkaria agertu zen, herriko berrien informatzaile, beti ere gogo eliztarra mantentzen zuelarik. Tokian tokiko prentsari buruzko atalean emekiago aztertuko dugu, beste horrelako aldizkari batzuekin batera.

Urte hartan ere Elizarekin, frantziskotarrekin alegia, zerikusi handia zuen beste aldizkari batek, gure egunotara iritsi dena, eta euskal kulturarako ezin garrantzitsua izan dena eta orain ere badena: *Jakin*, 1956.eko urte hartan mimeografiatua eta *Yakin* izenburupean argitaratu zena. Kultur-aldizkarietarako buruzko atalean aztertuko dugu.

1956.ean sortutako beste aldizkari hau, aldiz, erabat erlijiosoa dugu: Loiolan kaleratu zen *Ekin*. Euskaltzaindian gordetzen dira 2. eta 3. aleak, makinaz izkribatuak. Dirudienez, gaur egun beste gauza batzuegatik hain ezaguna zaigun Xabier Arzalluzek zuzentzen zuen. Gaur egun Euzko Alderdi Jeltzalearen Euzkadi Buru Batzarraren presidentea bada, 1956.ean Loiolan zegoen jesuita. Bigarren zenbakiko "Ataria" (editoriala, gutxigorabehera) sinatzen zuenez, pentsa dezakegu Loiolako Iñigori eskeinutako aldizkari hartan zeregin handia zuela. Beste idazleak ere jesuitak ziren: Pillipe Yurramendi, Florentin Zubiaurre, Joseba M. Agirre, Mikel Etxebarria, Roberto Larrañaga. Lazkaoko beneditarren komentuko bibliotekan beste lau ale ikusi ditugu: laugarrena (1956.eko Gabonetakoa), bostgarrena (1957.eko martxokoa), bederatzigarrena (1958.eko urtarrilekoa) eta hamaikagarrena (1960.eko maiatzekoa).

1956.ean ere Gipuzkoan beste argitalpen erlijioso bat agertu zen, ale bakarrekoa. Ez dakigu ondo aldizkaritzat jo behar dugun ala ez; gure ustez, badago aldizka ateratzeko gogoia, maiztasun fijoerik ez bazen ere. Mimeografiatua, euskara hutsezkoa, bere egile ezezagunak hala zioen Lazkaon ikusi dugun ale bakar horretan:

"Ona emen lantxo bat. Ez da gauz aundia. Zuri laguntzeko egiña kasu (...). Urte batzuk onuztik, Gipuzkoako erri txikietan, mutil gazteen artean kristau berritze bat igortzen da. Donsotiako 'Sta. Teresa' gogo-jardun etxean eta Arantzazu'n egin diran Ikastaldiak, apostolutza-lanerako, gazte-sail bat berotu dute (...). Eskuartearen daukazun lan onek egin-

kizun onetan lagundu nai dizu: zure parrokiari, gazte-talde bat, kristautasun bero batean apostolutzarako ezi dezazun (...)”¹⁰¹.

Urte haietan, ikusten dugunez, Elizaren inguruan gazteak biltzen ziren, parrokia zenbait ekin-tzen bultzatzaile bihurtuz; haien artean, euskal kazetaritza.

Ataltxo hau bukatzeko, 1959.ean argitaratzen hasi ziren bi aldizkari erlijioso aipatuko ditugu: *Arnas* eta *Laiaketan*. *Arnas* Villaroko Sakramentinoen Ikastetxe Nagusian agertu zen. Lehen alean Bernat Dechepareren bertso ezagunak lema moduan erabiltzen zituzten: "Heuskara, heuskara/jal-gi adi kanpora/habil mundu guzira". 76 orrialde ditu aldizkari honen lehen zenbakiak, euskara hu-tsezkoa. Kutsu intelektual nabaria bazeukan, atariko testua baino ez da irakurri behar:

"Ez nintzan. Ba naiz. Ezerezean erreñuan nintzan. Lozorro batean nenkusan.

ARNAS zer ari zera, zer? Muxinka, lotsati plazaratu bear al dezu? (...). Gazte leialak dituzu. Indartsu dira. Kultur gose dira (...). Erlijioso ta apaiz-gai dira. Erromatik oi u egiten digute: esanaz alegia, apaizak kultura zabala bear dula (...). Ta ori dana euskeraz (...). Plazara irten baño len, orde, tajutu egin nai dute, zaildu. Zuregana jo dute 'Arnas' la-guntza eske. Ez dator maixuarena egitera (...).

'Arnas' ez dezu errebista; ez, lan metatze-bat baño ez da. Ez du, beraz, noizkorik (...). Errebista ez izan eta...

Orixe da 'Arnas' zure egitekoa (...). Euskalduna lotsati da, egin ba arnas!!"

Aldizkatasun ziurrik ez izan arren, gure ustez *Arnas* aldizkaritzat hartu behar dugu, hauxe bait da hain zuzen garai honetako euskarazko kazetaritzaren ezaugarri bat: euskararentzat egoera lar-ria bait zegoen, ondo tajututako aldizkariak ateratzea baino gehiago inporta zuen euskarazko tes-tuak kaleratu eta zabaltzeak. Zeregin horretan elizgizonek izugarritzko garrantzia izan zuten, Hego Euskal Herriko hamarkada hartako kazetaritz-ekoizpen gehiena kontrolatzen bait dute (eta ez aldiz-kari erlijiosoak bakarrik, kultur-aldizkari edota tokian tokiko aldizkari asko eta askotan ere apaizen eskua nabaria bait zen). Elizgizon euskaldunen artean euskara kulturarako hizkuntza bilakatzeko asmoa oso zabalduta zegoen, eta neurri handi batetan, haiek lortu zuten berpizte hori hain latzak ziren egun haietan.

Arnas idazten zuten, besteak beste, Adorador Goikoetxeak, Kepa Oiarbidek, Jose M. Egigu-renek, Paulo Iztuetak, eta beste horrenbeste sakramentinoak. Gai erlijioso-teologikoak zerabilzkiten ("Eukaristia, kristauen batasuna", Sakramentu ezaugarria", "ELiz Batzar nagusia"), euskal literatu-rakoak ("Lizardi eta 'Itz-lauz' "), euskal kulturakoak ("Euskera ta ta txistua", "St. Cyran ta euskaldu-nak, "Euskera illzoriar?"), eta berriak ("An-emendik").

Laiaketan antzekoa da, hasieran behintzat (denboraren poderioz, 70.eko hamarkadan Urretxu-ko Pasionisten Ikastolaren bozeramaile bihurtu zen, bertan umeek idazten zutelarik). Lehenengo alea, mimeografiatua, ikusi ditugun beste guztiak bezala, 1959.eko maiatzekoa da. Urretxuko pa-siotar gazteek Euskal Akademia bat sortu zuten (sakramentinoen artean ikusi dugun antzeko gri-na, frantziskotarrek ere berdin egin zuten *Yakin* aldizkaria ateratzean), eta bere bozeramailea aldizkaritxo hau zen. Bigarren zenbakia 1959.eko abendukoa da. Hirugarren 1960.eko apirilkoa. Euskaltzaindian beste lau ale daude: 4.a (1960.eko urria), 5.a, 6.a eta 7.a, tajuera txikago batekin (1961-1962. urteetakoak dira). Urte batzuk geroago ere agertu zen, azal berdina zeukalarik, multi-kopistaz. 1975.eko ale bat gordetzen da Lazkaoko Beneditarren komentuan.

101.- Aurrera, gazteak, 1. alea.

Ataltxo hau bukatzeko, zera azpimarratu nahi genuke: nola Euskal Herriko Elizak, edo behintzat Euskal Herriko elizgizon askok (gehienak gazteak) euskal kulturaren interesa azaltzen dute, Eliza Katolikoaren aholkuak aintzakotzat hartuz, hau da, norberaren hizkuntza errespetatu eta erabili behar dela¹⁰². Horretan oinarriturik, elizgizon euskaldun gazteak, frankismoaren Eliza ofizialetik gero eta gehiago urrunduz, euskal kulturaren zutabe bihurtzen dira. Fenomeno horren eragina gure egunetara arte iritsiko da.

B) Aldizkari politikoak

Elizaren sektore batzuk, ikusi bezala, politika egiten hasten dira, eta gehiago sakonduko dute bide hau 60. eta 70.eko hamarkadetan. Eliza Katolikoak, frankismoaren zutabe ideologiko bat izan zena, erregimen militarra irekitzeko beharra lehen aldiz plazaratzen saiatu zena izan zen. Hego Euskal Herrian, jakina, Francoren aurkako politika egitea ezinezkoa zen, izkutuaz ez bazen. Nolabait, zeregin hori apaizek lepoan hartu zuten. Erregimenaren aurkako politika kanpotik egin behar zen, hau da, herbestetik. Horregatik, prentsa politikoa atzerrian argitaratzen zen, beti ere barrura begira, zer esanik ez. Garai hartako aldizkari politiko asko, beraz, klandestinoak dira: tamaina txikikoak (hobeto izkutatua ahal izateko), multikopistaz edo mimeografoz eginak... Beste batzuk, ordez, herbesteratuen artean banatzekoa zena, kalitate haundiagokoa da; Eusko Jaurlaritzaren argitalpenak (*Euzko Deya*) edota alderdi politikoei lotutako aldizkariak.

Euzko-Deya Parisen inprimatzen zuten; baina inprimatutako aldizkaria kaleratzeaz gain, Eusko Jaurlaritzakoek 1950.etik mimeografiatutako gehigarri batzuk ere, ezin interesgarriagoak direnak, ateratzea erabaki zuten. Bertan "Día universal del euzkera" delakoaren berri ematen digute (319. zenbakia, 1950.eko urtarrilak 15, 3. orrialdea), edo Euzkadi Irratiaren hirugarren urtebetzearen berri. Euzkadi Irratia 1947.ean sortu zen, Eusko Jaurlaritzaren bultzadaz, eta 1950.ean egunero bi aldiz behintzat bere irratsaioak, erdarazkoak zein euskarazkoak, aideratzen zituen. Euskarazko irratsaio askoren testua ezagutzen dugu *Euzko-Deyaren* gehigarriari esker, zenbaki guztietan argitaratzen bait zuten. Urte hartan sortzen da *Euzkadi-Irratiaren izparringija edo boletina* argitaratzeko asmoa, "euzkel-irratikixunak bertan jarri ta euzkeldun guztijak jakin-erazoteko, Euzkadi-barruko euzkaldunai"¹⁰³. Guk dakigunez behintzat, ez zen inoiz boletin hori argitaratu, eta euskarazko testuak, esan bezala, *Euzko-Deyan* agertzen ziren. 1954.ean, Mitterrand Barne-Ministraria zelarik, Mouguerreko Euzkadi Irratiaren egoitza itxi egin zuen Frantziako Gobernuak.

Pariseko aldizkari ofizialaren gehigarrian euskara protagonista izaten zen: euskara irratian, euskara ikastoletan, kristau-ikasbidea euskaraz, euskararen persekuzioa, euskarazko aldizkariaren berri. Horri esker badakigu Gerra aurrean noizbehinka argitaratu zen beste aldizkari bat berriro agertzen hasi zela: *Lan Deya*, E.L.A. sindikatuaren bozeramailea 1950.eko urrian berriro kaleratu zena¹⁰⁴. Gehigarri honetaz aparte, *Euzko-Deya* aldizkarian "Euzkel Atala", orrialde batekoa, agertzen zen.

Euzko-Deya Eusko Jaurlaritzarekin lotuta bazegoen ere (baina jeltkideak Gobernuan gehien-goa izanik, aldizkaria abertzalea zen), bazegoen beste aldizkari bat, jeltkidea: *Alderdi*. Aurreko hamarkadan sortua, 1949.etik mimeografoa alde batera utzi eta inprentaz argitaratua agertzen da, Julio de Jaureguiren zuzendaritzapean, hilabetero, Baiona-Beyriseko Villa Antoinetten bulegoa zeukalarik. Euskararentzat bazegoen lekurik, erdara nagusi bazen ere. Euskaraz herbestean zein Hego Euskal Herrian zeuden batzuk idazten zuten, azken hauetako bat lerro hauek idazten dugunean

102.- "Studeant vernaculum illius gentis sermonem", "erriari bere izkeran egin bear zaido" gogoratzen da *Laiaketa*, 1. zenbakia, 1959.eko maiatza, 15. orrialdean, "Erri-izkera Elizaren begiz" izeneko artikuluan.

103.- *Euzko-Deya*, 1950.eko martxoak 15, 321. zenbakia, 12. orrialdea.

104.- *Euzko-Deya*, 1950.eko azaroak 15, 11. orrialdea.

hil berri den Andoni Urrestarazu arabarra, beti *Utarra* goitizenez sinatzen zuena¹⁰⁵. Alderdi jelkidearen bizitzaren berri ematea, bere ekintzak herbestean eta Hegoan, zuten helburu.

Abertzale jelkideek ezezik, beste talde politikoez ere kazetagitari eman zioten. A.N.V.k, lehengo atalean esan bezala, bi aldiz berriro bere *Tierra Vasca* aldizkaria argiratu zituen, bigarrena 1956.etik. Ameriketara, Mexicon zehazki, non beste *Euzko-Deya* bat argitaratzen zen. Yakinda Suárez Begoña abertzaleak *Euzkadi Azkatuta* izeneko aldizkaria argitaratu zuen. Ikusi ditugu 96 ale, guztiak Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan gordetzen direnak, Algortako Manu Agirrerren familiak dituen jatorrizko aldizkariaren fotokopiak. Dirudienez, Yakinda Suárez bilbotarra zen, itsasuntziz gile familiakoa.

Mexicon ere beste abertzale batzuk *Euzko Izketa. Diálogo vasco* bihilabetekaria argitaratzen hasi ziren 1956.eko uztaillean. Alderdi politikoetatik at zeuden abertzale batzuk egiten omen zuten, erdara hutsez, idazpuru edo titulare gehienak euskaraz badaude ere. Informatibo eta politikoa (Hego Euskal Herriko berri asko dakartza), argazkiak, kirolak eta bazituen. Guk bi ale bakarrik ikusi ditugu, biak Madrilera Pablo Iglesias Fundazioan daudenak.

Komunistek bi aldizkari argitaratu zituzten: *Euzkadi Obrera* eta *Euzkadi Roja*. Azken honi oso interesgarria deritzogu. Aurreko hamarkadan argitaratzen hasi bazen ere, 50.eko hamarkada honetako aleak bakarrik ikusi ditugu, Lazkaoko Beneditarren Komentuko bibliotekan. Hiru ale, zehazki, daude han: 1954.eko azarokoa (11.a), 18-19.a (1954.ekoa) eta 1955.eko ale berezi bat otsailera. Paper fin-finean egina (Hegora izkutuan hobeto pasatzeko edo), aipatutako azken alea euskara hutsez idatzia da, izenburu orokor honekin: "Españi'ko komunist alderdiak agerbidea. Españi'aren azkatasuna eta demokratizazioa lortzeko burrukan, eta Españi'tar erriaren bizibidea osorik obetzeko". Zortzi orrialdeetan Espainiako Alderdi Komunistaren programaren puntuak zehazten dira, gipuzkeraz:

- I.- Francozaleen lamera lurreratzeko eta demokratiku azkatasunak berpiztu bear ditun jaurlaritz erreboluzionario bitarteko bat erentzeko.
- II.- Erkalderrri demokratikoa, abendeeren bere buru erabakitzeari begirapen egin.
- III.- Erbesterruntzeko politika pakezale baten alde eta erri guziekin adizkide izateko politika-karen alde.
- IV.- Erreforma agraria edo lurjabetasun erreforma zabala neurriak nekazari eta nekazari-tzako langilleen alde.
- V.- Lurgintza eta abelditzaren obetzearen alde.
- VI.- Neurriak ordaiñean emanen edo kreditoen, dirutza edo finantzen eta ekintzen kontuaz.
- VII.- Langillen bizitza bear-bearreko obetzearen alde.
- VIII.- Erriko ikaskuntzaren alde, kultura, jakintza eta erti loretasunaren alde.
- IX.- Eliza eta laterriaren arteko errelazioak".

Beste bi aipatu aleetan, euskaraz testu bana dago: "Sobietar batasuna: erri azke loresorta bat" eta "Arrantzale etsaien asmoak".

Baina, abertzaletasunera itzuliz, hamarkada honetan talde batzuk ortodoxia jelkideetik urruntzen hasi dira. Hurrengo hamarkadan, talde horiek bereizi egingo dira E.A.J.tik, eta E.T.A. sortu zen. 1952.ean Ekin taldea sortzen da, oraindik Euzko Gaztedi barruan. 1958.ean E.A.J.rekiko harremanak, lehengo urteetan anbiguo samarrak, okertu egin ziren, eta 1959.eko uztailak 31an E.T.A. sortu zen.

105.- Andoni Urrestarazu Gasteizen hil zen 1993.eko abenduan.

Baino hori orain aztertzen ari garen garaitik nahiko urrun geratzen zaigu, E.T.A.ren historia, nahiz eta 50.eko hamarkadan hasi, hurrengoetan gauzatzen bait da. Kazetaritzari dagokionez talde hau 60.eko hamarkadan bere aldizkariak argitaratzen hasi zen. Beraz, ez dugu hemen horretaz hitzgingo.

Baina interesatzen zaiguna da nola 50.eko hamarkadan E.A.J.tik bertatik ahots batzuk altxatzen diren, erradikaltze bat proposatu edo esijituz. Esate baterako, 1957. urte inguruan sortzen den Euzko Aberri Alkartasuna edo Frente Nacional Vasco (beste batzutan Frente de Resistencia Interior). Izen honekin orri *volante* edo solteak agertzen hasten dira, Aberri Eguna ospatzera bultzatuz, ia ia erdara hutsez. Nolabait, ekintzak egiteko beharra sentitzen zuten batzuk. 1958.ean beste bi orri agertu ziren: "Euzkotarrak! Vascos! Compatriotas!" eta "Euzko Abertzaleen laguntza" izenburuean. Dirudienez, bi hauek Ipar Euskal Herrian inprimatu ziren, bietan Frontearen egoitza agertzen bait da: 8, Quai de l'Infante, St. Jean de Luz. Orriotan zera proposatzen zuten: "Creación de un fondo económico para ayuda a perseguidos nacionalistas y familiares (...). Se emitirán bonos por valor de 1.000.000 de pesetas".

1959.ean ere, "Euzko Abertzaleen laguntza" izenburuean, liburuska bat argitaratu zuten. 60.eko hamarkadan ere, Caracasen, Frontearen beste argitalpen batzuk agertu ziren noizbehinka.

Caracasen bertan, non Andima Ibinagabeitia bizi zen, Frente Nacional Vasco delako honek aldizkari bat argitaratu zuen 1958.etik 1962. urtera arte: *Irrintzi. Erri azke baten. Euzkadi'ko azkatasunaren alde*. Euskaraz eta gazteleraz, erdibana, abertzaletasunean erradikaltze bat zen:

"Odei illun eta busti bat ari zaigu aspalditik euskotarron abertzaletasunaren zañak usteltzen eta makaltzen (...). Batzuk Monarkiari begira iarri zaizkigu (...), beste batzuk Errepublikari begira (...), danak mendeak mende gure zapaltzalle izan ditugun españarrai so (...)"¹⁰⁶.

Bere deklarapenean, fronte honek onartzen zituen "las concesiones de circunstancias que el Partido Nacionalista Vasco, en momentos difíciles para la República española, le hizo a ésta", bainan 1958.ean uste zuten Estatutua ez zela nahikoa, "porque le honra más a la República Española que a nosotros los vascos"¹⁰⁷. Euskara kontuetan ere berdintsu mintzatzen ziren: "Zer da analpabetu izatea? Norbere jatorrizko izkeraz (gurean euzkeraz) ez idazten ez irakurtzen ez jakitea da analpabetu izatea"¹⁰⁸. Europatik zetozen testuak ere nahiko bortitzak ziren: ikusi baino ez dugu egin behar Parisetik Jon Mirandek bidalitako "Frantzitar Errepublikaren menpeko erriak" izeneko artikulua¹⁰⁹. Eta Ibinagabeitiak bera "Odol gabeko matxinada" bat proposatzen zuen, egitarau oso bat emanaz. Oinarriak hauexek dira, laburki esanda:

"I.-Eralguntza ontan parte artu bear dute Euzkadin eta mundu guztian zabaldua dau-den euskaldunak oro (...)

II.-Euskera beti ta nun-naï erabilzera beartuko dira (...) gurasoak (...), erri-agintariak (...), eliz-gizonak, maizu ta irakasleak, epaile, lege-gizon, epai-maizu, langille ta ugazabak (...).

106.- *Irrintzi*, 1. zenbakia. Ez da datarik agertzen (1958).

107.- *Ibidem*.

108.- Ibinagabeitia, A.: "Azkatasuna eta euzkera", *Irrintzi*, 2. zenbakia.

109.- *Irrintzi*, 4. zenbakia.

Ezaguna da uri aundiak daukaten eragiña txiki eta ez ain txikien gañean. Euskal ma-txinada bear bezela zuzentzeko, Euzkadiko lau uri aundietan, Iruña, Gazteiz, Bilbao eta Donostian alegia, bakoitzean batzorde bat izango da¹¹⁰.

Egitarau batez ere kultural eta utopista bat, baina hala ere abertzaletasunak bide berriak bila-tzen zituela erakusten diguna, hurrengo urteetan Euskadiren historian eragin handia izango zutenak.

D) Kultur aldizkariak

50.eko hamarkada euskal kulturaren berpiztearena da. Hego Euskal Herrian, piskanaka piska-naka liburuak eta aldizkariak argitaratzen hasten dira, literatur mundura mugatuak. Aldizkari-aren, euskara hutsezko *Egan* dugu garrantzitsuena. Ikusi dugunez, hasieran *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*en gehigarria zen, eta gero bere bizitza propioa lortu zuen. Koldo Mitxelenak (laister Antonio Tovarrek Salamancako Unibertsitatean sortu berria zen "Ma-nuel de Larramendi") Euskara Katedra eskeini zion, eta berak onartu) eta Manuel Agudek zuzen-tzen zuten aldizkaria, lan honen hirugarren partean azpimarratu ditugun ezaugarriekin. Beraz, ez dugu hemen gehiago erantsiko. Bakarrik aipatu nahi genuke euskal kulturaren izan zuten garrantzia, egoera politikoak inposatutako pobrezian euskarak arnasa hartu ahal izan zuelako. Hamarkadaren bukaeran, 1959.ean, beste aldizkari literario hutsa erantsi zitzaion: Larreako karmeldar batek, Aita S. Onaindiak, atera zuen, hiru hilabetetan behin, Karmengo Ordenakuek argitaratzen zuten beste euskara hutsezko aldizkariaren gehigarri moduan (*Karmel*): "Gure euskera 'zernaitarako', Lizardi zanak iñoanez, gaitu bearrean gagoz", zioen Onaindiak lehen zenbakian. Literatur aldizkaria zela esan dugu, baina gehiago zehaztu egin beharko nuke: olerkiari buruzkoa, olerkiak bakarrik argita-ratzen bait ziren, "neurtua naiz itz lauz". Itzulpenak ere onartzen ziren.

Euskal kulturaren, Paulo Iztuetak dioenez¹¹¹, frontea bikoitza zen: alde batetik, Hegoan, barruan, *Egan* zegoen; beste alde batetik, herbestean, Ameriketara hasieran eta Ipar Euskal Herrian gero, *Euzko Gogoa* zegoen. Kulturaliki, hamarkada hau ezin inportanteagoa izan zen, eta eztabaidak ere sortzen dira, euskara ereduari dagokionez esaterako: "Nikolas Ormaetxea sueña con una lengua depurada de neologismos extraños y primordialmente elitista, Amilaitz (N. Etxaniz) aboga por una expresión cultural sobre todo popular y con temas de actualidad, Koldo Mitxelena juzga indispen-sable la adaptación de la vieja cultura pastoril y rural a las nuevas condiciones creadas por la sociedad industrial y urbana, Krutwig y Andoni Urrestarazu insisten, cada cual desde su óptica, en la ingente necesidad de politizar el elemento cultural"¹¹². Urte haietan Euskaltzaindia berriro lanean hasi zen, eta herbestean, euskal kultura mantendu eta sustatzeko ahaleginak egin ziren: 1948.ean Eusko Ikaskuntzen VII. Kongresua ospatu zen Biarritzen, Barandiaranen Gernika taldeak antolatua, eta 1956.ean Eusko Jaurilaritzak I. Euskal Batzar Orokorra antolatu zuen Parisen¹¹³.

Itzul gaitezen orain kazetaritzara. *Euzko Gogoa*, esan bezala, 1950.ean agertu zen lehen aldiz Guatemalan, non bere bultzatzaile nagusiak bizi ziren: zuzendaria, Jokin Zaitegi, eta Andima Ibinaga-beitia. Laister Nikolas Ormaetxea hasi zen lanean. Euskararik gabe ez dago Euskal Herririk, hori-xe da oinarritzko lema. Aldizkariak herbestean sakabanatutako idazleak bildu nahi zituen (Jemein, Leizaola, Altube, Labaien, Villasante, Monzon, Txillardeggi, Urrestarazu, Insausti, Ziarsolo, Jon Etxaide, Kapanaga, Etxaniz...); euskararen bizitza ziurtatu (eta Euskal Herri osora hedatu), eta hiz-

110.- *Irrintzi*, 7. zenbakia.

111.- Aipatu liburua, 172. orrialdea.

112.- Iztueta, P., aipatu liburua, 174. orrialdea.

113.- Badago horri buruzko kronika bat, Batzarraren 25. urtemugan Eusko Jaurilaritzak argitaratua.

kuntza kultur-lanabes bihurtu. Etorkizunerako bidea prestatu nahi zuen *Euzko Gogo*a, beti ere Euskal Herrira noiz itzuliko eta han Unibertsitate bat noiz eratuko zain.

Beste batzuk aztertu dute *Euzko Gogo*a; hor daude Joseba Intxausti¹¹⁴ eta aipatu dugun J.M. Vélez de Mendizabal. Ezer gutxi erantsi genuke guk. Beraz, Zaitegiren aldizkariaren bizitzari buruzko zenbait zertzelada eman dugu bakar-bakarrik. *Euzko Gogo*a bi aro izan zituen: lehenengoa Guatemalako, 1950.etik 1955.era, 1953.ean argitaratu gabe egon zelarik. Bigarren aroan Miarritzen inprimatu zen, 1956.- 1959. urte bitartean. Guztira, 44 ale. Tajuera ere desberdina zen: Guatemalan, baliabide tekniko gutxi zeudelarik, neurriak aldakor samarrak ziren, hala ere formato handian kaleratzen zen. Ipar Euskal Herriko garaian, aldiz, tajuera beti berdina da, neurriak txikiagoak direlarik.

Nahiz eta harpidedun gutxi izan¹¹⁵, *Euzko Gogo*aren itzala handia izan zen. Bere garairik eraginkorrena bigarren izan zen. Etxetik gertuago, Andima lbinagabeitia gabe (Ameriketara geratu zen, Guatemalatik Venezuelara joan zelarik), betiko zutabetan oinarriturik ("euskaldunenak egin du, euskera galdu ezker, euskerak egin baikaitu euskaldun"¹¹⁶, zioen Zaitegik Miarritzeko lehen zenbakian), adore berriekin ("bagatuz gu, oi u ta irrintzi, euskeraren alde lan egitera, len bezain baikor ta kementsu"), literaturarako joera nagusia zelarik, *Euzko Gogo*a euskal kulturaren zebiltzanentzat ezinbesteko erreferentzia bihurtzen da. Urte haietan literaturaz, filosofiaz (honetan Zaitegi maisua zen), historiak, erlijioaz eta idatzi zuten askok eta askok. Literatur testua nagusi ziren, ordea: itzulpenak (*Otarriren* "Bergili"ren Enea'rena", B. Larraskoetxeak Shakespearen *Macbeth*en itzulpena, esate baterako), euskal eresi zaharrak (1956.eko orrila-garagarria), belaunaldi berrien lanak (*Txillardegiren* "Leturariaren egunkari ezkutua", 1956), etabar agertu ziren bere orrialdeetan.

*Euzko Gogo*a ia ia lehendakari Agirrerekin batera hil zen, 1959.ean; azkenengo alea, 1959.eko martxo-uztailekoa, 1960.ean inprimatua.

Hamarkadaren hasieran Mexicon beste kultur-aldizkari bat argitaratu zen: 1950.ean hasi zen kaleratzen Andoni Ruiz de Azua *Ogoñopek* zuzendutako eta Editorial Vascak argitaratutako *Ekin*. "Euzkera alde", bere azpizenburuak zioen bezala, lan egin nahi zuen:

"Aldizkari au, euzko gogoak zabaldu izango da, Euzko gogoak zabaldu, ta Euzkera alde ekin. Noizik-noizera argitalduko dogu. Al bada illero, illero ezin bada baliteke illabirik baten, baña aldiz-aldi urtengo da. Danetariko elgitza izango dau. Gipuzkeraz, Bizkaieraz ta Lapurtarrez idatziko dogun ezker. Euzkerak bere aberaztasuna dauka; Elgi edo elki bardingeak dauzan arren. Biar bada, ez dau izango arako izkera zakonik, baña erriak biar daben izkera errezena bai"¹¹⁷.

Euskara hutsezkoa, bertan, besteak beste, Ruiz de Azuak berak, Jon Adarragak, Yosú Olaizolak, Karla Villanueva euskaldun berriak, Iñaki Larramendik eta Jokin Zaitegik idatzen zuten. Batez ere literatur-lanak eta "Euzkal-erriko izparrak" irakur zitezkeen. Zabalkunde gutxi edo zeukalako, guk dakigunez 1950.ean bertan utzi zion agertzeari.

Ameriketara ere argitaratu zen *Euskalduna-El Vasco* aldizkaria. Normalean, euskaraz bazeukan orrialde bat. Argentinara agertu zen *Euskaltzaleak*, euskara hutsezkoa, 1954.ean.

114.- Intxausti, J.: "Zaitegi eta Euzko Gogo", *Jakin*, 1979.eko urria-abendua.

115.- Iñaki Vélez de Mendizabalen liburua, 111.-112. orrialdeak.

116.- *Euzko Gogo*a, 1956.eko urtarrila-otsaila, 1. orrialdea.

117.- *Ekin*, 1950.eko apirila, 1. zenbakia, 2. orrialdea.

1950.ean ere hasi zen berriro agertzen Ipar Euskal Herriko *Gure Herria* aldizkaria, Louis Dancesek eta Mgr. Saint Pierrek zuzendua. 1939.ean utzi zion argitaratzeari, eta orain ikertzen ari garen hamarkadaren hasieran berriro frantsesez eta euskaraz kaleratzeari ekin zioten St. Pierrek eta Ipar Euskal Herriko kultur munduan zebiltzanek. 1951.ean St. Pierre hil zen, Gile Eppherre *Gure Herria* erakundearen presidente eta aldizkariaren zuzendari bihurtuz. Aldizkariak Ipar Euskal Herriko kultura, ekonomia eta ohiturei buruzko ikerketa eta artikulu asko argitaratu zituen, seriotasunez, zuzen eta artez. Horrela, 1939.ean moztutako bideari jarraitu zioten.

1953.ean Bordeleko Eskualdunen Biltzarrak bere bozeramaile kaleratu zuen: *Agur. Bulletin de l'Eskualdunen Biltzarra de Bordeaux*. 1948.ean sortua, Pierre Elichondok zuzendua, bere helburuak ziren "créer à distance l'atmosphère du Pays Basque; étudier son histoire, sa langue, les moeurs de ses habitants; faire revivre ses coutumes ancestrales, ses belles traditions; et développer entre ses membres l'amour de la petite patrie"¹¹⁸. Aldizkaria frantsesa hutsez idazten zen.

Euskal ikaskuntzak berpiztuz zihoazen. Hego Euskal Herrian, berriro Mitxelenaen kemenez, argitaratzen da lehen aldiz Donostian *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*. Nolabait, euskara berriro sartzen zen goi mailako kultur munduan, errepresio frankistaren garai gorrien ondoren. Urte bat lehenago, 1953.ean, agertu zen Gerra ondorengo Euskaltzaindiaren bozeramailearen lehen zenbakia: *Euskera*. Hala ere, ez zen berriro agertu 1956. urte arte, handik aurrera erregularki agertuz gure egunetara arte. Lehenagotik lanean bazegoen ere (1941.ean ere Azkue, Urkijo, Juan Carlos Guerra, Pablo Zamarripa, Juan Irigoyen eta Nazario Oleaga bildu ziren), Euskaltzaindia 50.eko hamarkadan benetako ekintzak antolatu ahal izan zituen. Lehen presidentea, Azkue, hilda zegoen, eta askoren susmoak sortzen zituen Ignacio M.^a Echaide presidentea zen¹¹⁹. 1953.ean hasi ziren Gipuzkoako Foru Aldundian euskarari buruzko hitzaldi batzuk, antzinako euskal idazleak gogorarazteko, Aingeru Irigarai euskaltzainak antolatuak. Euskaltzaindiak, gainera, idazle zahar batzuren liburuen berrargitalpenak prestatzen zituen: Axular, Dechepare, Oihenart... Ordurako euskaltzain berriak ere sartuak ziren: Krutwig, Lekuona, Dassance. Gorostiaga, Villasante. Jarraera nahiko desberdinak mantentzen zituztenak, laister Krutwig bereizienak azaldu zituen.

1956. urtea Euskaltzaindiak abiada berri bat hartzen du. Urte hartan ospatzen da Arantzazuko bilera, eta 1959.ean, Bilboko Batzarrearen ondorioz zera erabakitzen da, "euskararen baitan sus-traituriko hitzak euskal hitzatzat jo behar direla"¹²⁰. Batasunerako bidea prestatzen hasia zen, eta hurrengo hamarkadan burutuko ziren Mitxelena, Villasantek eta beste batzuk zerabilzkiten ideiak.

1956.ean ere frantziskotarren kultur aldizkari oso eraginkorra argitaratu zen: *Yakin*, geroxeago *Jakin* izena hartu zuena, eta gaur egun ere argitaratzen da, orain frantziskotarren ardurapean ez bada ere. Aurreko atal batean ikusi dugunez, elizgizonen artean euskal kultura eta hizkuntza berpizteko nahia pizten da. *Jakin* haruntzago doa, eta goi-mailako aldizkari izan nahi du. Apalki hasieran (beste aldizkari asko bezala, mimeografitua egiten zen), Arantzazutik Iñaki Baztarririk, Yon Balerdik, Iñaki Bereziartuak, Fernando Mendizabalek, Joakin M. Sueskunek, Xabin Berasaluzek, Ixidor Bastarrika, Imanol Urbietak, J.M. Osak eta beste batzuk euskaldunei beren emaitzak eskeintzen zizkieten. Aldizkari irekia, frantziskotarrek ezezik sakramentinoek (esate baterako Luis Mari Mujikak, artean Villaroko komentuan zegoena) eta beneditarrek idazten zuten. Beste elizgizonentzat nahiz laikoentzat ere irekita zegoen *Yakin*: Urrestarazuk, Ibinagabeitiak, Patxi Altunak, adibidez, beren testuak argitaratu zituzten aldizkari honetan. Teologiaz, filosofiaz, historiaz, literaturaz idaz-

118.- *Agur*, 1953.eko azaroa, 1. zenbakia.

119.- Echaide, 1884.ean Donostian jaioa, ingeniari industrialaren zuzendaria zen, eta 1952.ean Euskaltzainburu egin zutenean, Gipuzkoako Telefono-Sarearen zuzendaria zen. Askorentzat, erregimeneko gizona zen.

120.- Ugalde eta Martija, aipatutako *Euskaltzaindiaren historia laburra*, 27. orrialdea.

ten zen, elkarrizketak ere agertzen ziren... astronautikaz ere idatzi zen *Yakinen!*¹²¹. 50.eko hamarkadan *Jakinen* lehen garaia da. Mimeografiatua kaleratu zen 1959. urtera arte, 60.eko hamarkadan inprimatua argitaratu zen, beste aro berri batean sartuz.

Hezkuntza munduan ere gauzak mugitzen hasiak ziren. Ipar Euskal Herrian Euzko Ikasle Batza elkartu zen berriro, eta jeltkideengandik gertu zeuden gazte horiek 1957.-1958. urteetan *Ikasi* izeneko aldizkaria kaleratzen dute. Egia esan, aldizka kaleratzen ziren "koaderno" batzuk dira. Lehenengo (1957.ekoa) euskara hutsez agertu zen, bigarrenkoa aldiz erdara hutsez: "Desde ahora debemos promover: 1.º Cobrar una conciencia clara de los problemas que atañen a la juventud vasca. 2.º Suscitar en nosotros y en derredor nuestro el sentido o la responsabilidad. Formarnos para actuar eficazmente. He ahí la finalidad de IKASI (...)"¹²². Honako sailak izaten zituen: Kristiñau Salla, Euskera salla ("nola dago gaur euskera", "zer egin leike euskera txusertzeko", "euskeraren etorizuna", "Euskeraren arerioak", "euskera oñarrietako bat"...), gizarte-arazo salla eta demokrazi salla. Bi ale bakarrik argitaratu ziren.

Iparreko euskaldunek *Ikas* aldizkaria argitaratu zuten, 1959.ean. Hiruhilabetekaria zen, *Ikas* elkarrekin sortua ("créée pour l'enseignement régional dans les écoles du Pays basque"). Elkarrekin hau Baionako Musée Basque-ren inguruan bildu zen. Bi gerente zituen, horietako bat Pierre Lafitte. Euskara ikasteko kahierak dira, aldizkari didaktiko bat azken finean.

Azkenik, aipatuko dugu kultur aldizkarien artean Bilboko *Bizi nai*. Hamarkada honetan, dantza eta musika taldeak sortzen dira Hego Euskal Herrian, ohitura zaharrari eutsiz. Gazte abertzaleak biltzeko zeregina ere bete zuten, euskal kolektibitatearen sozializazioa nolabait bilatuz¹²³. Lazkaon ikusi ditugun aleekin batera, dirudienez talde haren partaidea zen Gentza delako baten eskutitza dago:

"Promovido por el grupo de Danza Bizi-Nai de la parroquia de San Antón de Bilbao, promovido por José Antonio Retolaza (cuando era sacerdote) y D. Claudio Gallastegui (párroco). En la época de esta revista, hubo muchas tensiones, ya que aparte del grupo de danzas se deseaba que fuese de teatro, de canto, conferencias, etc... y hubo una escisión de casi todos los de danzas, fundándose el grupo Oñaztarri".

Euskaraz bakarrik gauzatxoren bat agertzen da. Tirada ere murrizta da: 100-150 bat ale, antza denez. Baina hau Hegoan gauzak nola zebiltzen adibide bat da: errepresioari aurre egiteko, Elizaren babesean zenbait ekintza kultural, abertzaletasunarekin lotuak, loreten hasi ziren pausuz pausu.

E) Ipar Euskal Herriko prentsa

Orain arte batez ere Hegokoei sortutako komunikabideak aztertu ditugu. Iparreko aldizkari batzuk ikusi ditugu, eta baten bat ere ikertuko dugu hurrengo atal batean (haurrentzako kazetagitzaari buruzkoan, alegia). Baina ataltxo honetan, labur-laburki bada ere, Iparreko euskaldunek argitaraturiko beste aldizkari batzuk ikertuko ditugu.

121.- Estae baterako, 8. zenbakian, 1958.eko gabonetakoa.

122.- *Ikasi*, 1958.

123.- Horri buruz badago liburu bat, Luis de Guezalaren *Dindirri, resistencia cultural durante el franquismo* (Sabino Arana Kultur Elkargoa, Bilbo, 1991), dantza talde horietako baten bizitza kontatzen duena, guk aipatzen dugun fenomenoaren ezin hobeto adierazten duena.

Ikertzen dugun garaian, Ipar Euskal Herriak (Laburdik, Behe-Nafarrak eta Zuberoak) 180.000 bat biztanle zituen¹²⁴. Horietatik 77.000 bat euskaldunak ziren. Ekonomikoki, laboraritzea edo nekazaritza nagusi zen. Industrializazioa oso txikia zen, Hegoan ez bezala. Beraz, ezberdintasunak nabariak ziren.

Urteetan zehar, Munduko II. Gerra arte, *Eskualdunak* biltzen zuen euskaldun gehienen pentsaera. 1944.ean, ikusi dugunez, desagertuta, *Herriak* hartu zuen zeregin hori. Irakurleko haundia lortu zuen. Gaur egun ere argitaratzen da astero. 50.eko hamarkadan euskara hutsezko astekaria bere gailurrean zegoen (euskaraz %90a zegoen, frantsesari txoko bat utziz Frantziako legea errespetatzeko). 1956. eta 1957.ean, esate baterako, argazki ugari zituen, egunkari itxura zeukalarik. Egitura ere egunkariarena dugu: 1. orrialdean denetariko berriak, batez ere nazioarteko edo Frantziakoak. Ezkerreko partean, bi zutabetako titulare korritu batenpean, So-Egile delako batek sinatutako iruzkin bat dator (ziur aski Lafittek berak egina). Nazioarteko gertakariak leku haundia betetzen zuten lehen orrialdean: Hungriakoak garai hartan ("Hungriako gertakariak", 1957/III/21, 1957/VI/4), Ejipto-Israel arteko gerra, etabar. Gipuzkoatik (izen bereko kronika zen) noizbehinka bidaltzen zuen Aspaldiko delako batek testuren bat, azken orrialdean argitaratzen zena. Baita Txillardegik ere, oso noizbehinka egia esan. Arabatik ere noizean behin (Urrestarazuk idatziak?). Eskualdun Biltzarrari buruzko berri asko aurki ditzakegu.

2. eta 3. orrialdeetan, *Eskualduna* egiten zen bezala, Zuberoa, Lapurdi (berezi) eta Behe Nafarroako berriak datoz. Laborarien gaiak ere bai, ohizkoa zenez (4. orrialdean ere ager zitezkeen). Tokian tokiko berri hauek, oso laburrak, argazkirik gabe agertzen ziren. 4. orrialdean frantsesezko testuak, Frantziako berrien bat, eta Gipuzkoa eta Arabatik etorritako berriak, esan bezala. Azken finean, *Eskualdunaren* egitura (berak ere 4 orrialde zituen, egunkari itxura eta tamainakoak) mantentzen zuten, pentsaera arinagoa bazen ere, beti ere Fedea-Euskara-Nekazaritza hirukotea oinarria zelarik. Hauxe izan daitezke *Herriaren* pentsamoldearen adibide erakusgarri bat:

"Nahi dut gizon den gizona, eta bietan balinbada eskualdun (...). Eta huna, berzeak bertze, zertan bat egitea proposa nezoketen eskualdun gizon politikalarieri:

1.º Eskual Herriko haurdun burkasoak izan daitela, elgarren arteko batasun bidez (...).

2.º Eskualdun haurrentzat, eskuara baitezpadakoa izan dadiela etsaminetako, gainerateko ikasgailuen artean.

Diruaz (...) gehichago aldiz gure herriek eta kontseilu jeneralak.

Eskualdunentzat, eta ez bertze jente guzientzat, Espainiako mugan pasatzea arindua izan daien, edo hobeki arras libre ezarria... Ez dadiela izan Pabe Eskual-herrikotz gobernu hiria, baina Bayona.

Eskual Herriarentzat galdatu abantaila berak, bertze jente mota bereziek ukhan ditzaten (...). Eskual politika behar ginuke eskualdun"¹²⁵.

Garai nahasiak, hala ere, Frantziak Aljeriaren aurkako gerra mantentzen bait zuen. Eta *Herriak* arazoren bat izan zuen. "Tribune Libre" izeneko artikulua sortan Pierre Larzabalek kritika batzuk bota zituen, eta berehalaxe *Herriak*, bere betiko zuhurtziaz, egoera lasaitu egin behar zuen:

"Jamais HERRIA n'a eu une politique coloniale contraire à la presence de la France en Afrique du Nord (...). Du rest, Herria a publi bien d'autres points de vue sur la question

124.- "Problèmes économiques et sociaux du Pays Basque Continental", *Gure Herria*, 1953.ko ekaina, 3. zenbakia. Aipatzen ditugun datuak hemendik atereak dira.

125.- *Eskualduna*, 1957.eko apirilak 18, 349. zenbakia, 2. orrialdea.

algerienne: car notre journal n'a rien de sectaire, quoi qu'en disent ceux qui ne le lisent pas (...)"¹²⁶.

Herria zen, garai hartan, euskarazko kazetagitzaan aldizkaririk aurreratuenena; baina hori arrazoiz batengatik zen: Hegoan garapenerako aukera moztuta zeuden Gerratik, eta 1937. ean gogoratu behar dugu Iparrek astekari bat zeukala (*Eskualduna*), Hegoan euskara hutsezko egunkari bat eta astekari asko (*Eguna*, *Argia*, *Ekin*) argitaratzen ziren bitartean. Hegoan pentsamolde propioa politikan gauzatzeko bazegoen alderdi bat baino gehiago (E.A.J., P.N.V.), Iparrean, Frantziako egitura zentralistak oso baldintzatuta, indar politiko propioirik ez zegoenean. Gerra ondoren, erregimen frankistak Hegoan isilaldi luze bat ezarri zuen; Iparrean, Munduko II. Gerra bitartea gainditutua, gauzak bere onera itzuli eta lehengo egoera iritsi zen. *Herria*, beraz, *Eskualdunaren* bidean ibili, besterik ez zuen egiten. Horrek ez du esan nahi, noski, meriturik ez zeukanik: mantendu zuen euskaldunen kohesioa eta euskaraz baino ez zekiten askorentzako komunikabide bakarra izan zen, informatiboa eta garai berrietara ahal zen heinean egokitua. Baina garai berriak, frantseseko hezkuntzak, komunikabide berriek (irradiak, telebistak), *Herriaren* garrantzia murriztu zuten hurrengo hamarkadetan. hala ere, esan bezala, euskarazko astekariak bizirik jarraitzen du, astero astero Iparreko euskaldunengana iritsiz.

Hegoan bezala, neurri txikiagoa batean, elizgizonek aldizkari erlijiosoak argitaratzeari ekin zioten. Horietako bat Belloc-eko beneditarren *Othoizlari* dugu. 1954. ean hasi zen bidea egiten, Xavier Diharceren kemenez. Erlijioari buruzko gauzak, batez ere komentuarekin zuzen-zuzenean zerikusirik zutenak, eta laborantzari buruzko gaiak ere argitaratzen ziren. Hasieran mimeografiatua, 1955.etik inprimatu egiten zen.

Iparraldeko prentsari buruzko atal honetan, azkenik, ikusi ez dugun aldizkari bat aipatuko dugu: *Sor Lekua*. 1955.eko *Eusker*a aldizkarian aipatua, N. Alzolaren liburu, aldizkari eta edonolako euskarazko argitalpenen zerrendan, bertan esaten zaigu Ameriketara bizi ziren Iparreko euskalduneei zuzendua zela, bere jaioterriko berriak igortzea bait zuen helburu. Baionan argitaratzen omen zen. Aldizkari honek bazeukan aintzindariak, XIX. mendetik Ameriketako euskaldunentzako aldizkariak (gehienak bizitza laburrekoak) argitaratzen bait ziren (halanola, *Gure Izarra*). Kanpoko ezauzgarriak garai berrietara moldatzen baziren, Iparreko euskal prentsaren ezaugarriak aspaldikoak ziren.

F) Tokian tokiko aldizkariak

Jaioterriko berriak eskeintzen zituen aldizkari bat aipatu dugu, nahiz Ameriketarakoa izan. Orain aztertuko dugu Hegoan sortu zen beste fenomeno, aitzindariak ere bazituen (eta erdal kazetagitzaan eredu asko zituen), hurrengo hamarkadetan garapen izugarria izango zuena, euskaraz bereziki¹²⁷: tokian tokiko prentsaz ari gara, herrietan —herri txikietan, askotan— egina bertako biztanleentzat.

Gerra aurrean bazegoen horiek bezalako tokian tokiko aldizkariak: 30.eko hamarkadako *Arrati'ko Deya* horietako bat da. 50.eko hamarkadan, batez ere Elizaren (herriko parrokiaren) babesean, gazte jendea hara hurbildurik, holako kazeta mordotxo bat aurki dezakegu.

Kronologikoki, *Eibar* dugu lehena. 1952. ean hasi zen, eta 1956. ean bigarren garaiari hasiera eman zion. Erdaraz eta euskaraz (beti orrialde bat behintzat), gaur egun ere Eibarren argitaratu eta banatzen den aldizkari dugu, hango apaiza den Pedro Etxebarria.

126.- Lafitte, P.: "A nos lecteurs", *Herria*, 1957.eko ekainak 27, 359. zenbakia, 1. orrialdea.

127.- Gaur egun ere, herrietako euskal prentsak izugarritzko bultzada izan da euskal kazetaritzarako.

1956.ean agertu zen Hondarribian *Ondarribi'ko Izparrak*. Acción Católica-ko gazteen bilera batean, Hondarribiko apaiza zen Joseba Ormazabali bururatu zitzaion atzerrian zeuden neska hondarribitarrentzako aldizkaritxo bat kaleratzea (neska gehienak Congregación de las Hijas de María-ko mojak ziren). Makinaz izkribatu eta gero mimeografoz kopiatutako orri batzuk ziren, gero neska haiei bidaltzen zitzaizkienak. Baina laster, herrian bertan banatu zen aldizkaritxo, bertako berri asko, irakurlearentzat oso gertuak, bait zekartzan. "Noticiero trilingüe, que aparece cada quince días y se parece poco a una hoja parroquial", zioen Ormazabalek, "es un diario de cuanto acontece en Fuenterrabía". Mugatik hurbil, euskaraz, erdaraz eta noizbehinka frantsesez ere idazten zuten. 1959.eko ekainean agertu zen azken alea. Bilduma osoa, Joseba Ormazabalena berarena, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Liburutegian kontsulta daiteke.

Bizkaian ere holako aldizkari batzuk agertu ziren. 1957.eko urtarrilean plazaratu zen Etxebarri-Barinagako *Gure Erria*, mimeografiatutako orri bat: Etxebarri eta Barinagako berriak (jaiak, ezkontzak, futbolari buruzko berriak, etabar) zekartzan. Baita kontu zaharrak ere.

60.eko hamarkadaren atarian, non tokian tokiko aldizkariak askoz gehiago garatu ziren, Zornotzan beste aldizkari lokala agertu zen. 1959.ean argitaratzen hasi zen *Sirimiri zornozano*, hango parrokiako gaztediak aterea. Hau ere mimeografitua zen, hilabetekaria, euskaraz (% 25a) eta erdaraz, (botsгарren zenbakitik, 1. orrialdea beti euskaraz agertu zen). Gernikako *Brisas Guerniquesas* aldizkarian oinarritu zen.

G) Nekazal aldizkariak

Berriro ere arlo honetan Gerra aurreko kazetagitza ditugu ereduak. Nekazaritzari buruzko aldizkariak (industrializazioa gero eta gehiago aurreratzen zen lekuan) hamarkada honetan ere mantentzen dira, eta beraietan euskarak zeregin garrantzitsua du. Aipatu baino ez ditugu egingo: lehengoa Lekarotzeko *Artzai Deya* dugu, hango kaputxino batek, aita Bonabentura Oyeregik, argitaratua. Ez dugu alerik ikusi, hala ere badakigu 1955.ean agertu zela, Alzolak aipatzen bait du *Euskeraren* bere zerrendan. Hortik lortu ditugu ezagutzen ditugun datu guztiak: hilabetekaria zen, euskar hutsezkoa, mimeografiatua. Ziur aski, 1956.ean ez zen agertu, ez bait du Alzolak urte hartako bere erroldan aipatzen.

R.S.B.A.P.en *Boletinen* eranskin edo gehigarri moduan (*Suplemento rural del Boletín de la R.S.B.A.P.* zuen azpizburua), aldizkari independentetzat hartu badugu ere (Boletina bera eta aldizkari honen itxurak ezberdinak ziren oso), *Luberri* 1954. eta 1955. urteetan argitaratu zen Donostian, Gipuzkoako nekazarientzat. Elebiduna zen (% 40a euskaraz agertzen zen).

Iraunkorragoa izan zen *Goiz Argi*. Urte askotan argitaratua, hemen bakarrik 1958.-1959. urteetako aleak aipatuko ditugu. Lehen urtean txikia, euskara hutsez, gero askoz ere haundiagoa, euskaraz eta erdaraz, gaiak beti nekazaritzari buruzkoa ziren, noizbehinka bestelako berriak bazekartzan ere. Arantzazuko frantziskotarrek argitaratzen zuten, argazkiekin, bi tinta erabiliz (beltza-gorria, urdin-beltza). Hasiera batean, *Aranzazu* aldizkariaren gehigarria zen, baina gero, "baserriak erakusleen bearra daukala ikusirik, asi genduan lengo urtean 'Baserriaren laguna' izena zuan atal berri bat gure illero ontan", eta gero "zortzi orriko illerokotxo bat ateratzea erabaki degu"¹²⁸. 1959.ean aurre-rapausu bat eman nahi izan zuten, eta "GOIZ-ARGI'k baserriarrena ez ezik, euskaldun guzien errebista izan nai luke, euskaldun guzien periodikoa baltz bezela". Beti nekazaritza gaiak ikutu arren, "euskaldun guziak ulertzeko eran", 60.eko hamarkada hastear zegoelarik "kaletar eta baserriarren

128.- *Goiz-Argi*, 1. zenbakia, 1958.eko urtarrila-otsaila.

arteko artu-emanak estutu nai lituzke GOIZ-ARGI'k¹²⁹, agian industrializazioak berarekin batera zekarren hiritartze-prozesuaz jabeturik.

H) Haurrentzako aldizkariak

Gerra ondoren, lehenago Hegoan komiki asko kalera irten bait ziren, haurrentzako prentsan Iparreko euskaldunek lehen pausua eman zuten. Egoera hobeto zen beraiantzat: nahiz eta euskara hezkuntza ofizialetik at beti egon, Hegoan errepresioak galerazten zuen edonolako euskarazko aldizkaririk argitaratzea. Dakigunez, 1950.ean hasi zen euskarazko kazetagitzaeren berpizkundea, *Egan* aldizkari literarioaren eskutik. Iparren, aldiz, astekari indartsu bat zegoen. *Herriak* haurrentzako gehigarri bat ateratzea erabaki zuen: *Pottolo. Eskualdun haurren agerkaria. Journal des Enfants Basques* zuen izena. Batzutan astekariaren neurriko orri bat zen, beste batzutan txikiagoa. Hiru kolorez egina (gorria, beltza, berdea), umeentzako testuak eta haurrek berek egindakoak zekarzan. Noizbehinka ere komiki-tira bat argitaratzen zuten, itzulia.

Hegoan ez zen komikirik argitaratu (Gerra aurrean ere, *Txistu* eta *Poxpolinen* esperientziak, diru aldetik, txarrak izan ziren). Aldizkari batzutan, ikusi dugunez, komiki batzuk argitaratzen ziren: *Anaitasunan* Ameriketako komikiak, euskarara itzuliak, agertzen ziren; *Zeruko Argiakoak*, aldiz, kaputxinoek berek egindakoak (Oterminek marrazten omen zituen) izaten ziren, antzinako erara, hau da, *balloon* edo globorik gabe, haien ordez didaskalia edo marrazkien azpiko testuak jarritz.

Garai hartako haurrentzako aldizkaririk garrantzitsuenak Iruñean apaiz batek, Felipe Murietak, argitaratzen zuena izan zen. *Umeen Deia* (hasieran *Umien Deia*) 1959.ean agertzen hasi zen. Urte hartako ekainean sortu zuen Murietak aldizkari hori, zazpi urtetan zehar zuzenduko zuena. Guztira, 65 ale, bakoitzak 4 orrialdekoa (7 bikoitzak izan ziren). Euskararen egoera larriaz kezkatuta, Felipe Murietak erabaki zuen haurrentzako aldizkari bat ateratzea, ez aldizkari filologiko edo literario, euskarak bizirik iraun zezan hizlari gazteen artean. 1959.eko maiatzak 17an, Etxalekun ospatutako Euskal jaialdi baten ondoren, Murietak Nafarroako Principe de Viana Institutzioko Pedro Diez de Ulzurruni proposatu zion, eta handik aurrera urteroko 5000 pezeta jaso zituen diru-laguntza moduan. Euskaltzalek sostengatua (Murietak dohain banatu nahi zuen umeen artean), aldizkaria umeek berek idatzia behar zen. Euskaltzale guztien zorionak jaso zituen aldizkariak, baita Euskaltzaindiarenak ere, bere bizitzaren zazpi urtetan¹³⁰.

I) Irratia

Gure ikerketa xume hau bukatzeko, laburki irratia aipatuko dugu. Honek beste azterketa luzeago eta sakonago bat mereziko lukeelakoan, hemen arin-arin arituko gara.

Ikusiko dugu iadanik B.B.C.ko euskarazko irratsaioak, Gotzon Urrutiak eginak eta *Alderdi* aldizkarian argitaratuak. Baita Euzkadi Irratiak aideratzen zituenak eta Pariseko *Euzko-Deyaren* gehigarrietan argitaratuak ere. Orain Hegoan hasitakoak (Iparrean Frantziako Estatu-Irratiak aideratutakoak eskasak zira) aipatu behar ditugu.

50.eko hamarkadako azken egunetan hasi ziren Donostiako *La Voz de Guipúzcoa* irratsaioak aideratzen. *Radio San Sebastián*ek ere zenbait gauza euskaraz egiten zuen. 1958.ean, esate baterako, larunbatero, arratsaldeko 8etatik 8,30tara nekazaritzari buruzko irratsaio bat emititzen zuen.

129.- *Goiz-Argi*, 1959.eko urtarrila.

130.- Aldizkari honetaz badago liburu bat: Torres, Ismael: *Umeen Deia*, Librería Claret, Bilbo, 1971.

